

EUSKERAZAINZA

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA
Academia Popular de la Lengua Vasca
L'Academie Populaire de la Langue Basque

XLIX Zenbakia

2001n.urtea

EUSKERAZAINZA.....

ERRIZ ERRI.....

ERRI-EUSKERA LANTZEN.....

EUSKARAZAINZA. Euskeraren Erri Akademia.

Z.N.A./C.I.F. G 20/127.759

Eusko Jaurlaritzaren Elkarte Erroldan, 1136 zenbakia.

Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena (BOE 45/1981 eta EE.AA. 96/1984)

Zuzenbideak: 1192 Posta Kutxatilla 20080 DONOSTIA

Colón de Larreategi, 14-2ª 48001 BILBAO

AURKIBIDEA

	Orr.
Atarikoa (OLAZAR´tar Martin´ek)	5
Lenengo egutegi bizkaitarren errefracak (MARTIARTU´tar Iniaki´k)	6
Lortuak eta lortzekoak (OLAZAR´tar Martin´ek)	11
Jaime Kerexeta Olerkari (ZUBIRI´tar Iñaki´k).....	14
Euskereari buruz agiri nagusia´ri oarrak (OLAZAR´tar Martin´ek)	22
Gipuzkoa ta frantzi-arteko burrukak (ARRINDA´tar Anes´ek)	25
Etxe-izenak eta abizenak (OLAZAR´tar Martin´ek).....	34
Euskeraren erronka (LATIEGI´tar Bizente).....	76
Bizkaiko euskerea zuzentzen (OLAZAR´tar Martin´ek)	91
On Inozentzio il zaigu (Jose Mari Murua Goñi).....	110

Laguntzalleak

Gipuzkoako Aldundia

Eusko Jaurlaritza



EUSKERAZAINTZA



I.S.B.N.: 1132-1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Konponketa: Flash Composition, S.L. - Bilbao

ATARIKOA

(Zenbaki onetako gaiak)

2001n.urtean EUSKERAZAINTZA aldizkariaren zenbaki bat baiño ez dogu argitaratu eta gure irakurleai zor dautsegun leialtasunari dagokionez, ona emen bigarren zenbakia.

Gure agiri zarretan dagon jakituria sarritan alboratuta eukiten dogu. Zenbat irakatsi eder Azkue'renak erdi-aiztuta. Eta zenbat, baita, Arana Goiri'tar Sabin'enak. Martiartuk urrengo idaz-lanean Sabin'ek lenengo egutegian argitaratu ebazan atsotizak gogoratzen dauskuz.

Urte birik bein izaten da EUSKERAZAINTZA EUSKEREAREN ERRI-AKADEMIA'n Lendakariaren aukeraketa. Urte bikietan ez da egiten, bakietan edo "nonnes" diranetan bai. Orregaitik aurten egin bear da.

Aukeraketa ori egin aurretik, Lendakari-gaiak lortuen eta lortzekoen barria emoten dau.

Zubiri'tar Iñakik Kerexeta'tar Jaime aurkezten dausku. Jaimek arlo askotan egin eban lan, baiña barru-miñezko olerki eder asko be egin ebazan. Orreik dakarskuz Iñakik.

Gure Latxaga lankide ta euskal-arloan ain jakitun danak, laster argitaratuko dauan Euskereari buruz AGIRI NAGUSIA (MANIFIESTOA) irakurri euskun eta geure oarrak egiteko eskatu. Orixe egiten dogu urrengo idaz-lanean.

Arrinda'tar Anes gure lankidea oso jakituna da batez edesti-arloan. Beronek egiten dausku urrengo idaz-lanean aldi baten Gipuzkoaren eta Frantzeren artean izandako goraberen azterketa.

Euskaldunentzat garrantzi aundia izan dau etxeak eta etxearen izenetik datoz abizenak. Idaz-lan luze baten abizenik ezagunenak aztertuko dodaz eta bakoitzari buruz iru gauza esan: Non sortu dan zenbatgarren urtean agiri dan idatzita eta zer esan gura dauan. Gauza arrigarriak agiri dira or eta gaur galduta dagozen itz eder asko be bai.

Gaur sarritan aitatzen da erderaz "globalizaziñoa". Nik itz ori euskeraz "batzangoa" esango neuke. Eta gaurko jazokizun onek ba-dau zer-ikusia euskereagaz. Batzangoak erri txikiak eta izkuntza gitxi erabilliak baztertu egiten dauz, Ameriketan inditarrak baztertuak eta "reserbetara" alboratuak izan ziran lez, olantxe baztertzen dau euskerea inguruak. Orren azterketa egiten dau gure Atutxak.

Idazleak idazteko, eragaillu edo ordenadorearen aurren jesartzen danean, zalantza asko izaten dauz. Berrogeta amabi aurkitu dodaz oraingo eta zalantza orreik argitzea da nire idazlanaren egitekoa.

OLAZAR'tar MARTIN

LEENENGO EGUTEGI BIZKAITARRAren ERREFRAU ZAAREN TXORTEA

“*Lenengo Egutegi Bizkatara*” izenekoa kaleratu eban Sabino Aranak 1989. urtean zear. Ormako egutegi lez, Euskalerrian leenengoa euskeraz, aurki. Aurreko urtean sakelarakoa bakarrik argitaratu baeban Sabinok berak, 1989. urte atan bietarakoa kaleratu gura izan eta alantxe egin eban.

Orduko sasoiko erderazko egutegiak lez, egun bakotzeko orritxu bat ekarren irakurteko. Egutegiaren ganeko azalean edo agurrean dakarren lez, Bizkaiko euskaldunentzako egina zan. Asmo garbia eukan a eginkeran, Bizkaiko euskaldunengan “*Jaungoikoa eta Lagi-Zarra*”-ren aldeko gogo sortutekoa, atan be: “Oneek maite badozuz, neu be maiteko nozu. Bestelan, uretara jaurti nagizu”. Alan bada, “egutegi abertzalea” eritxon areri.

Bertan danetariko argibideak emoten aalegindu zan: istoria gaiak, politika arlokoak, izkuntzakoak, erlijinokoak, eta abar. An argitaratutakoen artean, aitatu bearrakoa da, berak asmatu edota euskerara egokitutako izenak egutegi aretan asi zala kaleratuten. Baina, lerrootara ekarri, beste zeozer ekarri gura izan dogu. Badira argibide areen guztiareen artean Bizkaiko tradizinoari jagokozan ainbat errefrau edo esakun zaar be, ziur antzean, berak an-or-emen batuta. Bizkaieria da nagusi esaunkotan, bai berben aldetik bai adizkeren aldetik be. Guk aona, barriz, ilean-ileango errenkadan eta eurotan alfabetoaren arabera ekarri doguz esakuneok. Amaieran, berbaren batzuen esangurea obeto ulertuteko, berbalapiko antzean, iztegi laburra geitu dogu. Asago barik, gatozan, bada, maminera.

URTARRILA

- Agure onari, ez ateaq itxi.
- Aldi txaburra bada, egun astia baino oba da.
- Atzerrian lurra garratz, oina ipini egik maratz.
- Balizko oleak, burdinarik ez.
- Biotza ta adimena gudan dira bearrago, iskiluak baino.
- Edonor da azarri, baina gudara doaz gitxi.
- Egia, latz eta labur.
- Ez egikek basotik oanean, eder ez danik urian.
- Surik ez dan lekuan, kerik be ez.
- Urde loiak, zitaldu.
- Zagokez isilik, eta ez daizu entzun gaiztorik.
- Zaran bat dagianak, bi dagiz.
- Zelangoa baista amea, alangoa oi da alabea

ZEZEILA

- Adion da bost ume: alaba bi ta iru seme.
- Alaba umaginari, amea estalgi.
- Aretx asko dan urtea, besteak baino ez ohea.
- Edozein oilar, bere aldapean.
- Ezkondu baino, etxea leenago.
- Lukikume, azeri.
- Oparinak nengian beargin, eta alperkeriak auzkin.
- Otsoak artzari min leio.
- Zuk au, nik au: zozkerek emon dau.

MARTIA

- Adiskide bako bizitza, auzo bako eriotza.
- Asko badok, asko bearko dok.
- Atean uso, etxean otso: alako bizikerea, gaixo.
- Ekandu gaiztoa, belu aaztu doa.
- Emakume eder eta aberatsa, edo ero edo zarata.
- Emakumea eta sardina, autsetan aozpez.
- Idi zaarrari, arran barri.
- Uri galduan, auzia eskuan.
- Urte edurtsua, garitsua.

APIRILA

- Eskurean agora, okelea galtzen doa.
- Itsasoak, errekek eta iturriak eta ibaiak iruntsi.
- Jaki onak, dakarz gatzak.
- Jausi dan ezkurra, oroen su-egurra.
- Justuriaren atzean, euria.
- Lastozko buztana dauanak, atzera begira.
- Laztan eta apa? Leusindu eta kaltea.
- Legorrean artu ez doa, arrankaria.
- Neskea, azi dan lez; kirrua, irun dan lez.
- Ostikoa akuiluaganako, idiarentzat gaixo.

MAIATZA

- Daukagunean naia, gurari baga izan goaz.
- Ez da aldatsik, ibar bakorik.
- Ez eiozu eskatu daukarari, ta bai onesten zauzanari.
- Gibel ekatxari; bular aldi onari.
- Utsik datorrena, berealan biurtu.
- Laster emoten dauanak, birritan emoten dau.
- Nai ez dauanak ogenik, ines bei gaiztoaganik.
- Seinak dantzuna ezkaratzean, esan daroa atadian.
- Ukondoa ur da, baina mun egiten eskerga.
- Zeian etxea, urrezko atea.

BAGILA

- Egia, erkoia.
- Etxean jopua ta oilarra, urte betean asko da.
- Eztia ta ozpin, gozo ta on egin.
- Lotsaga nindin; ogiz ase nindin.
- Aretxerean artera, ekandu gaiztoa artu aal da.
- Jauna, burkide gaizto.
- Lurraren umea, lurra azidaroa.
- Naibako ezkontzea, nekea ta kaltea.
- Ondo egiok txiroari, Jaunak emongo deusk sari.
- Oski osoa naiz eztena, eskuan baino oinean obea.
- Ulerle onari, berba gitxi.

GARAGARRILLA

- Ez eik galdu aldia, ta idoro daik guraria.
- Gaiztoto irabazia, iratxuak iratzia.
- Gaiztoto oi danari, bildurra jarraigi, ta kaltea jaurki.
- Galdu ezker osasuna, da ezaguna.
- Galendua dabil, ubiren bila.
- Gatx egiten badok, ainbeste itxadok.
- Otsoren agotik okelea be, on.

DAGONILA

- Auntzak ikusi garia, baina ez esia.
- Ardao gozoak lau begi, ta oinik ez.
- Ardi txikia, beti bildots.
- Arrats gorri, goizean eguzki.
- Bizar ilari, lotsa gitxi.
- Edozein zidorrek, dau luperia.
- Erroiaren arrautzak, usakumerik ez.
- Gaiztoto ala ondo jan, iru bider edan.
- Goiz gorri, laster euri.
- Goiz jagia, goiz gose; belu jagia, loz ase.
- Oilo gosea, beti soinulari.
- Oiloari oloa, astoari, lastoa.
- Orik ez dan errian, ibar-jaun da azeria.
- Otsoak bere aragirean, ez eban jan.
- Otsoak otsoari, gatxik ez; eta lapurrari lapurrak, laztan.
- Txakur goseak, ogia ames.

IRAILA

- Aldats gorea, aldats beerea.
- Amuarrainak begi bi; sei ezkailuk amabi.
- Artzainak asarratu, gaztaiak agertu.

- Auzoko beiak, erroa luze.
- Aztertzen dago, ta burrustuko jat.
- Badaukazu zeugaz, jango dozu neugaz.
- Dagoanean, bon-bon; ez dagoanean, egon
- Eguzkia nora, zapiak ara.
- Etxean ikusia, umeak ikasia.
- Guzurrea esan neban mendian, neu baino leenago zan errian.
- I eure etxean, eta ni emen.
- Itsua da, baetik ez dakusana.
- Urdaia janda, garbaia.
- Zauriak otzituago, minago.
- Zor zaarra, zor txarra.
- Zu beti ero; otz ez dana bero.

URRIA

- Diru gitxi daukanak, bekarz oinak eskuan.
- Edozerk dau izena.
- Edur asko dan urtean, garia; erle asko daukaguzanean, ezta.
- Ez ardao bitsurik, ez emazte bizartsurik.
- Gibel egiok ekatxari.
- Neure etxeko kea, laguneneko sua baino oba.
- Txiroak intxausti dirudi: guztiok arrika beti.
- Urak dakarrena, urak daroa.

ZEMENDIA

- Agurea ta labea, agotik berotu.
- Ardia auntzari, ule eske
- Emongo badeustazu, luzatu ez eidazu.
- Ez beti, gaztai ta ogi.
- Gizon biziak, berea eskatu daroa.
- Leiak eta euriak, dakarrez eskura gariak.
- Ogiagaz gatxak, txikiago.
- Zekenaren bizian, kaltea; osasuna, aren eriotzea.
- Zozpalak dirudi bere egurra, ta egurrak bere zugatza.

ABENDUA

- Daukanak gabon, ez daukanari emon. Ez da ori egia, bai daukanak daukararia.
- Egia da latz, eta garratz eta mergatz.
- Emakumea soloi, urdea basoi.
- Etorri badakik bilatuten doan gatxa, gondu dakiala.
- Igazko abietan, aurtan txoririk ez.
- Leiak ta edurrak, garia dakarre eskura.
- Ogi gogorrari, agin zorrotza.
- Ogi ta lasto, etxerako.
- Urte zaarrari, ostikoka beti; urte barria, orok onetsia.

Berbalapikoa

adion = egoki.
aldape = beerakada.
aldi = denbora.
aldi on = abagune, zori on.
amea = umea egin dauan ama.
apa = arpegian emoten dan musua.
(ume.)
arran = joare, zintzarri.
auzi = kereila.
auzkin = auzizale.
azarri = ausart.
aztertu = induskatu.
baga = barik.
baist- = bait-.
bizi = zorrotz, zoli. (pertsu.)
bon-bon = parra-parra eralgi.
burkide = aurkako, leiakide.
burrustu = eraso, oldartu. (nor-nori)
dagi = egiten dau.
dagiz = egiten dauz.
daik = -ko dok (dozu).
daizu = -ko dozu.
dakus = ikusten dau.
dantzu = entzuten dau.
deusk = deua (deutsu).
egikek = egin eik (egin eizu). (gero)
egiok = egin eiok (eiozu).
ekandu = oitura.
erkoi = argal, mirri, makal.
ero = 1. mamala, memela; 2. zoro.
eroan = oi izan. (aditz igarokorrakaz)
erro = titiburu. (abere.)
eskerga = gatx, nekez.
estalgi = babesgarri.
ezkailu = kizkailu, txipa. (arraina)
gaiztoto = dongaro, txarto.
galendu = eskarmentatu.
garbai = damu.
-ri gibel egin = -ri popea emon,
anka egin.

gondu = on egin, onurea atara.
joan = oi izan. (aditz igarogatzakaz)
aretx = ezkur.
ibar = lautada, zelai.
idoro = bilatuten dana aurkitu.
ines egin = ospa egin.
iratzu = iditxu, mamu.
iratzu = gozatu.
irun = goruetan egin.
itxadok = itxadon eik (itxadon eizu).
jarraigi = jarraitu.
jaurki = eraso, ekin.
jopu = otsein, morroi.
kirru = amuko, iztupa.
leusindu = lausengatu, koipatu.
lotsaga = lotsabako.
luperia = basatza, lupetza.
maratz = arduratsu, beargin.
mergatx = zakar, gozagatx.
mun egin = musu emon (arpegian
izan ezik).
nindin = nendin, neinten.
ogen = oben, erru.
onetsi = oneritxi, ontzat artu.
oparin = bearrian
or = txakur.
oroen = guztien, orokor.
oski = oinetako, zapata.
-rean = -tik, -rik.
txabur = labur.
txiro = ezeuki, beartsu.
ubi = ibi, ubeera.
umagin = seindun.
ulerle = ulertzaile.
zagokez = egon zaitez. (gero)
zaran = otzara.
zauz = zaitu.
zeia = merkatu.
zozkera = zozketa.
zozpal = ezpal.

INIAKI MARTIARTU
2000ko dagonilean

LORTUAK ETA LORTZEKOAK

(2001-10-27)

Jaun-Andreok:

Joan jakuz beste urte bi azkenengo auteskundea egin zanetik eta Euskerazaintza'ren Lendakaria aukeratzeko sasoiak eldu da. Nik ez daukat jarraitzeko gurari bizi-rik, baiña bear izan ezkerko lanerako gertu nago. Zuen izango aukeraketa.

Baiña aukeraketa egin baiña lenago, olako egoeran beti egiten dogun lez, "Lortuak eta lortzekoak" deritxon agerpen au egingo dot, urte bi oneitan egindako lanak ageritzeko eta egiteko dagozanai buruz neure eritxia azaltzeko.

1.- EUSKERAZAIÑAK

Urte bi oneitan iru izan dira joan jakuzan euskerazaiñak, irurak batzarretara etorten izan ez diranak: Jaime Kerexeta, Pedro Puxana eta Inozentzio Aierbe. Lenengo bien alde ospatu gendun mezea Deba'ko parrokian eta irugarrena, oraintzuko dan ezkerro, urrengo baten ospatuko dogu.

Bazkide barririk ez da etorri eta etorri diran gazteak be ez dira sarritan batzarretan ikusten, batez be Jon Malaxetxebarria ta Mikel Aldekotxea doguz gogoan. Oneik lan egin bear izaten dabe eta geienetan ezin izaten dira etorri.

Ona emen batzarrik geienetan izaten diran bazkideak: Latxaga, Solozabal, Latiegi, Arrinda, Arzeluz, Atutxa, Olazar. Gaiñera aspaldion daukagu gaisorik eta ezin leitekete etorri Augustin Zubikarai. Onegaz etorten izan dan Martin Garcia be aspaldion ez dogu batzarrean ikusten.

Lana egiten dogu eta gogotsu gagoz jarraitzeko.

2.-LANAK

2.1.- BANAKA

Gure lanak bitarikoak izaten dira. Banaka egiten doguzanak eta talde lez egitekoak.

Banaka gutariko bakoitzak lan aundia egiten dau euskerearen eta euskal-kulturan alde. Esaterako, Bilbao'n EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k aurten egiten dauan Euskal-Astean bost izlari dagoz eta bostak gara Euskerazaintzakoak. Olazar'ek idatzibari dau Fruiz erriaren edestia. Laster urtengo da irarkolatik. Gaiñera Bizitza-edesti labur bi idatzi dauz, bata Berriz'ko Urzelai'tar Eduardo'rena eta Arregi'tar Jose Mari abadearena bestea. gaiñera ZER bizkaierazko illeroko aldizria zuzentzen dau eta berton idazlan asko argitaratu. Latiegi bere liburuak, Euskal-Eleizearen edestiari buruz idazten ari da eta oraintsu argitaratu dau azkenengoa. Euskal-eleizeari buruz erdiaroan diran idazki zarrak aztertzen diardu eta orantsu egin dau azterketa sakon bat Pina'ko Jon Deunaren lekaidetxeko kartularioai buruz. Solozabal'ek bere olerkilanean jarraitzen dau eta Zubiri'k urtero elebarria eskintzen dauku.

2.2.– TALDEAN

Taldean lan aundia egiten dogu, urrengo ataletan agertuko dan lez, baiña aspaldion liburu aundi bat daukagu gertatuta argitaratzeko: “Gudan ildako idazle gazteak”. Orrez gaiñera illeroko batzarra.

3.– BATZARRAK

Talde baten bizitzan garrantzi aundia dauke batzarrak, gurean be bai. Eta illeroko batzarra beti egin dogu, Deba’ko eleiz-tokietan bein eta Bilbao’ko Euskerazaleak alkartearen etxean bestean. Ba-daukagu zalantza batzar au non egin, baiña oraingoz Deba’n egiten jarraituko dogu gure Arrinda be batzarkide izan al daiten eta Bilbao’koak be bardin jarraituko doguz, guztiontzak errezago dalako Bilbao’ra joatea.

4.– DIRU-LAGUNTZAK

Orain-arte Jauriaritzatik artzen izan dogu laguntza apur bat eta geure eralketa arruntetarako izaten izan da. Laguntza aundiagoak be lortu doguz argitalpenak egiteko, baiña eralketa arruntetarako laguntza txikia izanez gaiñera ararteko lan asko daukazana da eta itzi egin dogu. Aurrerantzean beste erakunde batzutara urreratuko gara laguntza-eske. Ba-daukagu Tolosa’ko aretoari buruz beste asmo bat, baiña au gero azalduko dogu.

5.– TOLOSA’KO ARETOA

Urte batzuk dirala Kardaberaztarrak batzarra egin gendun eta gu eta eurak erakunde baten alkartzea erabagi zan. Orretarako Kardaberaz’tarrak an geunkan aretoa saldu eta dirua Euskerazaintzara emotea erabagi zan. Izan be, euskerazaintza Kardaberaz taldearen ondorengoa eta “seme” antzekoa da. Oraintxe diardugu ori beteteko bideak artzen eta diru ori artzen dogunean laguntza on bat izango da gure eralketa arruntai erantzuteko. Dirua oin lez geratuko da eta urtero mozkiñak izango doguz laguntza. Ba-leiteke illero eun bat milla pezeta izatea, baiña oraingoz ez dakigu zenbat izango dan.

6.– IDAZTARAUAK

Edozein idazlek idatzikeran zalantzak izaten dauz, esaterako: “berezi” ala “bereizi”, “goi-koma” ala “marratxua” eta abar. Ori argitzeko Euskerazaintzak liburutxu bat argitaratu eban, Jesus Gaztañaga lankide zala, baiña gauza batzuk bear ba’da aldatu egin bear dira, gaurko idazkiñak eta egokin edo ordenagailuak euren bearkizunak daukezelako. Ori dala-ta ekitaldi bat egin bearko dogu eta asteko emen daukaguz 52 arau.

7.– ALDIZKARIA

Urtero zenbaki bi gitxienez atera doguz eta orretan jarraitu bear genduke. 48^a izan da aurten atera dan azkenengoa. Beste bat atera bear geunke aurten. Ikusi bearko da diru-arloa zelan doan. Garrantzi aundikoa da gutzat aldizkari au eta irakurleak pozik artzen dabe.

Zenbakiak Josi eta liburu biurtzen doguz. Bat dago eginda eta lau zenbaki onegaz josteko edo “enkuadernatzeko”.

8.– EUSKERA JOLASBIDEZ

Bazkide eta lankide ona izan genduan Manu Oñatibia'k Europa'tik artutako diru laguntzaz euskera irakasteko "bideo" on batzuk atera ebazan. Bere etxeokak alda-kiak egin dabez baiña lan eder au zabaltzen asi bear dogu, batez be euskera ez dakien tokietan ikasbide izan dagien. Orretan diardugu oraintxe.

9.– ERIOXAN ETA NAPARROAN

Euskerea galduta dagoan lekuetan, batez be Naparroan eta Errioxan lan aundia egiten dabe Latxaga ta Atutxa lankideak. An diran ikastolai adorea emoten eta zabal-kundea egiten be alegintzen dira. Oraintsu entzun dogu zelako arrakasta izan dauan Naparroa oiñez ekintzak. Eragin orreri laguntzen jarraitu bear dogu.

10.– "DIARIO DE NAVARRA" N

"Diario de Navarra" n orri bat beteten dabe bertako euskeraz latiegi'k eta latxaga'k.

11.– OSKA'KO EUSKEREA

Oska'n euskerea noiztik egin dan aztertzeke ango agiritegietan diran agiriak billa-tzen lana egin dabe Latiegi'k eta Atutxa'k eta Latxaga'k, orretarako Jaurlaritza'ren laguntza lortuta. Oraintsu il dan Oska'ko Gotzaiña be laguntzaille izan dabe eta geia-go agiritegiko langilleak.

12.– KEREXETARI OMENALDIA

Euskal-alorrean lan aundia egin dabena omenaldia egitekoa antxiñako ekintza dogu Euskerazaintzan eta ekintza orreri jarraitzeke erabagia artu gendun. Il-barria zan Kerexeta artu gendun orretarako lenengo lez eta urrats batzuk emon be bai Jaurlarit-zan eta Iñigo Agirre, Kerexetaren lobeagaz, baiña azken-ordu an eragozpen bat ager-tu jakun. Jaurlaritza laguntza emoteko Kerexetaren bizitza-liburua euskera batuan zabaltzea ipiñi euskuen eta gure akademiak ori ez zala egoki uste izan eban eta atze-ratu egin zan omenaldia. Bitartean Elorrio'ko talde batek eratu eban eta an izan giñan itzaldietan eta eleizkizunean. Era batera naiz bestera, euskaltzaindia be or sartu zala, egin zan omenaldia eta poztuten gara.

Geiago barik, itzalditxu au amaitu egin bear dot eta ez jat geratzen besterik esate-ko auxe baiño: Jarraitu daigun lanean eta gure euskereak aurrera ta aurrera iraungo dau urte askotarako.

OLAZAR'tar MARTIN
Lendakariak

JAIME KEREXETA OLERKARI

1998 urteko Dagonilla'ren 5'an, Jaime Kerexeta abade ta idazle gain-gaiñekoa il zan, gure artean uts bete-eziña sortuz. Bizkaieraren arloan onenatariko idazlea zan; ez dodaz emen oiko bere idaz-lanak aipatuko, berrogeitik gorakoak izan diralako, baiña ezin dagiket aipatu barik utzi, nire ustez bere maisu-lana izan zan "Euskal Biblia". Bizkaiera jator, mamintsu ta benetakoa ikasi gura dagianak, irakurri begi biblia ori, eta orduan oartuko da euskera gorena zer dan. Neuk ordu asko liburu ori irakurten emon dodaz, eta esan dagiket eredutzat artu, eta or irakaskintza-iturri agortu-eziña aurkitu dodala. Azkue'ren iztegi-zale andia zan, eta etenbarik erabilten eban bere idaz-lanetan

Baiña gaurko ereti onetan, ain ezagutua ez dan Kerexeta'ren beste bereiztasun bat agirian ipiñi gura dot. Bere olerki-bilduma eskuetara etorri yatanean, olerkarizat eban zelakotasunak, arrituta utzi ninduan. 1980 urtean agertutako "Orbelak - Bitargi - Udazken" bilduman, 1959 urtean argitaratutako "Orbelak" eta gero 1960 urtean agertutako "Bitargi", eta azkenean "Udazken" olerki-txortak alkatu ebazan.

Zelako olerkaria da Kerexeta...? Asteko esango neuke, izadi-zale andia dala. Bere olerkiai izadirako maitasun eta ederrespena darie, mendiko iturri garbiari ur bizi ta eresintsuak darion legez. Mendiak, Maitederra, basoak, ego ta ipar aizeak, Txoriak lorak, goizalde ta illunabarra, sarri-askotan agertzen dira, baita maitasuna be esku samur ta bigunaz erabilten dau, arimaren lore garbiak bai'litzazan. Eta jakiña, abade zan aldetik, jainkozale.

Norekin kide du dagikegu...? Ordu asko emon dodaz LAUAXETA irakurten eta aztertzen, eta ezpaibarik esango neuke, Laukiniz-Mungiako olerkariak antz andia daua, eta askotan Kerexeta'ren olerkiak irakurtean, baderitxat Lauaxeta'ren munduan murgiltzen nazala. Nire ustez, olerkari bioi izadirako usain bardina dariela begitantzen yat, jakiña, bakoitzak bere nortasun bereizia izanik. Aurrera joan aurretik, autortu bear dot, Kerexeta'ren olerkiak oso errazak dirala ulertzeko, eta ainbat eta ainbat olerkari zail eta biurriak ezagutata gero, esan bearrean naz xalotasuna benetan meritu andia dala.

Baiña benetan, olerkari bat zelakoa dan jakiteko, oba ez, bere lanak irakurtea baiño, eta orretarako bere olerkietatik neuk aukeraturiko ale batzuk lan onetera aldatu dodaz. Orrek ez dau esan gura, agertzen ez diranak bigarran maillakoak diranik, ez urrik emon be... ! Zaila billakatu yat, izan be, aukerapen au egitea.

NORK JAKIN-

Esatekorik ez dot.
Zerbait bai mendietaz,
zerbait areiztietaz...
Zer, ostera itsasoaz?

Itandu arraintxoai,
ta- beingoan urpetu;
itandu olatuai,
ta arkaitzetan apurtu

Itandu bitsai bere,
ta berez ezereztu. . .
Itsasoko sakona ezin
dautsut argitu.

Aren ostera doa
eguzkia arratsoro,
baita illargia bere
aste ontan goizoro.

Ezertxo ez diñok ik,
itsako barne urdin?
Ezer ba ete yakik
artizarrak? Nok jakin?

EGO - AIZEA

Udagoiez, Ego-aizea
dogu aizeetan jabe:
giro epelez, berantz datoz
orbelak ardura gabe.

Umeak - bizitzaren poza -
orbel-artearen olgetan;
nagusiak, barriz, urduri
irearen arduratan

Argiaren begian doaz
gure mutillak txistuka;
idien adoregarrizat
burdi utsaren kurrinka.

Illargia ta zoriona
basoko bidearen zain;
Kiñarro-ondoan irea
Gazte areintzat gura lain.

Urrez iratzak Ego-aizez;
ez da faltauko naparra;
ogiaren eske aausika
egun-erdian txakurra.

Egoiak dauan euri-miñaz
laiñoa dator gabeen;
gazteen iratza gorrikkak
urak busti dauz basoan.

Egoi-aizeaz dan eguna
gurekin giro garbia;
agur dagiskun arratsean
illunaldean euria.

IPAR- AIZEA

“Ainbatek itz dagitsugu
udako arratsetan,
beroaz egon eziñik
larri gagozanean.

Zatoz laster, Ipar-aize,
zeure mosuz baturik;
zerbait otzitu gagizuz
bero au aldendurik”

Baiña negu-biotzean
Beste bat da leloa:
“Zoaz arin, Ipar-aize,
geugaz daigun beroa.

Zuk atea izten dozuz,
Erio dirudizu
azurrok dardaraka itziz...
Sua bearko biztu”.

Umeak, barriz, diñoie:
“Bideak zuriz doguz
gizonkillak egiteko;
zugatzak, barriz, mamuz.

Zagoz gugaz, Ipar-aize;
Zeurekin da edurra,
Ortzian ikusi arte
euzkiaren muturra”

Edurra ta Ipar-aizea
iges doaz mendira..
“Zagoz or geldi, Ipar-aize
udararte begira”.

EZPAIA

Neugana zentozan;
zetan ez nekian;
zetan ez nekian;
baiña ba-zentozan.

Zu izketan nirekin
ta nik ezin egin
–biotza taupaka–,
nik erantzun ezin.

Zure itz gori areik
maitez apainduak,
nire biotzean
dardai mee, zorrotzak

Kukua mutua,
mutua neguan;
neu be bardin nintzan
an zure aurrean.

Zer ziñostan, gazte?
Zu izketan, ni isillik.
Geuk dakigu dana,
geuk ta zugatz areik.

Ta aldendu zintzazan,
aldendu agurka;
ta urrindu ondoren,
ni pozez barrezka.

Zu niri begira
–biotzaren poza–,
ni zuri begira...
Ego-aize otsa–,

IGURIA'KO ERROTAN

Iguría'ko errotan
amairu sorgin gabea;
Iguría'ko errotan
dantza-dantzari kantetan

Areik bai gorputz ariñak
aurpegia argi, oin bizkor!
“Klin, klon, klin ta klon soiñuan
ekiok ik, bolu, gogor”,

Aldameneko lerroian
mozolo zaarren kurrinkak;
ta Goikoetxe-egalean
ontzearen erantzunak.

Argi-diztirak aidean,
egaka suzko anderak,
Anboto'tik berantz, gorantz...
Errota-ondoko dantzak!

Anboto'ko Anderea
batzarre-buru nagusi;

bolu-ondoko zelaian
sorgin-oztea nabasi.

Sorgin-gaba don, itxuraz:
illargi bete; ozkarbi;
izarrak dizdiz; aizea
lotan... Au gau zoragarri!

Iguría'ko errotan
eundaka sorgin gabea;
Iguría'ko errotan
dantza-dantzari kantetan.

ZORIONA TA ITUNA

Memaria'ko zidorretatik
itun-andera igesi doa;
urrezko uzaiz ta iru azkonez
Zorion, aren arerioa

Ortzian, diz-diz, goizeko izarra
eta adar biko illargi zaarra.

Alako baten, txistu min batek
iratzartu dau goizeko isilla:
azkon zorrotz bat arin-aringa
urten da, egaz, norbaiten billa.

Ituna'k ostu, bere otseintzat,
Zorionaren seme gazte bat!

Azkon-indarrez - lurra jo bear
arte igarraren adar zimelak.
Barriz, bigarren txistua egaz:
berea askatu nai Zorionak.

“Ik bai larriak, Zorion-seme!
Ire asma dok itun-garaille!”

Ba-doakio irugarrena
- dardai arreez kontuz, Ituna!-:
azkenengoak, zori on andiz,
birrindu dautso aurpegi illuna.

Ama-semeak, pozez, laztanka!
Orain abestu Zorion-kanta.

ASPALDIKOA

Beti alan, poz bagarik,
bizitza zan ituna!
Barre-iririk ez mosuan,
urrun soiñu biguna,

entzun eziñik mendian
orbel-otsa oiñetan,
neroni pa emon nairik
udagoi-arratsetan. . .

Amaika aldiz nai izan neban
askatasun-bidea,
txakur mustur-baltz arekin
bakez bizi izatea!

Baiña abots batek ziraustan
"Alan nai zeuke bizi?
Kontuz!, loren artean, bai,
arantzak dira ikusi".

Negar, itxaron, gura izan
alaitasun-geroa:
auxe zan luzaro nire
amaibako leloa

ZELAIETAKOA

Eta suagada a baizen ariñik
ez zan iñoiz izan txisturik!
Neuganuntz ekarren aren danba illa
aize bigunak sortzaldetik.

Argiñeta-esian
aize zabaletan
bedartza orlegian,
begiak ortzian...

Bere arintza burtzogarria
tximistari ostu naiean;
biotza dar-dar... ta Txistu alaia
bizkor ta arin zelai ezean.

Gero an, mendiaz bat
eresi argia
galtzen zan, bizi nairik. ..
Suagada itzela!

Zelai zabalaren kolkoan, alai,
milla gazte ebizan urduri
Non ete ziran arein biotz-zaiñak?
Pozez ziran dantza-dantzari!

Nortzuk ete zirean
begi-baltz-zaleak?
Aize meeak eutsezan
ardura zorrotzak!

Eta suagada a baizen ariñik,
An entzun ete zan iñoiz txisturik?

GABEKO BEDERATZIETAN

Nire etxeko leioan,
gabeko isilletan,
aize bigun-artean,
biotza amesetan!

Ezer ez da entzuten;
bildotsen be erlatza
da bakarrik gabeko
eresi-lorratza.

Ozkarbian izarrak,
mendi-goian zugatzak

Illargi betearen
zidarrezko ditziz
aitz-gaiñak zuriz dagoz,
oro jantzi zuriz.

Laiño meea menditik
goi-gorantz igo da;
mozoloa torretik
mendirantz joan da.

Ez dot bear lagunik
gogartzeko bakarrik.

Bakardiak artu nau
altzoan isilka,
eta isillak gorde nau
ostuka-ostuka.

MEMARIA'N

Memaria'ko zelai
atsegiña dago;
Memaria'ko zelai
zoriona bego!

Memaria'ko txoria,
txindortxu polita:
zetako zagoz atsege?
Zein atsekabea?

Zelan zabiz ara-ona,
txioz, goi ta beean?
Biotz-zatia dakuszu
orrien artean?

Ai papargorri gorritxu:
iñoiz nagaberik
ezautu dozu barruan?
Iñoiz ez, gaur ezik.

Memaria'ko zelaian
atsegiña dago; Memaria'ko zelaian
atsedena bego!

PUILLA'KO ITURRIA

Goizean-goizean
Puilla'ra noa;
goizean-goizean
Puilla-iturrira.

Iturri-murmurra
lau baztarretan,
negartsu jolasez,
zir-zir uiñetan.

Puilla maitetsua!
Puilla zer danik
beroa ez daki
ango bidetik.

Iturri-agoa
oldei-artean,
ta euzki-diztirak
goi-urrunean...

Udaren begian
bertako urak
laztandu daizala
ezpan gorrizkak!

Goizean-goizean
Puilla'ra noa;
goizean-goizean
Puilla-iturrira

KANPAI - OTSA

Kanpai-otsa torrean:
norbait il da itxuraz.
Txoriak isil, mutu,
otsaren durundaz

Erritarrak erreguz,
etxandrak itaunez:
"Nor il da? Ta guztiak:
"Kaleon, iñor ez".

Ez dakie nor il dan;
iñor geisorik bai?
Ez egin jaramonik
erriko kanpaia!

Baiña areik, astiro,
din-daun diardue:
eguneko egia
eurak dirautsue.

Ekin gogor, kanpaiok;
zabal gure ituna:
gaur goizean il baita
biren maitasuna!

ABESTI MIÑEZ

Abesti-miñez jagi naz
udazken-goiz onetan;
ego-aizea dot lagun
aurreko zugatzetan.

Anboto, leengo tokian
geldi, mendi ta ibar zain;
areitzak soiñeko baga
ta orbelak gura lain.

Azken-iratzak mendian
igitaiari deika;
basoko bide estatueta
burdiaren kurrinka.

Udagoi.azken-arnasak
arduraz jarri nabe:
izango ote-naz neguan
Maitederraren jabe?

Zagoz isil, oiñaze-ezpai
Ez dagidan bildurrik:
iñoiz ez da galdu neguz
urrezko maitasunik!

EURIA ETEN BAGA

Euria eten baga
nire biotzean;
Euria mara-mara
zure ta nirean.

Euriaren gozoa
gure barrenean!
Ez dau miñik egiten
uda-arrats beeretan.

Zer bear dau besterik
maitasun goriak?
Busti arren odeiok,
gure biotz biak!

OGEITALAU URTEZ

Ogeitalau urtez
il zan araneko
atsegiña; aren ondoren
galdu zan udako
neska-miña.

Eun lore-sorta
ta orbelak -maitez
illobian; ego-aizea,
illeta-eresiz
areiztian.

Zortzi egunez
ekin eutsen andrak
otoitzari,
ta zortzi gauetz
odeiak -samurki
negarrari.

Eta urrilgo gau
zoragarri baten
illargitan
-adi, biotzak!-
soiñu au entzun zan
urrutian:

“ Egin bizitzan,
gazteok, maitasun
illezkorak;
landu zuekan
adiskidetasun
betikorak!”

OROIPENETAN

Oroipenetan murgildurik
amaitu dot gaurko lana.
Bion inguruan, lo-antzez,
illuntzeko bake dana.

Gaztaroari egun bat zor,
ta ule zuri bat geiago.
Betiko maitasun-gosea
nire baitan bareago.

Gau-ezkillak otsak torrean
otoitzerako deituaz;
ta barriro isilla, bakea,
bakarraldia zainduaz.

Gogo zuregandik aske:
ez dau sugarririk bearrik;
atseden dagidan gaur beintzat
enegan bakar-bakarrik.

Ta nire bake-bitartean,
zakidaz ames-zaintzaille;
biar izan nakizun, Maite,
oroipenen kontatzaille!

ARRATS - BEERAN

Arrats-beerako ordu oztiñok,
ez egin, arren, negarrik:
gaur galtzen dozuen bizitza,
biar barriro bizirik.

Egazti egun-pozkilleok
gorde biarko soiñuak:
goian darraitse eresiarri,
guztion ordez, izarrak.

Milla kolorezko larrosak
zuriz dozuez jantziak:
eguneko edergarria
ostu dautsue illargiak.

Ta bitartean, Erregiña,
ez zaitut aldamenean.
Zoaze billa, gau-gerizok,
Illunaren ixilletan!

ISIL - ISILIK

Isil-isilik dago
gau zoragarria,
zeruko jabe dala
illargi garbia

Aren argi zuriaz
aitzak edur dira;
ibarreko laiñoa
igo da mendira.

Goiz eta illuntze oro
nabil zure billa;
zeure arduraz il da
aurtengo urrilla.

Gabez, barriz, maitea,
ez zoaz iñora:
neu bainozu atean
zure artzaiñora.

Sar bedi nire leia
zure biotzean:
alkar maite daigula
betiko bakean!

AIZKORA-OTSAZ

Aizkora-otsak dira
baso-ekutuan:
izakiren bat dar-dar
alaka estutan?

Erasten diardue
mendiko pagoak,
gizaldietan zutik
egozan enborrak.

Areitzak eta urkiak
or doaz lurrera,
ta eurakin daroe
geriza ozpera.

Penaz dakusku gure
zugatzen iltzea!
Ez da izan bardin gure
maitasun-galtzea?

IL NAITENEAN

Il naitenean,
ez busti zapirik
alperrik;
ez jarri, arren,
ilkutxa-gaiñean
lorerik

Ez erakutsi
guztien aurrean
penarik:
gorde betiko
gure maitasuna
bakarrik.

Agertu Urtzi'ri
zure biotzeko
samiña,
Goian dagigun
lur ontako bete
eziña.

Lotu eskuan
nirekin Gurutze
Gurena;
ta jaso gorantz
bizitzako otoitzik
onena!

BIDE BIAK

Burua makurtuta nago
nire joanaldi luzean;
barrua makalduta daukat
egun oroko lanean.

Orduak ez dira gelditzen;
arin joan jataz urteak;
ez dakit zelan izan diran
bizitzako ustebageak.

Egun argi ta laiñotsuak,
biak banandu-eziñak;
bata besterarentzat dira
betiko lagun egiñak.

Bide estuak eta zabalak
egitada guztientzat;
baiña, zabalak izanarren,
geienak estu niretzat.

Emon daiodazan eskerrak
Goiko gure Jaun onari;
eta jarraitu dagiodan
Salbamen-bide estuari

ORREAGA

Goizeko eguzkia
–amapola dan gorria!–
goizeko eguzkia
begien argi bizia.

Gure mendi-gaiñetan
–areiztiaren mardula!–
gorputzari borborka
dario eusko-odola

Goizeko eguzkia
arratseko odol gorria;
mendien gaillurretan
gudari-biotz gorria.

Gautxori moko makur,
illunen bakarzalea:
eroan egiozu
bitxitzat amapolea.

Goizeko eguzkia
guztion argi bizia;
euskaldunen odola
askatasun-soin jantzia!

EURI - TANTAK

Uda au negu lez yat
urte-biotzean;
udazkena datorkit
ia ez-ustean.

Urteen udazkena,
aldi-igarotea:
zabaldtu egin bear
barruko atea!

Euri-tantak leioan
gabeko soiñutzat;
eurak datoz ondoen
barruko laguntzat

Ba-datoz ta ba-doz
bizitza-irudia;
bardintsu izaten da
kanpai-durundia.

Ikarea sartu yat
biotz-barrenean;
taupadaka narabil
iruntsi naiean

Baiña nire utsean,
ez nago bakarrik;
Jauna neugaz izanik,
zeri nik bildurrik?

Atsedean ene biotz;
jarraitu bakean.
Jauna bego nirekin
Arnasa betean!

IZADIAREN ERDIAN

Ziri ziri aizea
pagadian.
zuri-zuri lainoa
ibarrean.

Iruntzaren izpiak
orrietan.
Ardien arran-otsa
Zelaietan.

Anboto'ko gaillurra
urrunean,
txakurraren ausiak
atarrean.

Latseko ur-negarra
urr-urrean,
eguzkiaren munak
tantaietan.

Kukuaren leen-deiak
areitzean...
Izadia kantatzan
Isillean.

Bizia somatzen dot
inguruan,
bakearen arnasa
gorputzean.

Zure Espiritua,
bitartean,
sar dakidala, Jauna,
biotzean!

IL BAINA BIZI

Aizeak odei baltzizkak
daroaz goietan;
jausi ta jausi euria
areitz-orrietan.

Gaur be geldiro illundu da
gure baratzean;
egunak negar egin dau
agur egitean.

Illunetan geratzean
nire inguruan,
abotsak auxe ziraustan
nire barrenean:

“Ilteko jaiotzen gara,
gau-egun antzera;
baiña biziteko ilten
bizitza betera”.

Onaiño, jarri dodazan Kerexeta olerkariaren eredu batzuk. Izan be, ederretsi aal izango dozue olerkaritzarako dauan erraztasun eta goi-arnasa edo idarokia. Lan onekin argitara emon gura izan dot joan yakun olerkari andi baten gomutea, eta ainbat eta ainbat olerkari lez, gaur aztuta dagoana. Eta barrero be esango dautsuet, Jaime Kerexeta izadiko edertasunaren abeslari bikaiña izan dala, eta oroz gain udagoi edo udazkenaren zoramena abesten dakiana, ego-aize sorgin-garriak gure aberriko bazterrak urreeragintzaz amesen barrutira eroaten gaituanean...

ZUBIRI'tar IÑAKI

EUSKEREARI BURUZ AGIRI NAGUSIA

(Latxaga adiskideari aurretiaz)

Azil onen 17n. egunean, Bilbao'ko Euskerazaleen etxean egindako EUSKE-RAZAINZAren batzarrean, Latxaga adiskideak Agiri Nagusi edo "manifesto" bat irakurri euskun. Agiri garrantzitsua! Eta geure eritxiak berbaz naiz idatziz agertze-ko eskaria egin euskun. Ona emen nire agerpena.

IZKELKIAK ALA IZKUNTZAK?

Latxaga lankideak agiri orretan egiten dauan itauna au da: Bizkaierea (dot), Gipuzkerea (det) ta Ipar-Naparrerea (dut), izkelkiak edo dialektoak dira ala izkuntzak edo idiomak? Erantzunak garrantzi aundia dauka, beste arlo askotan be bai, baiña batez be "batua"ren bidean.

Eskari bat Latxaga'ri: Itaun ori egin aurretik argitu begi ondo izkelkia edo dialektoa zer dan eta bardin izkuntza edo idioma zer dan. Eta ori argitzeko nik adibide oneik jarriko neukez: Katalanera eta galiziera izkelkiak ala izkuntzak dira? Eta ona emen nire erantzuna: Biak dira latera edo latiniaren izkelkiak, dialektoak, baiña alkarren eta gazteleraren parean izkuntzak dira, ez izkelkiak edo dialektoak. Eta au onartzen ba'da, esan zelan betetzen dan lurraldeetako euskerearen ezbar-ditasunean. Atzera baiño begiratzen ez ba'da, katalanerak eta galzierak antz geiago dauke gazteleragaz, gipuzkoerak eta bizkaierak alkarregaz baiño...

1970n. urtean eta neure maixu-lan txikia aurkezteko bost izkuntzalari ospetsu- ren aurrean ikusi neban neure burua Deustun eta an esan eusten gaur argi dagoala izkuntzaren eta euskalkiaren arteko aldea. Nik ez dot ain argi ikusten eta eskertuko neuskio Latxagari agitze ori.

Ori argi dagoanean, errez esan al izango da euskalkiak esaten dautsaguenak izkuntzak ala izkelkiak diran, edo beste era batera esateko, euskera bat eta euskalkiak daukaguzan ala iru edo lau euskera diran.

ONDORENA

Erantzuna au ba'litz: Euskerea lau izkuntza dira. A! Orduan kontuz! Izkuntzak ez dira batzen. Izelkiak edo dialektoak ba'dira, ostera, bai egingarria da batua. Ori litzake Greziako koine'ren bidea, baiña ez aitzu! Koine sortu zanean amaitu ziran Greziako idazkirik ederrenak!

ATXEAREN ARAZOA

Gura Latxagak, olako agiri nagusi baten bearrezkoa dan lez, atxearen arazoa be aztertzen dau eta errazoiz diño, euskera batuan askoz atxe geiago dagoala

frantzeran, gazteleran eta beste izkuntza askotan baiño. Eta ori ez dot uste iñok ukatuko dauanik. Baiña emen be eskaritxu bat egingo dausat Latxagari: Aztertu egizu italieraren arazoa zeatz. Eredugarria da!

Ona emen Alfredo Potroccione'ren "Novisima Gramatika Italiana"tik euskertuta araua:

"H izkiak ez dau ots berezirik. Italieraz ez dagoz lau itz baiño asierako h dabe-kak: ho = dot, hai = dozu, ha = dau, hanno dabe, laurak "avere"ren adizjokoak. Eta orreik atxeagaz idazten ba dira onexegaitik da: Beste itz batzutatik bereizteko: o = edo, ai = a los, a = itz-aurea edo preposiziñoa, eta anno = urtea.

Eta itzaren erdian edo azkenean arri-ikur batzutan eta, esan dogun lez, ezta-rriko aboskiak sendotzeko (C eta G), e-i ren aurrean (ahime = ¡ay de mi!, ¡ahi = ay! ¡oh = oh! ¡ahi = huy! eta abar." (chiesa = kiesa - ez txiesa).

Eta gaztelerazko idazleak be, arazo au aztertzen dabenak, laster esaten dabe atxea kendu bear litzakela, esaterako Garcia Marquez'ek. Baiña ori ezin dabe lortu, zori txarrez.

Euskereak onetan zori txarra izan dau. Atxeak kenduta geunkazan (Iparraldea erabilteko aske zala) baiña 1968n. urtean Arantzazun egindako batzar zaratsuan ainbeste atxe sartu euskuezan!!!

Egia esan, atxea kentzea errez-erreza da. Naikoa da Euskaltzaindiaren arau barri bat, Jaurlearitzak onartzekoa, auxe esanez: Gaurtik aurrera Euskereari atxe guztiak kentzen jakoz! (Txaloak).

EUSKALKI BAT GALDU?

Latxagari beste eskari bat: Aztertu egizu euskalki bat galtzearen arazoa.

Len aitatu dodan bost izkuntzalariren aurreko azterketan auxe esan eusten (eurak ez ziran euskaldunak):

Entzun dogu euskera batua egiteko ustean zabilzela. Ez egizue egin! Zuen izkuntzak aberastasunik aundienak galduko leukez!

1968n.urte-inguruan, orduan euskaltzainburu zan Manuel Lekuonak au esan eban eta "Euskera" aldizkarian dago idatzita: "Euskerea bizirik aterateko bizkaie-rea galdu bear ba da, galdu beite. Oba da beso-bakar bizi, beso biakaz il baiño".

Bai, bai! Berba orreik, gitxi gorabera, gure Manuel Lekuona'renak dira! Sinistu eziñeko gauzea da ori. Berak be ille batzuk geroago ori ez eban esango! Baiña guztiakaz bakea nai eban! Alperrik!!!

Euskaldunak alkar ulertzeko ez da bear baturik. Naikoa da bizkaitarrok gipuzkoera ikastea eta gipuzkoarrak bizkaie-rea ikastea. Norberarena ondo jakin ezke-ro, errez-errez ulertzen da besteena, ez da bear baturik. Idatzi? Bakoitxak berean naiz dakian beste euskeran. Ikastoletan biak bardin erabili. Orrelan, urteen joan-ean, bear ba da, batua etorriko litzake.

Ni onetan Menendez Pidal'en eritxikoa naz. Ara zer diñon 1927n. urtean, uste dot, Gernikan emon eban itzaldian, gitxi gorabera: "Batua berez etorriko, landa-rea berez azten dan lez. Alperreko lana da orrietatik tiraka ibiltea. Ez da orrelan lenago etorriko. Naikoa da sustraien gaiñera satsa bota eta ureztatzea edo zuzen igon dagian burdin-ari bat ipintea. Berez etorriko da" (eta nik gaiñeratuko neuke "bear ba'da").

ELEIZEA ETA BATUA

Latxagak agiri nagusi orretan naikoa gogor aztertzen dau Eleizearen jokabidea: Mezan erriko euskerea darabil, baiña ez katekesian eta...

Eleiz-gizon izan arren ez daukat minpekorik Eleizearen jokabidea aztertzeko, baiña ara: Katekesira doazen umeak euskaldunak eta etxean erri-euskerea darabilenak izan arren, idazkietan beti ikusi dabe batua eta atxeakaz, eta beste era batera ikusten dabenean laster esaten dabe: “Ori ez da orrelan idazten! Ori txar-to dago!” Eurak ikastolan onartu eta asko erabilli dabe batua eta katekesian orretara makurtu bear izan da Eleizea. Gaiñera, zori txarrez, Eleizea beti jarten da aurrean agertzen diran legeen alde, eta emen euskaltzaindiaren arauen alde. Ni gotzaindegiko itzultzaile lanetik atera ninduen atxerik erabilli nai ez nebalako.

Eta ori ziurtatzeko adibide bat: Aldi baten liburuskak apaintzeko eskuz egiten dan izki idatziak be sartzen asi ziran Eleizan, baiña ikasleak ez eben ikasten esku-izki ori irakurtean (ori be eskolako utsa), eta liburusketatik esku-izki orreik kendu egin bear izan ziran.

Azkenez, eleizan, izan diran jokabide okerrak izanda, asko lagundu jako euskereari. Barandiaran'ek esana da Eleizea ikastola dala. Gaur be egia da baiña aldi baten geiago.

Betor eta zabaldu beite Latxagaren agiri nagusi edo “MANIFIESTO” ori. Zain gagoz.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

DEBATIK

GIPUZKO ETA FRANTZI ARTEKO ITXAS-BURRUKAK (1552-1555)

(350 Bela-ontzi presta zituzten giputxek burrukarako)

Karlos I'aren aginduz

Karlos I, Espaiña eta Alemania'ko Enperadorea, Juana *La Loca*'ren semea zan; Fernando II eta Isabel *Katolikoak* ziran amaren gurasoak. Aita, berriz, Felipe *Ederra* zanez, Alemania'ko Enperadorearen biloba zan. Alde orretatik etorri zitzaion Alemania'ko enperadore izatea Karlos V izenarekin.

Flandes'en aurtzarotik azia, amaren ezbearra tarteko zala, andik etorri zan Espaiña'ra erregetza jasotzeko eta andik ekarri zitun bere lagun minak emengo kargu nagusietarako. Gertaera orrek arrankura sortu zuen Kastilla aldean eta ortik sortu zan *Los Comuneros*'tarren iraultza. Villalar'en menperatu zituzten eta bertan erail Bravo, Padilla eta Maldonado iraultza-buruak. Gertakari onek izan zuan zer-ikusia Iruña askatzeko erabili zuten burruka-aldi artan.

Alba'ko Dukeak, Lerin'goa eta Beaumontarrek lagun, Naparroa menperatu zuen Kastilla'rako eta Napar Erregeek alde egin bear izan zuten Benabarre'ra, "Sexta Merindad de Ultrapuertos" zeritzanera. Baña, 1.521 garren urtean Foix'ekoekin batera Naparroa'ren rekonkista asi zuten mugatik beera. Errege naparren aurka Iruña defenditzen Loiola'ko Inigo degu buru, kañoi-bala batek ezkerreko berna ausi zion arte. Ordu artan amaitu ziran Iruña'ko defentsa-lan guztiak. Auxe da gauza arrigarria: Iñigo'ren lepa-zamarra urkatu bearrean, eskuetan emeki artu eta bere Loiola'ko etxera eraman zuten; bañan, berberak zionez, ez zuten naparrek eraman, Foix'eko frantsezak baizik.

Iruña Errege naparren eskuetan erortzean, Foix'ekoek aurrera joatea erabaki zuten, erria zaintzen gelditu barik; *Comuneros*'en iraultza aprobetxatu nai izan zuten Kastilla menperatzeko. Ez alperrik: bitarte orretan Kastilla'ko indarrek Noin'en bertan burruka zituzten Foix'eko gudarosteak eta Napar erregeek sekulako bueltatu ziran Benabarre'ko ingumarietara.. Andik aurrera an bizitu izan ziran eta Frantzia'ko erregeen senitarteko ere gertatu ziran. Azkenik ango Errege izendatu ere bai. Orixe gertatu zitzaion Enrike IV'garrenari. Juana erregiñaren semea zan. Onek Espaiña'ko Felipe errege Bigarrenari, Goiko Naparroa eskatu zion, berea zalako eta aren aitaitak lapurtu. Arenganako gorrotoagaitik-edo, Erregiña protestante biurtu zan eta protestante bezela azi zuen bere semea Enrike IV. Paris'eko errege aukeratu zuenean Enrike napar protestantea, eskatu zioten lendik protestanteai utzi eta katoliko egin bear zuela. Onek esana da itzaldi famoso au: *Paris bien vale una misa*.

Andik aurrera erregeek izen au eramaten zuten: *Naparro eta Frantzia'ko Errege*. Luzaro Iraun zuan oitura orrek Frantzia'ko iraultza nagusi aurreko Konbenzio-

ra arte; Onetxek erabaki zuen “Naparro” izena kentzeko eta aurrerantz *Frantzia-ko Errege* naikoa zala.

FROIX'EKO KONDESA

Isabel *Katolikea* iltzean, bere senar Fernando'k berriro ezkontzea erabaki zuen eta Foix'etik ekarri zuen emazte berria. Angoa zan Labrit edo Albrite'ren emazte Katalina Foix'ekoa eta orretxegaitik etorri ziran foixtarrek, Errege naparrekin batera, Naparroa errekonkistatzera. Andik etorri zan Froix'eko Kondesa Kastillako kortera Fernando Erregearen bigarren emazteki bezela: *pinguis et bene pota*, orduko kronistek ziotenez: *koipetsua eta ondo edana*, alegia.

Arevalo Gazteluko etxeakoandreak, Iñigo-amaren lengusiñak, Loiola'ko Beltran'eri seme bat eskatu zion zaldun baten antzera ezitzeko. Eta bere seme txikiena, Iñigo, bialdu zion. Amabost urte zeuzkan Iñigo'k Arevalo'ko gazteluan agertu zanean, Gazteluko Jaunak eramaten zituen Fernando eta Isabel'en erreinuko diru-kontuak. Kastilla'ko Korteza Valladolid'en zegoen, Arevalo'tik gertu eta Iñigo'k arako bideak irikita zeuzkan.

Erregiña berriak Arevalo'ko etxeakoandrea aukeratu zuen bere lagun maite eta, orra nundik- nora, Kortarako bidea zabalago gertatu Iñigo'rentzat. Ezagutu zitun, eta ezagutu zuten ondo, Foix'etik Kortera etorri ziran erregiñaren lagunak. Gertaera onek bere ondorenak ekarriko zitun Iñigo, Iruña'ko artan, elbarritu zutenean. Zaurituta erori zanean, bertan urkatu bearrean, bera izan bait zan gogorren jakatu zuena Napar erregeen aurka, kontu aundienakin jaso eta bere Loiola'ko etxera eramango zuten. Baña, Iñigo berak esaten du, ez zirala naparrak izan eramango zutenak, frantsezak, baizik. Nundik nora? Begi-bistan dago ezaguna zutela eta, Valladolid'eko Kortetik ez ba'da, nundik? Bestela, berezkoa zan, Iruña'ko ormetatik zintzilik urkatuta gelditzea.

ONDARRABI-PASAI-DONOSTI NAPARREN ESKUETAN

Napar eta foixekoak mugatik beste aldera bota zituztenean, orduan Ondarrabi'ri eraso zioten eta menpean artu ere bai. Ondarrabi eta bere inguru naparren eskuetan erori zanean, erlauntza zirudien España eta bere Inperioa: urduritasuna guztien nagusi eta Erregearen Korte osoa Gazteiz'era gerturatu zan. Alemania'tik ekarritako Utrech'eko Kardenala, Imperioaren zuzendari orokorra ere emen zan. Gazteiz'en zegoela etorri zitzaion Erroma'tik mezu au: Elizaren Aita Santu izendatu zutela, alegia. Adriano VI artu zuen izen.

Araba'tik Zaragoza'rako bidean Barzelona'raiño izugarrizko ostea jarri zan martxan Aita Santu barriari Erroma'ra laguntzeko asmotan. Iñigo Loiola'n dago zauri nekagarri aiek sendatzen. Nekez sendatu ere; baiña, aizkenerako, sendatu da. Bitarte orretan Gipuzkoa guztian gudariak biltzen ari da Martin,

Loiola'ko maiorazgoa. Zai-zai dago noiz Iñigo sendatu gudari guztien buru bera ipintzeko.. Baña, bai zera: Iñigo'k zutik egoteko aiña dan une berean, zaldia eta bere bi eskudero azkoitiarrak artu eta or zijoak Najera'ra.: Naparroa'ko Erregeordezkoarekin egon bearra du. Aitzaki bat besterik ez da. Egoera onek Martin bere onetik atera du eta zin dago, ez dala geiago sekulan bere etxean Iñigorik sartuko.

Najera 'n txanpon batzuek jaso eta bi azkoitiarrekin mezu au bialdu dio anaia-ri: *Banoa apaltasunean eta penitentzian*. Orixe izan zan lñigo'ren betirako agurra. lñigo'ren aurrerako arrasto guztiak galduko dira bere Loiola'ko etxean. Ez zan geiago aren ateetatik sartuko.

Errioxa'tik Monserrat'eko bideak artzen ditu; baña, Aita Santuaren laguntzailerik ez du ikusi nai, ifundik ere, ezagunak bait zitun mordo bat Valladolid'eko Kortetik. Ez zuen alkarrekin topo egin nai, ezagutu ez zezaten.; oraindik ere zaldunen jantzi eta tankerakin zijoan bidean. Monserrat'en utzi zituen betirako.

FRANTZIA ETA ESPAIÑIAKO GUDA

Ondarrabia'ko arazoa Espaiñia eta Frantzia'ren arteko azalpen bat besterik ez da. Galdu zan bein eta kostatu zan berriro irabaztea. Karlos I eta Franzisko l'en (eta bere seme Enrike II) arteko gerra ez zan sekulan amaitzen. Garairik gogorrenak 1519'tik 26'rakoak izan ziran.... Pakea eta burruka, biak naasten zituzten bata bestearen ondoren. Gaur idazti onetan ari degun gerra-garaiak 1550-1555 bitartekoak dira.. Une orretan ematen dio Karlos'ek Gipuzkoa'ri itxas-gerran sartzeko baimena eta eskubidea. Laguntzarik ez dio emango; baimena, bai *guerra guerrea* orretan parte artzeko; baiña, bere buruaren kontura. Frantzia'ren kaltean. Zergaitik ematen dion Gipuzkoari *korsorako* baimena? Frantziaren auzo diralako eta mugak alkartuta dituztelako.

Urte luze oietan *gerra-gerrera* zeritzan burruka orretan, Gipuzkoak milla giza-seme galdu zitun eta Karlos'en kortean giputx bazter onetako arazoak aaztuta zeuzkaten. Izan zirenik ere ez.

Egoera onek suspertzen ditu Gipuzkoa'ko Batzar Nagusiak eta Segura'ko billeran (1554 maiatza) erabaki au artzen dute: bear diran galderak egin guda berezi onen zeaztasun guztiak ondo argitzeko eta galderak burruka orretan ibillitako giza-semei egiteko. Urrengo Azpeitia'ko billeretan (1555 maiatza) agindu au emango dute: berriak billatzeko "*de todas las naos que en esta guerra se han tomado*". Berriak biltzeko Korrejidorea aukeratu zuten Miguel de Idiacaiz eskribanoa lagun zuela. Galderak egiteko baimena Amador López de Zubizarreta, Azpeitia'ko lizenziaduari ematen zitzaion Eta testiguak aukeratzeko baimena, beriz, Bartolome de Loyola, Azpeitia'ko Alkateari. Berau, Korrejidorea eta Idiacaiz, irurak joango ziran erririk-erri testigutzak jasotzeko.

Lanak 18 egun iraun zuen eta lanaren deskargua Zarautz'eko Batzar Nagusian (1555 azaroan) eman zuten. Gertakera auek ondoren datozten datuei ofialtasuna ematen diete.

Arazo oso au liburu berri batetik atara degu. Ona idaztia: *CORSARIOS GUIPUSCOANOS EN TERRANOVA 1552-1555*. Egillea: José Ig. Tellechea. Donostia'n 1999. KUTXA fundazioa. Agiri au "Vargas Ponte Fondo" an arkitzen da Madril'eko Museo Naval'eanean. Eta kopia bat da. Berezko agiria Tolosa'n dago: "Archivo Provincial de Guipúzcoa" "Bajo la signatura J D; M/12/11".

BERRI-EMAILLEAK

Galderak guztientzako berdiñak ziran eta Gipuzkoa osoan 14 testigu eta leku-ko aukeratu zituzten: 6 donostiarrak; 1 oriotarra; 4 Pasai-Ondarrabikoak eta 3 debarrak.

1. Martín Cardel, Capitán Armador de San Sebastián.
2. Domingo de Albistur, Capitán Armador de San Sebastián.
3. Francisco de Illarreta, Capitán Armador de San Sebastián.
4. Pablo de Aramburu, Capitán Armador de San Sebastián.
5. Martín Pérez de Hoa, Piloto, vecino de San Sebastián.
6. Juan del Puerto, Piloto Mayor, vecino de Orio.
7. Juan de Erauso, Capitán Armador de San Sebastián.
8. Martín Sanz de Echave, Capitán Armador vecino del Pasaje de Fuenterrabía.
9. Domingo de Mendaro, Capitán Armador, vecino del Pasaje de Fuenterrabía.
10. Miguel de Iturain, Capitán Armador vecino del Pasaje de Fuenterrabía
11. Capitán, Joanot de Villaviciosa, idem.
12. Domingo de Gorocica, Alcalde de Deva y Capitán Armador.
13. Miguel de Zaldívar, vecino de Deva.
14. Martín Ochoa de Irarrazabal, Capitán Armador, vecino de Deva.

GALDERAK:

Lenengoa: Zenbat ziran armadora Gipuzkoarrak?

Danen artean 350 bela-barku prestatu zituzten armadora gipuzkoarrek: Donosti, Pasai- ondarrabi, Deba, Orio, Zumaya, Mutriku, Getaria, Irun, Urantz eta Oiartzun'goak izan ziran.. Eta eurok parte artu burruka onetan.

Bigarren galdera: Zer gerra-ekintza eraman dituzte aurrera?

Danen artean, kapitana-armadore auek irureundik gora (350) bela-barku armatu dituzte burrukarako *“con todas las municiones necesarias para la guerra: lombardas, mosquetes, vesos, arcabuces, ballestas, gurguces, echafuegos, lanzas, dardos y otros géneros de armas ofensivas...”* Lombardak kañoi aundi- gizenak ziran eta vesos, berriz, txikiak eta meeak, mosquetes eta arcabuces su-iskilluak dira Mosketek eutsigarri bat bear du tiroa egiteko.

Garai eta giro artako bela-barku baten berri zeatzak badauzkagu: garaia 1564; bela-barkua San Nicolás 475 toneladakoa. Bere kapitana Joan de Espilla debarra eta armadorea Landaverde bilbotarra. Galeoia zan, iru mastakoa eta belak, berriz, laukiak, 18 kañoi aldamenetan, bederatzi alde bakoitzeko, arkabuzak, ballestak eta eun baño galtzairuzko arma- zuri geiago... Eta, ez zan gerra-barkua, bale-arrantzarakoa, baizik.

Gipuzkoarrek ondo armaturik ekin zioten burrukari beuren ikurriñak eta Erregearen insiniak aurretik zituztela: *“Habían navegado por todas las costas, puertos, abras y canales de Francia hasta Noruega.. Y por otros mares”*. Gertaera auek egiztatzean testigu guztiak datoz batera. Domingo de Gorocica, Deba'ko kapitana-armadoreak, orretzaz gaiñera au ere esaten dau: Terranova'raiño eldu zirala etsaien ondoren *“en distancia de mil leguas”*. Eta, ondoren: *“Iban las tropas llevando sus banderas y estandartes y tambores y pifanos y otros menesteriles en gran orden”*.

Martín de Zaldívar, Deba'ko lekukoak, bertako kapitaneekin ibilliak; aitortzen dau, badirala lau edo bost egun Deba 'ko portutik irten zutela *“siete y ocho naos*

galeones y zafras de armada muy bien apercibidas y en orden” frantzesen bila joateko.

LURRERATZE ETA ERASOAK FRANTZIAN

Testigu guztiak diote berdin arazo onetan: Frantzian lurreratu eta eraso-mota guztietakoak egin zituztela *“tomando tierra en Francia y la corrieron con sus escuadrones, saqueando lugares, casas fuertes y llanas y trayendo los despojos a Guipúzcoa.. dando y recibiendo muchas heridas y muertes... apresando muchas naos y trayéndolas a Guipúzcoa.”* Uretatik sartzen ziran aurrera sei edo zazpi legua eta lurrera salto egin lapurretan ekintzeko... Oietako testigu batek dienez, bein Bretanian gaztelu bat artu zuten aren jabe, emazte eta semeekin batera. Lapurretak egin ondoren, aske utzi zituzten.; baña, beste gaztelu batean askatasunaren ordeztu 700 dukat eskatu zieten..

Gorocica, Deba'ko Alkateak, eta bere erritar Zaldivia eta Irarrazabal'ek agertzen dutenez, egun batean, bi kapitan debarrek batera (Gorocica eta Irarrazabal), beuren ikurriñak aurretik dituztela, 250 eta 300'neko bi taldeekin eraso jo zuten erri eta baserriak errez; bei, idi eta ariak artuz beuren jendearen mantenurako eta bertako ainitz gauza arrapatuta Gupuzkoa'ra ekarri eta beuren jendearen artean banatu zituzten.

Zaldivia itxas-gizona beste debar kapitan-armadoreekin ere ibillia zan, eta Marennes ibaiean galeaza bat arrapatu zuten bere jende guztiekin eta baste ontzi bat gatzetz beteta. Beste bein San Juan Ansorregi kapitatan eta Kristobal Arias'ekin batera Burdeos'ko ibaien sartu, errixka batzuek erre, eta gari guztiak jaso etxerako. Beste ibillaldi batean, Garcia de Iziar'ekin, gaztelu baten alkatea, bere emazte eta semeak preso artu eta bere askatusanaren truke 700 dukat eskatu., Fornya'ko kolkotan.. Beste bein, berriz, Ansorregi debarrarekin eta beste zazpi eta zortzi zabrakin Caperon ugartera eldu ziran; lapurreta biziak egin ondoren, barkuetara bueltatu ziran... Zaldivia ez zan kapitana; baña, gutxienez iru kapitan debar aitatzten ditu amen: Garcia de Iziar, Arias eta Ansorregi.

Gertaera auetan beti egon zan Irarrazabal debarra eta berberak arro zionez, irurogeita amabi barku, generoz beteta, arrapatu zitun beste debar kapitanak lagun zituela.. Beraz, debarren garrantzia ez gan izan makala.

Eta lekuko guztiak diote ekintza auetan milla gipuzkoar baño geigo il zirela

TERRANOBA BIDEAN

Burruka au Terranoba'raiño luzatu zan. Irureun toneladatik gorako barkuak armatu zituzten eta ontzi oiekin egin zituzten Terranoba aldeko ekintzak eta bertan *“han muerto más de 500 hombres y les han quitado más doscientos de naves gruesas cargadas de bacallaos de muy gran precio y valor y aun en este año (1555) los vecinos de la villa de San Sebastián y Pasajes han tomado y traído quarenta y dos naos gruesas cargadas de bacallaos”*.

GERTAERA GEIAGO

Pérez de Hoa pillotuak dio 1555ean Erauso kapitan-armadore dostiarrak 400 toneladako barku bat armatu zuela, 300 gizonezko taldea barruan zeramala.

Terranoba'n zegoela beste bi kapitaneekin alkartu zan: Joannes de Lizarza eta Martin Iturain, eta iruroen artean amabi barku aundi, bakallauz betetakoak arrapatu zituzten, naiz-eta amabiak alkarri lotuta egon defentsarako... Eta iruen artean banatu zituzten.

Ondoren Erausok (Hoa barruan zala) ipar-aldera jo zuen eta beste ontzi frantzez batzuek topatu zitun. Auek ere alkarri lotuta eta euren kañoi lodiak itxaser-tzean ipiñiak barkuen defentsarako. Baña, Erausok jendea lurreratu eta kañoiak arrapatu eta ondoren barkuak ere bai.: *“En su viaje de ida y vuelta se apoderó de 18 naos francesas y de doscientas piezas de artillería de bronce y fierro”*.

Ontzi batzuek, kañoirik gabe, utziko dizkie frantzesai etxera euren buruak itzultzeko.

Hoa berak esango digu nola Erauso beste kapitan lagun batzuekin (Aranburu, Albistur, Iturain, Illarreta, Joannes de Lizarza) 1555'garren urtean *“capturaron 42 naos francesas, unas armadas y otras llenas de bacallaos con un valor global de 100.000 ducados, y las trajo a San Sebastián-”*

MILA ONTZI BAIÑO GEIAGO

Bederatzigarren galderari erantzunez testigu guztiek baieztatzen dute gerrako urte auetan milla barkutik gora arrapatu dituztela merkatari naiz armatu *“más de mil naos... De ellos 400 se consideran mayores de 200 toneles; por lo tanto la mayoría son de 100 toneles más o menos.”* Barkuekin batera, artilleria. Testiguen diote 5.000'tik gora zirela arrapatutako kañoiak: *“5.000 mil tiros de artillería, grandes, medianos y comunes siendo los menores los vesos y esmeriles.”*

“Los franceses apresados se estiman en doce o quince mil, Algunos volvieron en los barcos apresados y luego cedidos; otros echados en sus costas; otros traídos a Guipúzcoa y pasados a Francia en contingentes de 200 a 500.”

“Todo esto se da por sabido y notorio” Gipuzkoa osoan eta orrela egiztatzeko dute aukeratutako 14 testiguen. Oien truke milla gipuzkoarrek galdu zuten euren bizia. Amalau lekuko oietatik bik (Zaldivia eta Iturrino'k) ez dakitela firmatzen, adierazten dute.

Itxas-gerra onek, garrantzi aundia izango zuen Gipuzkoa'n; batez ere Donosti, Pasai eta Deba'n bai ildako eta bai ekonomi aldetik; ildakoak ezik aberastasunak aundiak izan bait ziran.

Gipuzkoarren ekintza arrigarri onek ez zuen iñungo arrastorik utzi ez Espainia'n eta ez Frantzia'n. Batzar Nagusiek emengo galdera auek egitean asmo orixe zeukaten: ekintza auek kalera ateratzea begi-bistan ipiñiz, Ez alperrik; ez zieten kasorik ere egin.

“Guerra-guerrera” onen (ala deitzen omen zioten orduko kazetariak) zeaztasunak onek dirá:

- 1.- 300 bela-barku baiño geiago presta zituztela, beuron dirutik, gipuzkoarrek.
- 2.- Milla gizaseme gazte galduak (frantzesak geiago).
- 3.- Milla ontzi baiño geiago arrapatuak
- 4.- Bost milla kañoi baiño geiago lortuak, brontzez eta burniz. Eta janariak neurri gabe, batez ere makallau eta bale-lumera... Eta bildurra sartu Frantzia'ri gorputzean.

DEBARREN TESTIGUTZA

Orain arte berri orokorrak eman dituguz; asi gaitezen orain Deba'ko lekukoe-kin. Lenengo ta bat, bere Alkate jaunarekin:

Domingo de Gorocica. Kapitán eta Armadore. Bere erantzunak:

Lenengoa: Beste guztiena egiztatzen du, Deba'ko kapitan-armadore eta guerra onetan parte artutakoa danez.

Bigarrena: Probintzi osokoak ikusi ditula burruka onetan parte artzen *“más de 350 velas, asi armadas de todas armas, artilleria y municiones y arcabucería.. yendo a buscar al enemigo hasta Terranova en distancia de más de mil leguas... y de quatro dias a esta parte sabe y ha visto que sólo del puerto de Deba han salido ocho galeones en zafras de armada con gran poder..”*

Irugarrena: Frantzia'ko kanal, portu eta ibaiak ikusi ditu, balta legorrera sartu ere bai... Gazteluak, erriak eta baserriak erre eta abere mota guztiak arrapatu ere bai, barruko jendearen mantenurako... Eta, orain iru urte dirala, barku aundi batekin topa zuela; barku ondo armatua, 50 kañoi eta 100 gizon *“armados con coseletes y mallas y otras armas secretas con la cual combatió todo un día... entró dentro por fuerza... y se apoderó de ella... y la trajo al dicho puerto de Deba.”* (Beti idazten du “Deba” eta ez “Deva”). Merkagai asko arrapatu ditu, Deba'ra ekarri eta bertan barruko (barkua) jendearen artean banatu.

Laugarrena: Badakiela zer kalte aundiak egin dieten gipuzkoarrek frantzesei eta Deba'ko burrukalariek *“han tomado más de seiscientos naos e galeones y otras fustas entre grandes y pequeñas, las 200 de ellas armadas y con mucha artilleria y diversas, municiones que valían más de 400.000 ducados.”*

Bostgarrena: Berberak bere ontziekin parte artu duela gerra onetan.

Seigarrena: Badakiela gipuzkoa'koek etsaiaren ondoren, Terranoba'ra eldu direla *“y les han tomado más de doscientas naos gruesas llenas de bacallaos y grasa lumera, que vallan más de 300.000 ducados...”*

Zazpigarrena: Badakiela gipuzkoarrek, Terranoba'tik etxera datoztela, sei barku frantzes aundi eta ondo armatuak irten zietela bidera; baña, burrukan gogor egin ondoren, Terranoba'n arrapatutako ontzi guztiekin eldu zirala Gipuzkoa'ra.

Zortzigarrena: Burruka onetan Gipuzkoak milla gizaseme galdu dituela; baña, Frantzia'k askoz ere geiago.

Bederatzigarrena: Gerra onetan gipuzkoarrek 5.000 kañoi baño geiago artu dieta etsaiei; oien arteko 1.500 debarrek eurok, kendu diete.

Amargarrena: Esandako guztiak egiztatzen ditu eta bere eskuz siñatzen

Domingo de Gorocica (eta aldamenetan) Baltasar de Hegurza eta Idiacaiz, idazkaria.

13. Martin de Zaldivia, Deba'n bizi dana eta testigu berbera burruka auetan izan dana. Ez da kapitana, baña gerran ibillia Deba'ko kapitan auekin: Gorocica, Juan García de Izar, Cristobal Arias, Juan de Ansorregi guztiak armadore.

Zaldivia onen testigutzaren gauza berezi batzuek bakarrik jasoko dituguz.

Bigarrena: Gipuzkoa'ko ontziak garra onetara irten dute arma guztiez jantzi-ta: *“lombardas, mosquetes, bersos, arcabuces, ballestas, garguces y echafuegos, lanzas y dardos y municiones necesarias...”* Itxas-ontziak armatzen ikusi ditu

Deba'n bizi dalako eta guztien lekuko dalako. "Echafuegos" Lazkao'n gure aur-tzaroan su-ziriak (cohetes) ziran.

Irugarrena: Gorocica'rekin dabillega Frantzia'ko kanal batetik 160 toneladako ontzia gatzez beteta arrapatu zuten eta baste sei ardoz beteta, eta danak Deba'ra ekarri.

Bederatzigarrena: Debarrek burruka onetan arrapatutako kañoiak 1400'dik 1500'rakoak dira eta Frantzia'ko barkuetan artuta eta Deba'ra ekarritako merkagaik *"valen más de un millón en oro."*

Amargarrena: Ez daki ez idazten eta ez firmatzen. Marka bat agiten du eta bere alboetan Baltasar de Hegurza eta Idiacaiz idazkariak firmatzen dute.

14.Martin Ochoa de Irarrazabal. Kapitan-armadore. Bere erantzunak galderei:

Lenengoa: Lekuko naiz Debarra naizelako eta burruka onetan neu ere ibilli naizelako.

Bigarrena: Guztien antzera erantzuten du; baña, bereiziki au dio: *"Kabo Finis-terre'tik Ingalaterra'raiño gabiltza burrukan eta neuk ere armatu ditut galeoi eta zafrak... Eta debarrek diotena esaten du: "Y de quatro dias a esta parte sabe y ha visto que sólo del puerto de dicha Villa de Deba han salido ocho galeones y zafras de armada..."*

Irugarrena: Guztien antzera erantzuten du eta gañera au: *"Y ha tomado en la presente guerra hasta setenta naos cargadas armadas, grandes y medianas, sin otras muchas naves que ha tomadode merchante, y en compañía de otros armadores de la Villa de Deba y en las cuales ha tomado muchas banderas y estandartes, tambores y pífanos y mucha artillería..."* Eta Martín Debace de Aguirre kapitán debarra lagun duela, Fornya'ko gaztelua artu ondoren, aren alkatea eta familia preso artu eta askatasunaren truke 700 dukat jaso.

Laugarrena: Badakiela burruka onetan debarren artean 600 baño ontzi geiago arrapatu dituztela *"naos, galeones y otras fustas grandes, pequeñas y medianas"*. Oietatik 200 ziran artilleria aundikoak *"y diversas municiones que vallan más de 400.000 ducados..."*

Bostgarrena: Erantzunak baste guztien antzekoak.

Seigarrena: Berdin emen ere. Baita esaten du Terranoba aldean 200 ontzi aundi arrapatu dituztela bale-koipe eta makallauz beteta eta Gipuzkoa'ra ekarri.

Zazpigarrena: Danen erantzun berdiñak.

Zorzigarrena: Berdin.

Bederatzigarrena: Burruka onetan danen artean gipuzkoarrek 1,500 baño ontzi geiago arrapatu diote Frantzia'ri eta kanoiak 5.000'tik gora.. Debarrok eurok 1.500 kanoitik gura ekarri dituzte errira *"y las mercaderlas que en dichas naos han traído es cosa cierta y notoria que valían más de un millon de oro y los dichos franceses las estiman en mucho más."*

Amargarrena: Esandako guztiak baieztatzen ditu eta bere eskuz firmatzen Baltasar de Hegurza, Martín Ochoa de Irarrazabl, Idiacaiz.

Orrela amaitzen da Batzar Nagusiek aukeratu zituzten 14 lekukoen testigutza.

Beste esku batek onoko au idatzi zuen:

"Se envia esta información signada a Antonio de Abadía con Bartolomé de Loyola con el correo que llevaré sus despachos para que allá use de ellos, comunicando con los letrados, para la orden y para los efectos que más viesan que conviene y más puedan aprovechar a Guipúzcoa Y en la introducción se le haga particular memoria y encomienda de esto, porque hay notables servicios a su Majestad en esta guerra por los naturales de esta Provincia para le pedir mercedes y hacer lo demás que dicho es".

Martín Ochoa de Irarrazabal gizon famatua izan da Deba erriko istorian; 1570ean bertako Alkate ere izan zan. Bere Torre-etxea Arzabal auzoan zegoen garai batean ibai-ertzean. “Camino Real de Vergara” urratu zuten Torrearen gainetik eta orduan galdu ziran bere arresto guztiak. Alboan baserri bat gelditzen da “Irarrazabal” izenakin. Torrearen lurrak Antzondo'tik Iztiña baserrira igotzen ziran eta andik Errota-zar'era jetxi, eta emendik Iruroin'eraño zabaldu ibai-ertzean. Antzondo errotea izan da orain arte; Errota-zar futbol-zelaia, berriz, maria-errota (itsaoaren gora-beerak mogitzen duen errota) izan da. Martin'en garaian errota oiek burni-olak ziran...

Bere soloetan zegoan Lonja-zaarra eta oraindik dirau Lonja-Berri'k. Irarrazal'en Torre, lonja-etxea zan, Deba ibai-ertzeko beste etxe batzuek bezela. Lonja oietan gordetzen ziran itsasotik zetozten merkagaiak eta itsaso bidetik kanpora joan bear zutenak.

Garrantzi aundikoak ziran Somorrostro'ko burni-meatzak. Andik etortzen zan barkuetan lonja oietara; gero, ortik, aletan (ala=ontzi zapalak ibaian gora joateko). Ala bakoitzak 15 kintal eramaten zuen eta artarako bi gizon bear ziran. Meatzak ibai inguruan zeuden burni- oietarako ziran: Lastu, Alzola, Elgoibar eta abar... Ondoren ola oietatik sortzen zan burni landua Deba'ra zetorren berrero, andik barkuetan munduan-zear bialtzeko. Lonja oietan gordetzen ziran Araba eta Kastillatik etorritako artilleak Flandes eta Ingalterra 'ra bialtzeko; eta andik etorritako eunekin ere berdin, Alderantziz: artilleak bialdu eta eunak jaso,..

Egurra ugari mendietan, olak erreka bastarretan eta ibai-ertzeak astilleroz beteak. Irarrazabal, Agirre-torre, Urasandi, Sasiola, Alos-torre, Maxpe, Iruroin eta abar lonja ziran eta nagusiek enpresario utsak. Oien eredu bat izan zan Martin Ochoa de Irarrazabal: olak bazitun, barkugintzan, itsas-merkataritzan, balearrantzian eta burrukan ere egiten zuen. Danetarako zan gai. Politika-aldetik ganboinoa eta Loiola-Oñaz'tarren etsai.

Gerrarako 8 galeoi batera, ondo armatuak irtetzeko, gauza asko bear ziran eta gizasemeak zer esanik ez. Armaturako galeoi bakoitzak 300 gizon eramaten zitun gutxi-gora-beera... 8 Galeoi batera, ia 3.000 gizon dirá. Nundik? Deba'tik bakarrik ez beintzat Deba-goia eta Deba- beeratik emendik izango ziran guztiak. Auskalo nundik etorriko jendea ote ziran ainbeste gizon! Orduko Terranoba'rako ifar-ontzietan Zubero'ko mariñelak agertzen dira. Eta, 1929'ko PYSBE-bakallaurrantzarako ontzi bateko giza-seme pillo bat Gipuzkoa'ko Goierrikoa zan: Lazkao, Ataun, Olaberri, Beasain, Zaldivi eta Etxarri-Aranaz'koak. Kapitana Eustakio Arrinda, lekeitiarra, Lazkaon bizi zana. Neronek egin nizkien gienai PYSBE'n sartzeko eskabide-agiria. Ez litzake, ba, arritzeko izango burruka onetara Probintzia osotik etortzea.

IRARRAZAL'en zertzelada batzuek PATXI ALDABALDETRERU'k 1998'ko urtarrilean izen orrekin argiratutako liburuxkatik atera ditut. Eskerrak.

Lan onen eratzaille

ANES ARRINDA.
Deba'n 2001eko azilla.

ETXE-IZENAK ETA ABIZENAK

Euskaldunen mundu ederrean arlo asko daukaguz bakoitxak aztertu barik, eta arlo arrigarriak dira.

Oraintsu sartu naz etheen eta abizenen mundua apur bat aztertzeraz eta or aurkitutako jakingarriak eta gure basetxeak non eta zelan dagozan ikusita, arrituta geratu naz.

Gaiñera or euskereak izan dauzan itz eder asko aurkitu dodaz, gaur egun galduak eta oso egokiak. Gure asabak jakituri aundia agertu ebela izenak ipinten eta abizenak artzen, argi ikusi dot.

Iru adibide ipiñiko dodaz: Andeko ta Botiola Fruizkoak eta Olagorta Gamizkoa.

• • •

Andekon izen oneik dagoz: Andeko-Aurtenetxe, Aurrekoetxea, Andekoiti, Etxetxikarra, iru Batiz (Goikoa, Bekoa ta Erdikoa) eta errota bat, Gomoa.

Aztertu daiguzan: Azterketa onek gaur galdua da “Andeko” izeneko etxe bat eskatzen dau, lenengoa, zarrena. Geroago egiña orren aurrean dagoana, Aurrekoetxe. Eta beste bat gorago egiña Andekogoiti, geroago “Etxetxikerra”. Or ikusten da ain garrantzi aundiakoa zan etxeke jaunaren seme edo alabaren bat ezkontzen zanean, aurrean edo gorago, txikia edo aundia, beste etxe bat egiten ebala. Gaiñera beste bat dago Batiz deritxona. Etxe onetako jaunak be beste bi egin bear izan ebazan, bata Batiz-bekoa eta bestea Batiz-erdikoa. Olako iru etxe izen batekoak Euskalerrri osoan daukaguz.

Eta geiago oraindiño, barren-berrenean errotea dan Gomoa. Lenengo errota utsa eta gero errota-gaiñean etxea.

• • •

Botiolan etxe oneik daukaguz: Goiri, Azkarre, Uriarte, Jauri, Lezamiz, Etxebarri, Ibarguen, Ormaetxe, Legarreta, (Errotea).

Guztiak jaun-etxea, etxebarri izan ezik, au eurretarike batek egindakoa. Ibarguen, bean dago, ibarrean, baiña Gomoatik asita, ibarraren goienean, ortik “guen” atzizkia. Eta emen be barrenean errotea: Legarreta.

• • •

Gamizko Olagortan: Etxezarre, Aurrekoetxe, Bengoetxe, Landakoetxe, Goikosoloeta ta Bizkarrane.

Lenengo etxeak Olagorta izango eban izena baiña izen au auzoarentzat izteko, Etxezarre ipiñi eutsoen izen. Eta gero jaun orrek sendia zabalduz, etxe barriak egin bear izan ebazan, Aurrekoa, Berengoa, Landakoa eta Goikosoloetakoa. Eta bear ba’da kanpotiok etorritako Bizkarra batek egin eban “Bizkarrene”. Ori agertzen dau norena dan igarteko dan azkenengo “-ne” orrek. Zaindu dagiguzan gure baserri zarrak!

Abizenak aztertzeke iru gauza artuko dodaz kontuan: Zer esan nai dauan, noz agertzen da izen ori eta non agertzen dan.

ABIZENAK

Abaitua: Sorlekua Begoñan eta Berrizen dauka eta Berriztik Txilera aldatu zan. (Bilbao 1664).

“Abi” erderazko “arandano” da eta abizen onek olako landaraz beterik dagon tokia esan nai dau.

Abalia: (Bidanik 1665) Gipuzkoako Beliarraín'en sortua da eta zurbaltza edo "carrasca" esan gura dau. Gipuzkoako erri askotara zabaldu da eta Bizkaian be bai, Lekeitiora esaterako.

• • •

Abando: (Bilbao) Gaur Bilbao dan Abandon sortua da eta Arando'ren aldakuntza dala dirudi, "aran" asko dagoan tokia. Arana erderazko "endrino" da. Ortik Patxaran edaria.

• • •

Abaroa: (Zumaia 1470) Abereak atsedenean dagozan lekua da abaroa eta Bizkaiko itxasaldean zabaldu da abizena, batez be Mundakan, Sukarrietan eta Lekeitioan. Mungian be ba-dago etxe bat "Abaroeta" izena dauana.

• • •

Abarrategi: (Arrasate 1657) Elorriotik urtena ei da eta Euskalerra osoan zabaldua. Egurra edo sugarría, abarrak, dagozen tokia da.

"Abaitua"ren antzeko jatorria be izan leiteke eta orduan, "carrasca" asko dagon tokia izan leiteke.

• • •

Abasolo: "Aba" jatorria izan ezkeru, "carrasca"k dagozan soloa izan leiteke, baiña Mitxelenak diñoanez, izan leiteke Abat-solo edo "abadearen soloa" be. Zeanurin asi eta Bizkai guztira zabaldu da, baita Txilera be.

• • •

Abauza: (Berantebilla 1584 Bizkaian, Araban eta Laburdin agertzen da. "Abau" arana bera izan leiteke eta "-tza"k ugaritasuna adierazten dau.

• • •

Aberasturi: (Aberasturi-araba 1313) Gipuzkoan eta Zuberoan dau jatorria. Mitxelenak aberats dirutsua dala diño, baiña "aberats" beste jatorri batzun antzera, "carrasca" asko dagon tokia da. Uri ez da besterik mendiaren aldapa baiño. Orduan "Karraskak dagozen aldapa".

• • •

Abio: (Azpeitia) Zabal dabil Bakion eta Mungialdean baiña Gipuzkoan eta Araban be ba-dago.

"Abi" jartorritzat artu ezkeru arandanoak dagozen tokia da baiña "agiña" deritxon zugatza be izan leiteke eta onen senideak litzakez "Agino" ta "Egino". Lena-go "Abio" barik "Abino" izango zan.

• • •

Aboitiz: (Ondarroa) Ondarroatik urtena da eta aboiak edo arandanoak dagozan tokia dirudi. "-tiz" ugaritasuna adierazteko da.

• • •

Abona: (Zamudio 1716) Zamudion dau jatorria eta "abon" artatxikia edo "mijo" da.

• • •

Aburto: Derio'tik urtena (1716) eta "abur" "Carrasca" da, "-to" ez da besterik txiki-atzizkia baiño.

• • •

Akaiturri: "Aka" sasia eta "iturri" itzak osotzen dabe. Lekeitio-aldean entzuten da. (Bilbao)

• • •

Akarregi: Zaratamon eta Lekeitioan zabaldu da eta "egi" "alderdia" izan ezkeru, sasiak dagozen tokia edo aldapea izan leiteke. Ez dirudi akerragaz zer-ikusirik dauanik. Au Mitxelenak diño.

• • •

Azillona: (Bilbao 1776) Fikan dago izen au dauan antziñako etxe bat, baiña beste toki askotara zabaldu da. Arrietakoa zan markes ospetsua.

Sasi asko dagon tokia esan nai dau.

Atxa: (Arrigorriaga 1870) Laudion dago auzotegi bat izen au dauana. Andik sartu da Aiala ibar osora. Aitza edo arrizko mendia esan nai dau. “Aizkorea” be erderaz itz orregaz adierazten da. Itz ori euskeratik erderara satua izan leiteke.

• • •

Atxabal: (Izpazter 1662) Ispasterretik zabaldua da eta itz bi alkartuak dira: “Atx” edo “aitz” eta “zabal”.

• • •

Atxalandabaso: Mungialdean entzuten da eta iru berba daukaz batuta: “atxa”, “landa” ta “baso”.

• • •

Atxurra: Antzekoa izan aurren, ez dauka zer-ikusirik solorako bear da atxurragaz. Lekeitio-aldean entzuten da abizen au eta “sasitza” esan gura dau.

• • •

Agarre: Ona emen oso zabal dabillen abizena, baiña aldakuntza batzukaz: “Agirre”, “Agerre”. Erri askotan dago olako izena dauan etxeren bat.

Adierazpena: Batzuk abereentzat barrutia dala diñoie, beste batzuk agirian dagoana.

“Agarretxu” ta “Agirretxu” be ba-dagoz. “Agarrebarri” be bai. Guztiak dira abaro-lekua.

• • •

Aginaga: (Ondarribia 1663) Gipuzkoan dago geien, baiña Bizkaian be entzuten da. “Agiña” zugatz bat da eta “Aginaga” zugatza dagon tokia.

Ortik etorria da “Aginagalde” eta aginak dagozan lekuaren ondoan esan nai dau.

• • •

Aizpuru (a): (Zumarraga 1383) Eitzaren gaiñean dagoan etxea da eta, abizen lez, Bizkaian eta Gipuzkoan entzuten da.

• • •

Alberdi: (Azkoitia 1667) Gipuzkoan dabil zabalena eta “arbela” aitz edo arri-mota bat dan ezkerre, abizen onek arbel asko dagon lekua esan gura dau.

• • •

Albizu “su”: (Lazkano 1339) Albia bedar legortua da eta abizenak bedar legortu asko dagon tokia esan nai dau.

• • •

Albizuri: (Azkoitia 1484) Gipuzkoatik zabaldu da abizen au eta bedar sikatua (albi) dagon lekua esan nai dau.

• • •

Alzibar: (Donosti 1632) Azpeitian eta Gipuzkoa’ko beste erri askotan zabaldua da eta itz bi daroaz alkartuta abizen eder onek: altza (errekondoetako zugatza) eta ibar edo bizileku ona dan laun-unea, altzak dagozen ibarra.

• • •

Aldekua: (Elorrio 1575) Bizkaian dabil zabalena baiña beste eskualde batzutan be bai.

“Alda”tik etorria izan ezkerre, aldapan dagoana litzake baiña “alde”tik etorria izan ezkerre, “albokoa” esan nai dau.

• • •

Alegria: (Tolosa 1798) Egoaldeko lau eskualdeetan ugari agiri da eta erriak be ba-daroe izen ori, jatorriz “alegia”.

“Ale” bedar mota bat da eta “egia” toki bat.

• • •

Almandoz: Naparroako Baztan’en dau bere jatorria.

“Albi” da izena eta bedar zikatua esan nai dau. Gero atzizki bi: “an” eta “doz”. Azkenengo au ez da besterik abizenen azkena baiño.

Altuna (Altonaga): (Urretxua 1624) Gipuzkoan dago geiago Bizkaian baiño eta ezkiak edo “alamoak” dagozan lekua esan gura dau.

• • •

Alzaga: (Aramayona 1606) Bai Bizkaian eta bai Gipuzkoan toki askotan daukagu abizen au.

Altza edo “aliso” dagoan tokia esan gura dau eta azkeneko -aga indarra emoteko artzen dan atzizkia baiño ez da.

• • •

Alzola: (Azpeitia 1501) Elgoibar'en dago izen au dauan auzo bat eta abizen lez zabal dago.

Altza da alde batetik eta bestetik ugaritasuna adierazten dauan -ola atzizkia. “Ola” Aurretik doanean burdiñea egiteko edo lantzeko tokia da, baiña atzetik doanean ugaritasuna: “Uriola, Egurrola”

• • •

Amezaga: (Eibar 1636) Araban dago erri bat izen au daroana eta Bizkaian etxe batzuk, bat Mungian.

Ametza zetagaz aritz-antzeko zugatza da eta esegaz lotan egiten dana edo oso atsegingarria dana: “Gure ametsa”.

Ametzaga ametza edo aritz-antzeko “kejigo” dagon lekua da. “-aga” atzizkia indartzaille.

• • •

Amutxategi: (Motriko 1750) Au be ametza'tik dator eta aritz-antzeko kejigo asko dagon lekua esan gura dau.

• • •

Anabitarte: Gipuzkoan geien. “Ana” abereentzat barrutia da eta olako biren ardian dagoan etxea “Anabitarte”. Ortik abizena.

• • •

Anasagasti: (Oñate 1477) Bermeo-inguruan ugari abizen au. “Ana” abereentzat barrutia da eta “Sagasti” sagardia.

• • •

Antxieta: (Urretxua 1648) Gipuzkoako erri askotan eta Elorrion dago izen au. “Antxi” landara bat da eta azkeneko “-eta”k ugaritasuna dager.

• • •

Antxustegi: (Eibar 1592) Amorebietan eta Bilbao dago eta Eibar'en be bai. “Antxu” edo “antxus” intxaurra da eta “-tegi” atzizkiak ugaritasuna gaiñeratzen dautso. Erderazko “nogaleta”ren antza dauko.

• • •

Anda: (Valladolid 1535) Araba'ko abizena eta andik Bizkaiko Enkarterrira tokiz aldatua.

“Ana” abereen barrutia izanik, “-da” atzizkiak tokia dala diño.

• • •

Andikotxea: (Eibar) Jatorri bi izan daikez. Lenengoa, urriñean, andiko aldean, dagoan etxea eta bigarrena, “andi” barrutia dala, andiaren barruan dagoan etxea.

• • •

Angoitia: (Zeanuri) “Ana” abere-barrutia dala, “Goitia”k barruti orren goiko aldean dagoala dirausku.

• • •

Anitua: Bermeon eta Ziortza'n dago Eibar'en be entzuten da baiña kanpotik joana.

“Ana” barrutia izanik, “-tu” tokia adierazteko ezarria da eta azkeneko “-a” edo “-aga”, indarra emoteko ezarria.

• • •

Ansoleaga: (Urduliz 1740) “An” abereen bedar-lekua dala, “olea” gaiñerutzen jako eta onek burdin-ola dagoala bedarlekuaren barruan diño eta “-aga” azkena sendotzeko da.

Urduliz'tik zabaldua da.

• • •

Ansorena: (Berastegi 1741) Naparroatik zabaldu da Gipuzkoako alde batera eta “Anso”k bedarleuagaz dau zer-ikusia eta “-rena” etxe ori norena dan adirazteko ezarri jako. Orrelan abizen onek jatorrizko etxea “anso” edo Santxo izenekoarena dala diño.

• • •

Anzola: (Elgoibar 1597) “Antza” bedartza aundia da eta azkeneko “-ola”n ugaritasuna gaiñerutzen dau, “urkiola” lez, baiña ez dauko zer-ikusirik burdin-olagaz.

Elgoibar'en eta Iparraldeko Saran aurkitzen dogu.

• • •

Añibarro: (Zeanuri 1770) Idazle ospetsu baten izena da, bizkaitarra, Zeanurikoa, eta izen au daron baserrria be antxe dago.

“Ani” bedartza da eta “barro” zalaia.

• • •

Apellaniz: (Kanpetzu 1739) Araban eta Naparroan dago. “Apel” bedartza izan leiteke eta “an” be antzeko zerbait. Azkenean abizen askok daroen “-iz” ori ez dakigu zer dan.

• • •

Aperribai: (1628) Bizkaian ei dago ugari abizen au: Galdakanon, Zeanurin, Orozkon. Bergara'n be ezagutu dogu.

Karraska deritxon landara bat eta “ibai” errekea gogoratzen dauz. Etxea erreka-ondoko karraska artean dago.

• • •

Akesolo: (Dima) “Aka” sasia dan ezkerro, sasi-ondoko soloan dagon etxea litzake. Badiñoen “akerren soloa” dala be.

Akesolotarrak ezagutu doguz eta Diman jaioak izan dira.

• • •

Aranbarri: Okendon (1711) dago eta emendik joanda Azkoitian eta Ondarroan.

“Aran” basaranak dagozan tokia da edo ibarra be bai. Barri onek toki-izentan ez dauko gauza “barria” adierazteko antzik. “Barri” basoa dala be ba-diñoen.

• • •

Arana: Euskalerra osoan agertzen da, geiago sartaldean.

“Aran” ibarra da eta gaiñerutzen jakon “-a” mugatzaillea. Au indartu nai danean “Aranaga” sortzen da.

Basaranak dagozen lekua be izan daiteke.

• • •

Aransolo: (Gamiz) Bizkaian dago, etxe bi izen onegaz Gamiz'en.

Basaranak dagozen soloa izan bear leuke, baiña toki oneitan errezago izan leiteke arantzak dagozen soloa edo aranean dagoana.

• • •

Aranzamendi: Bizkaian eta Gipuzkoan. Arantzak dagozan mendia.

• • •

Arbeo: (Arrasate 1399) Aitzaren azpian dagon tokia edo etxea. “-o” azkeneoak tokia adierazten dau.

Bizkaian zabal dabil.

• • •

Arruza: (Maruri) Mungialdean sortua eta andik zabaldua da.

“Arru-” mendi artea dalako, eta “-tza” atzizkia ugaritasuna dan ezkerro, izen ori daroan etxea mendi-bitarte asko dagon lekuan legoke.

• • •

Asaburu: Gamiz'en dago etxe bat, Arrankudiagan ei dago beste bat.
“Asa-” sasitza da eta “-buru” gaiñea. Etxe ori sasitza baten gaiñean egin zan.

• • •

Asolo: Mungian daukagu 1593.

“Asa-” sasia dan eskero, “solo” zer dan be argi dago, sasia daukan soloa dogu. Asola be antzera: Sasitza ugaria.

• • •

Aspillaga: (Azpeitia 1570) “Aspil-” landara bat da, erderaz “boj” deritxona. Abizen onek aspilla dagon lekua esan nai dau.

Elgoibar'en eta Azpeitian ezaguna.

• • •

Astelarra: (Bizkaia) “Astel” kardua ba'da, “astelarra” karduk daukazan larra izango da, karduz beterik dagoan zelaia.

• • •

Astigarraga: Gipuzkoan da agirien (1668) Astigar “tilo” dan ezkerro, abizen au astigarrak dagozen tokia da.

• • •

Astoreka: Larrabetzun dago auzo bat izen au daroana. (1754)

“Artea”ren orde “astea” esaten zan lenago eta ortik etorria dirudi: “-eka”k tokia adieratzen dau eta orrelan arteak dagozen tokia litzake.

• • •

Astorkiza: “Astorki-” landara bat da eta “-tza”k ugaritasuna iragarten dau.

Bizkaian Berangon dago eta Gipuzkoan Oñaten, baiña geiago zabaldu da.

• • •

Atela: “Ate-”tik dator eta “la”k tokia agertzen dau. Atea dagon tokia, baiña mendi-atea, ez etxe-atea.

Bizkaian ainbat dagoz.

• • •

Atutxa: Arratia-aldean ugarien.

“Ate-” artea ei da eta “-txa” ugaritasuna, baiña ez dago ain argi.

• • •

Aurtenetxe: Bizkaian.

“-etxe” argi dago baiña non dago etxe ori? “artean” edo beste etxe batzuren bitartean.

• • •

Aurre: Morgan dago eta emendik Zestoara igaro da.

Aurreko aldea esan nai dau, baiña beste batzuk “urre”tik datorrela diñoe. Urra edo urretxa.

• • •

Aurrekoetxea: Bizkaian (1794) zabal dabil. Gipuzkoan: Zestoan.

Aurreko aldean dagoan etxea esan ani dau, argi dagoan lez.

• • •

Axpe: Abizen au Zeanuritik urtena da eta Bizkairik geienera zabaldu da. Ez Gipuzkoara, an “Aitzpe” izan bearke leuke. (1497)

Atxaren barrenean edo azpian dagoan etxe baten izena litzake. Ortik gero abizena.

• • •

Aierbe: Oscan dago ugari. Erria be bai. Ortik etorri da Naparroa ta Gipuzkoara. (1130)

Aldapa adierazten dau, eta aldapa au otez beterik legoke eta orren barrenean izen au daroan etxea.

• • •

Aio: Bizkaian agertzen da XV gizaldian eta geroago Arabako Aiala'n. (1676)
“Aia-” otea dauan aldapa izanik, azkenengo “-o” tokia adierazteko izan leiteke.

• • •

Azarola: Gipuzkoan dago geien. (1648)

Geienen ustez “azar-” sasia da eta ola onek azkenean ugaritasuna adierazten dau: Sasia ugari dagon lekua. Baten batek “azari” lukia esan nai dauan itzetik ateraten dau. Baiña ez dauko antzik.

• • •

Azkarate: Benabarratik Leizara sartu da, gero Elgoibar-aldera. (1649)

Era askotan ulertu leike: “Aitz-Garai-Ae” Aitzaren gaiñean dagon mendi-atea da geien esaten dauskuna.

• • •

Azkoaga: Aramaiona'tik urtena da eta ortik Goi-Deba aldera. (1530)

“Azki” grama deritxon landara bat da eta “aga”k tokia adierazten dau eta mugatzaillea sendotu.

• • •

Azkue: Bidasoa inguruan sortua da eta Gipuzkoa osoan zabaldu da. Gaur Bizkaian be bai. (1650)

Lenago “Azkune” izango zan eta orrelan aitzia dagon unea esan nai dau. Edozelan be “atxekoa”.

• • •

Aznar: Arragoi-aldean sortua da eta emendik sartu da Naparroara eta Euskal-erri osora. (824)

Azenari-Lukia.

• • •

Arteta: Muxikan asi eta Mungialdetik Bizkai guztira zabaldu. (1543) Gipuzkoan be ba-dago eta Naparroan be bai batzuk.

Arte asko dagon lekua edo etxea esan gura dau.

• • •

Artola: Amezketan eta Gipuzkoa osoan dago eta Bilbao'n be bai. (1655)

“-ola” atzizkiak ugaritasuna adierazten dau eta abizen onek arte asko dagon tokia edo ondoan dagon etxea esan nai dai. Onen antzera urkiola, egurrola, uriola...

• • •

Arza: Lazkaon sortua da baiña Aiala-aldean be ba-dago. (1600)

Itza “arri” dala, atzizkia “-tza” da eta onek ugaritasuna esan nai dau. Orrelan “Artza” arri asko dagon lekua da. Ba-diño batzuk artza pizti bat dala be. Bear ba-da piztia izan daiteke Aialako “artzá” eta besteak “ártza”, arritegia.

• • •

Arrazola: Gipuzkoaren ondoan dagon Bizkai'ko erri bat da eta “-ola” ugaritasuna izanik “arraz” arrilekua izan leiteke. (1340)

• • •

Aretxaga: Lenengo Etxano'n agertzen da baiña gero zabal dabil Euskal-errian. (1399)

Aretxa dagoan tokia edo etxea esan gura dau eta “-aga” ez da besterik mugatzaillea sendotzeko baiño.

• • •

Arriaga: Erronkarin agertzen da eta Bizkaian eta Gipuzkoan zabal dago. (1581)

Arria dagoan tokia esan gura dau.

Arrien: Errigoitik urtena da. (1768)

Asierako "arri" zer dan argi dago baiña ez ain argi "-en" zer dan: batzuk "noren" atzizkia dala. Ni lenengoaren alde nago.

• • •

Arrieta: Berba onen esan-naia argi dago. Erri bat da Bizkaian eta beste eskualde batzuitan be bai. (1548)

Arri asko dagon tokia da.

• • •

Arrillaga: Abalzisketan asi eta Gipuzkoa osoan agiri da. (1619)

Arri biribillak dagozan lekua esan nai dau.

• • •

Arrinda: Etxanon sortua ei da baiña beste leku askotan agiri da.

"Arri" zer dan argi dago. "-insasia dala diñoie eta "-da" tokia adierazteko.

• • •

Arriola: Debatik Bizkairantza zabaldu da. (Elorrio 1576)

"Arri" beti lez argi dago eta "ola" atzizki lez agertzen danean ugaritasuna adierazteko da.

• • •

Arrizabalaga: Azpeitian eta Ataunen dagoz abizen au daukenak. (Eibar 1565)

Berbeak argi dauka esanaia: "-aga" tokia eta "arri" "zabala". Toki orretan dagoan etxea izan leiteke.

• • •

Arroita (Arroeta): "Arro" mendi-muñoa da, "-eta" mendi askoren bitartea.

Berrizko Murgoitia auzotik zabaldua ei da. (Bergara 1650)

• • •

Arrola: Mungian dagoz asko, baiña gipuzkoatik etorria da, artzaiñakaz-edo.

"-ola" ugaritasuna da eta "arri" ezaguna da. Urola ura ugari edo egurrola egurra ugari dan lez, arrola arria ugari da. Ez da burdin-ola. (Legazpia 1533)

• • •

Arrospide: Busturin eta Benabarran agertzen da. (1658)

"-arro" emen sasia ei da, "-os-" tokia eta "-bide" ezaguna da. "Sasi asko dagon tokira bidea".

• • •

Arroiabe: Arratzutik asi eta Bizkai guztira zabaldu da.

"Arro-" mendi-muñoa izan ezkerro, mendiartearen barreneko tokia litzake, baiña "arro" sasia ba'da, "sasitzaren barrena" izango litzake.

• • •

Arrue: Gipuzkoatik Bizkaira etorria da (1399)

Batzuk "arriune" dala diñoie baiña ziurrago "arroa", "arrua", "arrue". Mendi-muñoa.

• • •

Arrupe: Mungian dago eta Gipuzkoan.

Arruaren edo mendi-munoaren barrena esan gura dau.

• • •

Arzeluz: Batzuk "arze" artea dala diñoie, beste batzuk, ostera, "artza". Eta "-luz" toki-atzizkia. Orduan, "arteak edo artzak dagozan tokia". Beste batzuk "artza" arriarte dala diñoie eta "-luz" luzea, orduan "arritza luzea".

Gipuzkoan dago geien zabaldua. (Ataun 1659)

• • •

Ardantza: "Ardan" edo arda bat da eta -tza azkenengoak ugaritasuna adierazten dau. Ori orrelan izanik, arda asko artzen dan lekua litzake, baiña beste batzuk "ardan" basarana dala diñoie.

Abizena Elorriotik urtena izan leiteke, Gipuzkoan be ba-dago. (1776)

Aretxalde: Aritz baten ondoan dagoan lurra edo etxea.
Abizen lez Bizkaian geien. (1674)

• • •

Arejita: Elorrion sortua da eta Gipuzkoara be igaro da. Gernikan be aurkitzen dogu. (Elgoibar 1752)

Jatorria aretzean ai dauko, eta azkenean “-eta”, ugaritasuna agertzeko.

• • •

Arenaza: Batzuk “aran”etik datorrela diñoe, beste batzuk “arena”tik. Azkeneko “-tza” ugaritasuna da.

Bizkaian eta Gipuzkoan agertzen da geien. (Valladolid 1764)

• • •

Arizpe: Aritxaren azpian dagon tokia edo etxea da. (Eibar 1575)

Abizena Bizkaian eta Gipuzkoar ugari.

• • •

Ariztegi: Aritz asko dagon tokia esan nai dau eta abizen lez zabal dabil batez be Gipuzkoan. (Oñate 1716)

• • •

Arizmendi: Aritzak dagozen mendia, itzak argi diñoan lez eta abizen lez be zabala da Gipuzkoa osoan eta markinaaldean. (Donosti 1566)

• • •

Ariznabarreta: Azkenengo “-eta”k asko dagon tokia esan nai dau. “Nabar” izan leiteke alkarren ondoan dagozenak eta margoa argia, eta danaren aurrean aritza: Aritz asko eta batuak dagozen tokia.

Gipuzkoan geien, baiña Bilbaon be bai. (Soraluze 1654)

• • •

Armendariz: Naparroan eta Gipuzkoan dago abizen au geien, baiña Bizkaian be ba-dagoz, esaterako Elorrion, Ubidean.

Batzuren ustez arri-mendiko aritza litzake. Beste batzuk bedar sikua aitatzen dabe, eta nik latinetik artutako “armentarius” ete dan esango neuke, abere-zaiña litzake. (Legorreta 1664)

• • •

Armentia: Guztiok ezagutzen dogu Gasteiz-ondoko Prudentzio deunaren jaioterria. Abizena zabaldu egin da eta Kordoban be ba-dago. (Valladolid 1584)

Arri-mendia izan daiteke, baiña badiño bedarragaz be zer-ikusia dauala.

• • •

Aroztegi: Abizena Bermeo-aldean egoan eta gero Gipuzkoara be zabaldu da.

Arotzaren etxea esan gura da, etxea edo lan-tokia. Lopez Mendizabal'ek danean sartu nai izantzen dauz landarak eta emen be bai: orosti edo gorostiak dagozan tokia dala diño. (1537)

• • •

Arsuaga: “Artsu” arri asko eta “-aga” azken mugatu ta sendotua da. Gipuzkoan geien. (Urretxua 1348)

• • •

Artabe: Artearen azpian dagoana esan nai dau, baiña “-be”k ugaritasuna esan nai dauala be ba-diño.

Dimatik urtena da abizena. (Tolosa 1769)

• • •

Artaraz: Arratian ugari dago abizen au eta lenengo zatia artea dala dirudi, beste zati biak -ar- eta -az zer diran ez dago argi.

• • •

Altazubiaga: Arteakaz egindako zubia gogoratzen dau eta azkeneko “-aga” mugatzailea sendotzeko da.

Leniz'ko ibarrean eta Gipuzkoa osoan dago, Bizkaian be bai. (Arrasate 1391)

Arteaga: Gautegiz errian amargarren gizaldian agertzen da baiña gero Euskal-
lerri osora zabaltzen da. (Elorrio 1576)
Artea dagon lekua esan gura dau.

• • •

Artetxe: Beste etxe batzuren artean dagoan etxea ei da baiña Lopez Mendi-
zabalek Artea zugatzagaz alkartzen dau. Ez diño arte-ondoko etxea danik, “-
etxe” ugari ei da. (Azpeitia 1648)

• • •

Azpeitia: Gipuzkoako erri onetatik zabaldu da Bizkai, Araba ta Logroño'ra.
(1348)

Aitzaren beeko aldea edo barrena esan nai dau.

• • •

Azpiazu: Gipuzkoako Azkoitian sortu da eta Euskal-lerri osoan eta emendik
kanpora be zabaldu da. (1726)

Argi da “tzu” edo “tsu” zer dan, baiña “Azpia”? Barrena izan leiteke, baita
“acerlilo” deritxon landarea be, gurbia.

• • •

Azpilikueta: Naparroako Baztanetik urten eban. (1567)
“Azpil-” gurbi-antzaroko landarea da eta azpil asko dagozan lekua litzake Azpi-
likueta baserria egiteko lekua. Ortik izena ta abizena.

• • •

Azurmendi: Zegamatik urten eta Bizkaiara sartu zan. (1606)
Iñok esan dau azurrak dagozen mendia dala, baiña ori baragarri dala dirudi.
Ziurrago esan lei “azar” sasia dagon mendia.

• • •

Azurtza: “Azur” sasi lez artu ezker, “-tza” ugaritasuna dan ezker, sasi asko
dagon lekua litzake. Ez iñoz azur asko.

Gipuzkoa barruan dabil abizen au. (1634)

• • •

Badiola: Azpeitian dagoz iru sendi eta emendi Bizkaira etorri da, batez be
Ondarroara. (Azkoitia 1743)

“Badi” irea dala diño, jateko bedarra be izan leiteke. “-ola” sarritan agertzen
da eta atzizki lez ugaritasuna da. Badiola ta Iraola gauza bat litzakez.

• • •

Balanzategi: Oñaten eta Gipuzkoa osoan. Arabarra be sartu da: (Oñate
1388)

Arantzategi'tik etorria dala diño eta orrelan arantzak dagozen tokia litzake.

• • •

Barandika: Mungialdean eta Bizkai guztian dabil eta kanpora be urten dau.
Muxika'n sortua. (1689)

“b-” Proteika edo gero ezarria da. “-Aran-” ibarra dogu. “Di” ugaritasuna. “-ka”
toki-atzizkia. Au Bizkaiian ugari dago baiña ez dakigu zer dan. “Aran asko dagon
tokia”.

• • •

Barandiaran: Ataundik urtena. Bizkaiian be badago. Gipuzkoan zabal. (1691)
“Arandi” aranak dagozela esan nai dau eta aran erreik ibar baten dagoz,
“aran” baten. “Aran-landarak dagozen zelaia edo arana”.

• • •

Barinaga: Markiñatik urten eta Bizkai ta Gipuzkoa osoan zabaldua.

“Bara” irea da “-in” eta “-aga” toki-atzizkiak.

• • •

Baroja: Araba eta Errioxa inguruetan sortua eta dabillena, baiña sartu da
Naparroa ta Gipuzkoara be. (Valladolid 1519)

“Baro-” irea izanik, “-ja” tokia agertzeko atzizkia baiño ez da: “Iralekua”.

• • •

Barturen: Bizkaiko Bakion sortua. Elorriora be zabaldu da (1748)
“Sasitza” esan gura dau eta “-azur-” da oiñarria. “-en” toki-atzizkia da.

• • •

Barrena: Oñate-inguruan asi eta Gipuzkoan zabaldu da, gero Bizkaian.
Beko aldea edo barrukoa esan gura dau, baiña besterik ezer be ez, eta ori gitxi da. (Villafranca 1399)

• • •

Barrenetxea: Onek “Barrena” utsak baiño zeozer geiago diñosku: Zer baiten barrenean dagoan atxea.
Eibar-ingurutik Gipuzkoa osora zabaldu da eta Bizkaian be zabal dago. (Ataun 1399)

• • •

Barrondo: Bizkaian dago geien.
“B-” asteko gero ipiñia d eta “arrondo” da jatorria: Izan leiteke arroa edo mendimuñoaren ondoa, arriaren ondoa...

• • •

Barrutia: Gernika-aldean asi eta Elorriora arte zabaldu da Bizkaian eta Gipuzkoan be ba-dago. (Arrasate 1353)
Inguruan esia dauan lur-arloa da, naiz lur landua naiz landea.

• • •

Basabe: Arabako Baldegobian dago izen au dauan erri bat, baiña Bizkaira ta Gipuzkoara be zabaldu da. (Leniz 1429)
Sasiaren barrenean izan leiteke baiña errezago basoaren barrenean dagon lekua.

• • •

Basaraz: Bizkaian dabil (1521)
“-az” tokia. Basoa dan lekua da.

• • •

Basaldua: Okendon sortua dala diño baiña gero zabal dabil. (Bilbao 1637)
Batzuk “ase” edo sasia artzen dabe jatorri lez, baiña errezago da “basoa” artzea eta onek “-aldu” atzizkia daroa eta goikoa esan gura dau.

• • •

Basozabal: Oñaten agertzen da, Mungian be bai. Gero Errioxan. (1600)
Esangurea argi dago: Basoa ta zabala. Olako lekuan etxeren bat.

• • •

Basterretxea: Bizkai guztian, itxas-ertzetik asita. (Ondarrabi 1645)
Esannaia argi dago: Basterrean dagon etxea.

• • •

Bazterra: Gazteizen eta Orozkon agertzen da eta zabaldu Bizkaian geien. (1701)
Berbeak argi diño zer dan: Basterrean egindako etxeari ipiñiko eutsoen izen ori, ortik abizena. Ez dot uste batzuk aitatzen daben “sasia” kontuan artzekoa danik.

• • •

Batiz: Fruniz'en dagoz iru etxe izen au daukenak (Goikoa, Bekoa ta Erdikoa).
Arbazegin be ba-dago.
“-ata” sasia ei da, “B-” gero ezarritakoa eta azkeneko “-iz” toki-izen askotan agertzen da eta ez dakigu zer dan. (Bilbao 1791)

• • •

Bajeneta: Arrietako Jainkon dago etxe bat. Fika'n be bai beste bat, Bainta deritxona, lenago Bejeneta izango zan.

“-ai” mendi-aldapa ei da, -in- toki-atzizkia, “-eta” askorena eta asierako “B-” gero ezarria. Orduan “aldapan dagozan” etxeak litzake. (Arrieta 1587)

• • •

Beaskoetxea: Eri askotan dago izen au: Galdakanon, Marurin, Gamizen, Atxondon.

“-Etxea” argi dago eta “-Beasko” beko-aldean dagoana da.

• • •

Begiristain: “-egi” aldapa da, “-iri” irea “-st” “-tza”ren antzera, ugaritasuna eta “-ain” gaiñean. Aurreko “B-” gero ezarria da: “Ira asko dagoan aldaparen gain”. (Azpeitia 1570)

• • •

Beitia: Bizkai guztikoa da, batez be Mungialdekoa. (Elorrio 1575)

“Bee” etxea dagoan tokia da, beia, eta “-it-”toki-atzizkia. “Goitia” be antzekoa.

• • •

Beiztegi: Bergara-inguruan zabalena.

Oñarrian “-iz-” dago, iza uretako zia da, junkoa, eta “-tegi”- asko dagon tokia. Aurreko “B-” gero ezarria, errezago esateko. (Soraluze 1562)

• • •

Belarrinaga: Larrabetzun sortua.

“Be-”, bekoaldean dagoalako, “-larrin-” edo “larrain” garia joteko lekua (era) eta “-aga-” toki-atzizkia. “Beko larraina dagon lekuko etxea”.

• • •

Belasko: Abizen euskalduna da jatorriz, baiña euskalerritik urten egin dau. Gaur emen dagozenak geienak gero etorriak dira. Baiña abizena jatorriz euskalduna da. “Bela-” guztiok dakigun egaztia da eta “sko” umea adierazten dauan atziskia: Oillasko.

Belasko, belakumea da. 915n.urtean agertzen da. Oskan.

• • •

Beldarrain: Gipuzkoako Aia inguruan sortua da baiña Bizkaian be ba-dago, bear ba’da neguko artzaiñak ekarrita. (Donosti 1697)

Bedartza baten gaiñean dagoana esan nai dau: “Belar-gain”.

• • •

Bengoa: VIII gizaldian agertzen da Leniz’ko Gatzagan. Mungialdean eta Bizkai guztian be ba-dago.

Jatorriz “Berengoa” da, beste etxe batzuk artean beren dagoana.

• • •

Bengoetxea: Bengoa lez, beren dagoana adierazten dau, baiña emen “-etxea” be agertzen da. (iruña 1758)

Gipuzkoa geienean dago eta bizkaian be zabal, batez be Mungialdean.

• • •

Beobide: Bizkai eta Gipuzkoa osoan agertzen da. (Asteasu 1749)

Beorren bidea adierazten dauala dirudi.

• • •

Berasaluze: Gipuzkoan dago geien, baiña Bizkaira be sartu da.

“Beratz” edo “baratz” bedartza da eta “-luze” argi dago. (Getaria 1791)

• • •

Beraza: Orozko-aldean agertu da baiña gero Gipuzkoara joan da.

“Baratza” edo “bedartza” esan gura dau. (Bilbao 1673)

• • •

Berezibar: Bergaran eta Araban agertzen da. (Bergara 1390)

Baratza edo bedartza dagoan arana esan nai dau.

• • •

Bereziartua: Gipuzkoakoa da. “Beraz” edo “baratz” igartua, legortua esan nai dau. (Bilbao 1826)

• • •

Bergara: Erri ezaguna da Gipuzkoan. Bertan eta inguruetan zabaldu zan abizena baiña gero erbestera be zabaldu da. Batzuk itz onen oiñarriztat “-erga” artzen dabe, bedar-lekua, beste batzuk jatorriz “Ybergarai” dala diño. (1492)

• • •

Berna: Amorebietan.

“Berro”tik ei dador eta “-na” atzikiagaz “bedartza” izan daiteke.

• • •

Bernaola: Bizkaiko Arratian sortua da. Eskoriatza’n be ba-dago: 1815
“-ola”k emen ugaritasuna esan nai dau, ez burdin-ola. Eta “berna” bedartza-
ren antzeko zerbait da.

• • •

Berrio: Orduña-aldean sortua, Bizkaira ta Ameriketara be zabaldu da. (Navas de Tolosa 1212)

“Berri-” sasia edo zugatz txikiak dagozen lekua da.

• • •

Betolaza: Araban dago erria izen au daukana, baiña abizena euskalerrian eta Errioxan be ba-dago. (Elgoibar 1602)

“Bet-” beiena esan nai dau eta “Olatza” egonlekua da.

• • •

Bidaurrazaga: Bizkaian ainbat dagoz eta Ameriketara be joan da. (1728)
Jatorriz “Bidaurrazaga” ei da eta Fruniz’en ei dau etxea: “Bidortza” izango da.
Berbearen muiña “ida” edo irea da. Aurreko “B-” gero ezarria da, “-tza-” ugaritasuna eta “-aga”k mugatzaillea sendotzen dau eta tokia adierazi. Ordua: “Ira asko dagon tokia”.

• • •

Bidegain: Gipuzkoan agertua da baiña badagoz Bizkaian be abizen au daukenak.

Esangurea argi dago: “Bide-” eta “-gain”, bidea baiño gorago dagon etxea.

• • •

Billela: Mungian dago abizen au 800n.urtea ezker. Ez dakigu berton sortua dan ala Palentzian dagoan “Villela” erritik artua.

Palentziatik artuak “urixua” adierazoko leuke. Bertokoak, diñoenez, “illa” otea dagon lekua. (Valladolid 1512)

• • •

Bizkarguenaga: Bizkaian baiño ez dago.

Mendi-ganaren (“bizkar-”) “-goiena-” dagon lekua edo an dagon etxea.

• • •

Bizkarra: Bizkairik geianean dago. (Azpeitia 1593)

Mendiaren ganea da bizkarra eta bat baiño geiago be izan leitekez, “-aga” laburtuta dagoalako.

• • •

Blasko: Lenago Euskalerrria zan Jaka’n agertzen da 915n. urtean.

Belasko’reñ laburpena da eta Belasko belearen kumea.

• • •

Blazkez: “Blasko”gaz batera doa eta “-ez-”ek gurasoakandiko jatorria esan nai dau. “Belaskoren semea” esan nai dau.

• • •

Bolinaga: Bizkaitik Gipuzkoara eta emendik Logroño ta Burgos’era zabaldu da. (Bilbao 1804)

“Bolu-” edo “Bolin” errotea da eta abizen onek errotea daukan etxea adierazten dau. Ortik Bolintxu.

• • •

Borda: Gipuzkoan geien, Bizkaian be bai. Ardiak sartzeko basoan dagon korta antzekoa da. (1703)

• • •

Bordagarai: Mendiaren gaiñean dagoan abeletxea.

• • •

Bustintza: Bizkaian eta Gipuzkoan. (1393)

Buztin asko dagon lekua esan nai dau, bustintza baten egindako etxetik dator abizen au.

• • •

Kafranga: Etxe ospetsua Gamiz'en, age baten ur-ontzi bat dauko kurutzeagaz eta Labairu'k antxiñako bateo ospakizun aundiaren bate ezaugarri dala diño. Ez dakigu zer esan nai dauan. (1815)

• • •

Kalzada: “Alzaga” bera dala diño batzuk eta “K-” gero ezarria. Beste batzuk Kantabriatik etorria dala.

Ez dauka ba, euskal jatorria dauan antzik. Erderaz gurpidea izango litzake. (Valladolid 1520)

• • •

Kareaga: Markiñaldean eta gero Bizkai osoan eta Gipuzkoan. (1533)

Batzuk “kare”tik datorrela diño eta karea dagon edo egiten dan lekua litzake. Beste batzuk ori ukatu eta “are” edo “ira”tik datorrela. “K-” gero ezarria.

• • •

Karrantza: Abizena jatorriz Bizkaikoa da baiña zabal dabil Balentzian eta Frantzian be. (Eibar 1567)

Sustraizko itza “arro” edo mendi-muñoa da, “K-” gero ezarria eta “-an-” eta “-tza-” ta ugaritasuna adierazteko “Muño asko dagoan tokia”.

Zearsolo; Elorrión agertzen da geien, Zeanurin be badago eta beste leku askotan. (Elorrio 1533)

Zear-lekuan, aldapan dagon soloa.

• • •

Zearra: Aldapa edo zear doan bidea esan nai dau eta bear ba'da ortik sortuak litzakez “Sierra” abizenak gure artean. Ortik “Zearreta”. (Elorrio 1539)

• • •

Zeberio: Izen au daroan bizkaiko errian sortua da eta andik inguruko errietara eta Bizkai osora zabaldua. Gipuzkoara be bai eta Murtzian be ba-dago. (Isaondo 1698)

“-iba-” oiñarri dala, itz onek “ira” esan gura dauanez eta “-ri” edo “-di-” ugaritasuna, irea ugari dagon tokia litzake. “Z-” gero ezarria eta “-o” tokia.

• • •

Zelaia: Gipuzkoan sortua, gero Bizkaira ta Errioxara ta naparroara. (Arrieta 1562) (Bergara 1463) (Segura 1384)

Bedar-lekua leuna esan nai dau.

• • •

Zenarruza: Bizkaiko abizena da eta ez da asko zabaldu.

Nire ustez, “-arro-” muñoa da eta “Zena-” edo “zean” aldapan dagoana eta “tza-” ugaritasuna. Orduan “muño asko aldapa baten”.

• • •

Zinkunegi: Gipuzkoakoa da. (Asteasu 1638)

“Zikonía asko dagoan lekua diño”.

• • •

Zirarda: Elgoibar'en agertzen da, gero Araban (Bilbao 1797)
Lora ubelak, malbak, dagozen tokia edo “-irar-” ira asko dagoana.

• • •

Korta: Bizkaian, Gipuzkoan eta Aragoian dago. (1599)
Basoan aberea lo egiteko dan arloa da. Kortabaso ez danean ormazko kortea be izan leiteke.

• • •

Kortazar (Gortazar): Zeanurin sortua da baiña asko zabaldu da batez be Legutiano aldera. (Oñate 1634) (1596)
Korta edo gorta, gaberako aberelekua da eta “-zar”, antxiñakoa.

• • •

Dañobeitia: Txorierrin, batez be Lezama ta Larrabetzun, dago ugari. (1425)
“-Beitia” zer dan argi dago baiña “daño-”? Mendiagaz zer-ikusian agertzen da.
“-año-” mendia izan leiteke eta Daño-beitia mendi-barreneko etxea.

• • •

Derio: Abizen lez ez da asko zabaldu erri orretatik kanpora.
“D-” gero ezarria da eta “-eri” ira da. “-o” toki-atzizkia. Ira asko dagon tokia. (1705)

• • •

Etxabe: Gipuzkoa osoan aurkitzen da.
Etxearen beko-aldea esan gura da, orrelan soloren baten izena. (1429)

• • •

Etxaburu: bizkaian, Gipuzkoan eta Errioxan. (Tolosa 1554)
Etxea baino gorago dagon soloa esan nai dau.

• • •

Etxague(n): Naparroan eta Araban.
Etxea baiño gorago, etxe-goienean dagoan soloa da. (1685)

• • •

Etxandia: Erronkaritik etorria da baiña Bizkaian be entzuten da.
Abizen onen esangurea argia da.

• • •

Etxaniz: Azpeitian asi eta asko zabaldu da (Arrasate 1491)
“Etxe-” argi dago. “-no-” txiki atzizkia da eta “-iz” abizena sortzeko ezarria.

• • •

Etxarri: Naparrea osoan Etxarri-Aranazetik urtenda. Logroñon be badago.
Gipuzkoan be zabal. (1698)
“Etxaberri”ren laburpena da eta katalanen edo galiziarren “Casanova”gaz batera doa.

• • •

Etxegarai: Gipuzkoan eta Naparroan zabal dabil eta bizkaian be ugari, bear ba' da artzaiñak Gipuzkoatik ekarrita.
Etxea baiño gorago dagon lurraldea litzake. (Donosti 1641)

• • •

Etxeguren: Aiala-aldean sortua da eta andik zabaldu da (1523)
“-guren” gorengoa esan nai dau: Eguen Guren, Landaguren... Orrelan ba,
“etxe guztien artean gorengoa esan gura dau.

• • •

Etxenagusia: Gipuzkoar askok daroe abizen au eta Bizkaian Meñakan izan da 1770n. urtean. “Etxerik aundiena” esan gura dau. (Bilbao 1741)

• • •

Etxezarraga: Igorren agertua da eta gero Bilbao'ra be zabaldua.
“Etxe zarra dagon lekua” esan nai dau. (Bilbao 1741)

• • •

Egaña: Aizarnan dago izen au daroen etxe bi, Garaikoa ta Azpikoa (Aizarni 1646)

Jatorriko itza “Egigaiña” da eta aldapa baten gaiñean dagoana esan nai dau.

• • •

Egia: Abizen oso zabaldua da: Bizkaian Arratian eta Mungian eta Gipuzkoan Azpeitian, Legorretan eta Amezketan eta Araban. Kanpetzun, Aialan eta Zigoitian. (Zumarraga 1470)

Mendi-gaiñeko lerroa edo mendi-aldapa izan leiteke.

• • •

Egiagarai: Aldapearen gaiñean dagon etxea edo lekua esan gura dau.

• • •

Egiguren: Egia aldapa da eta guren gorengoa, biak alkartu ezker, aldapa guztien artean gorengoa. (Eibar 1589)

Bizkaiko Markiña-aldetik urten eban eta Eibar-aldera be sartu da.

• • •

Egilaz: Aldapa latza da adierazpena. Bilbaon eta Tolosa-aldean agertzen dira lenengoak. (1454)

• • •

Egiluz: “Egilaz”en ordez artzen da eta Bizkaiko Lezaman da zarra, gero Araban eta Gipuzkoan. (1454)

Aldapa luzea edo mendi-kate luzea esan gura dau.

• • •

Egileor: Mungialdean agertu zan baiña Araba-Aldean be ba-dago. (Isasti 1625) Aldapa sikua esan gura dau.

• • •

Egino: Egitik etorria danean, egi edo aldapa txikia esan gura dau, baiña agino’ren aldakuntza be izan leiteke eta orduan zugatz bat, agiña, erderaz tejo esan gura dau eta “-o-” toki-atzizkia da. Agiña dagoan tokia. Ortik etorria da Frantziako “Agen” erria. (1587)

• • •

Eguren: Egiguren’en laburpena da eta gorengo mendi-muñoa edo aldapa esan nai dau. (1622)

Lenengo Bilbao’n agertzen da. Gero Elorrión eta Gipuzkoan be bai.

• • •

Eguskiza: Fikan dago izen au dauan etxe bat, antxiñakoa, baiña idazkietan Ernani’tik asi eta Gipuzkoan agertzen da. Aramaion be bai. (Gabiria 1462)

Eguzkia ugari dagon lekua da.

• • •

Eizagirre: Lazkaon asten da eta Gipuzkoara zabaldu. Gero Kolonbian be bai. (Zestona 1389)

“Eiza” “aize”tik sortua da eta “Agirre” agirian dagoana eta abereentzat bedarlekua. Aizetan dagoan abere-barrutia”.

• • •

Eizmendi: Astesutik Azpeitiara 1625n. urtean, gero Berriatura eta Naparroara.

Aizea dagon mendia edo eiza dagoana izan leiteke.

• • •

Elkano: Getariatik Gipuzkoara.

“Elge” edo “elka” lur landua da eta “-oro-” txiki-atzizkia. (1523)

• • •

Elkoro: Bergaratik urtena da. (1728)

“Elga” edo “elka” lur landua da eta “-oro-” toki-atzizkia.

• • •

Eleizalde: Tolosatik urten eta Gipuzkoa osoan. (1594)
Eleizearen ondoan dagoan tokia edo etxea da.

• • •

Elgarresta: Zumarragan asi eta Urretxu-inguruan. (Zumarraga 1383)
“-Elka-” lur landua da eta “-sta”k ugaritasuna adierazten dau.

• • •

Elgezabal: Mungiako auzo baten izena da eta Muxikan be badago. (Bilbao 1735)
“Elge-” lur landua da eta zabal argi dago zer dan.

• • •

Elordui: Oñate’n agertu zan baiña zabaldu Bizkaian. (Arrasate 1461)
Elorria arrantzadun sasiantzekoa da, eta “-dui” atzuzkiak taldea adierazten dau: “Aranzadi”ren antzekoa da.

• • •

Elortza: Legazpian, Oiñaten eta Seguran lenengo. Geroa Mungian be bai artzaiñak eroanda-edo. (Navas 1212)
Elorri arrantzadun landarea da eta “-tza” ugaritasuna. Elorri asko dagon lekua.

• • •

Elorriaga: Apatamonasteriotik Bizkai osoara zabaldu da. Gipuzkoan be asko dago. (Arrasate 1578)
Elorriak dagozan lekua da.

• • •

Elorrieta: Mungialdean eta Derion. Elorri edo arantza-landara asko dagoan tokia da.

• • •

Elustondo: Gipuzkoako Baizamatik Ameriketara igaro da.
Elorri edo arantza-landarearen ondoan esan gura da.

• • •

Elosu: Araban dagon eritxu onetatik Azpeitiara ta Oiñatera igaro da. Emendik Ameriketara. (Bilbao 1700)
Elorri da oiñarria eta “-tsu” atzizkia. Arantzadun zugatz ori ugari dagon lekua da.

• • •

Emaldi: Eskoriatzan eta Orozkon dago eta Zeanurin be bai.
“Ema-” abereentzat barrutia da, “-al-” “ari”tik dator, janari lez, eta “-di” ugaritasuna da. “Abereen janari asko dagon lekua.

• • •

Enbeita: Ajangizen eta Muxikan dago. Bean dagozan ema edo barruti-lekuak dira.

• • •

Enziso: Errioxata naparroakoa da baiña Andaluziara be igaro da.
Latiñeko “Incisum”etik etorria dala diñoe eta onek legortean abereak eroateko tokia esan gura ei dau.

• • •

Epaltza: Orozkon eta Etxanon dago.
Iru esangura ezarten jakoz: 1) “Epal-” bedarlekua eta “-tza-”Ugaritasuna. 2) “Espel-” landarea, erderaz boj, eta “-tza” ugaritasuna. 3) Egibaltza edo aldapa baltza. (1674)

• • •

Erzila: Bermeon dauka bere etxea, baiña gero Gipuzkoara igaro zan. (Nabarra 1350)
“Erze-” bedarlekua da eta orren atzikia “-illa” ez dakigu zer dan.

• • •

Ereñozaga: Mungialdean dago eta andik igaro da Busturira ta Laudiora. Ereñotza (laurel) dagon lekua da.

• • •

Reparaz: Baztanen sortua da (1775) Erregearen baratza esan nai dau.

• • •

Erretolaza: Markiñan sortu da.

“-olatza” aterpea dan ezkerreko eta asierako “Erret-” erregearen antzekoa, “errege-aterpea dala diño. Beste batzuk “-Ola-” oiñarri lez artuta, errementari edo ola asko dagon lekua diño.

• • •

Errotaetxe: Arrasate-ingurutik Zeanurira. (Arrasate 1420)
Errotearen etxea esan gura dau.

• • •

Eskartzaga: Okendon, Laudion eta Gordexolan dago.

“Eskartza-” erderazko arce da eta “-ga” tokia adierazteko ta mugatzaillea indartzeko.

• • •

Esnaola: Legorretan asi eta Gipuzkoara zabaldua. (Oria 1708)

Esnea dagon lekua esan nai dau. “-ola” ugaritasuna da, baiña egokiago bear ba’da, sasia esan gura dauan “esna-”tik.

• • •

Ezkurdia: Bizkaian eta Gipuzkoan.

“Ezkur-” gaur aritzaren frutua da baiña lenago zugatza zan. Abizen onek zugatz asko dagon lekua adierazten dau.

• • •

Ezkerra: XI ta XII gizaldian zabal ebillan Gipuzkoan Bizkaian eta Naparroan: Lazkao’ko erritar batek dauko: 1399

Euskeratik igarro da “ezkerra” erderara, “sinistra” berba latza alboratzeko. Izen-ordea da, ez izena.

• • •

Fano: 1445 Urduliz’en. Latineko Fanum’etik datorrela diño, toki sakratua. Lopez Mendizabalek, beti lez, abereen bedarlekuak dala diño.

• • •

Forua: Latiñeko Forum’etik. Azoka.

• • •

Foruria: Foru edo azoka-lekua. Elantxoben.

• • •

Fradua: 1653’ean agertzen da. Bizkaian. Ez dakigu zer esan nai dauan.

• • •

Fuika: Fikan agertzen da: 1474

Lopez Mendizabal: Ota-antzeko landara bat.

• • •

Fuldain: Len Pildain. Amezketatik etorria. Leniz’en 1634.
Amezkatat batek eukan 1409.

• • •

Fullaondo: Marurin agertzen da: 1671 Bedarlekuaren ondoan esan gura dau.

• • •

Furundarena: Naparroatik Gipuzkoara sartu da eta orain Bizkaian dago, antza dagoanez, artzaiñak ekarrita.

Furunda izena eukan baten etxea esan nai dau. (Orion 1764)

• • •

Gabika: Gipuzkoatik etorria au be, baiña orain Lekeitio-aldean dabil. “Gabia” oletako maillua da, orduan olea dagon lekua esan nai dau. Tolosan 1346.

Gabilondo: Onen jatorria be gabia edo oletako maillua izan leiteke, eta “ondo” = alboan. Eibar'en agertzen da 1643.

• • •

Gabiña: Orduña-aldekoa da eta Bilbaon agertzen da 1654.
“Abi” edo arandanoak dagozen lekua da.

• • •

Gabiria: Bergaran egoan abizen au eukan jauntxu baten jauregia. Gipuzkoan eta Araban zabaldu da eta Ameriketan asko.

Jatorria “gabi” edo oletako maillua izan leiteke, edo “abi” arandanoak dagozan aldapa edo “iria”. Bergaran agertzen da 1463.

• • •

Gaintza: Gipuzkoakoa da baiña Bizkaiko Zeanurin be ba-dago, Iburguen auzoan. Mendi-gain asko dagon lekua esan nai dau. Mungian be badago. Zumaiian 1592.

• • •

Gainzarain: Gain asko dagon lekuko arana esan gura dau. Beasain'en dagoz iru etxe. (1786)

• • •

Galartza: Gipuzkoan geien eta Bizkaian be asko, zabal dago abizen au.
“Galar” asko dagon lekua da eta galarra otearen antzeko landarea. Azpeitiako batek dauka 1319.

• • •

Gallaiztegi: Azkueren ustez, “galla” goikoa da eta “-aitz-” atxa eta “-tegi” askorena.

1489n. urtean gaiso-etxe bat sortu eban gizonak abizen au eukan, Anzuolan.

• • •

Gallastegi: Au “Gallaiztegi”ren aldakuntza dala dirudi.

• • •

Galatabeitia: “Gallate” “allo”tik dator, “allo” abere-barrutia da. “-Beitia”, bera-go dagoana. Bizkaian 1766.

• • •

Gamboa: Gipuzkoakoa da, Ganboatarrak sortu ebazana bat. Bizkaian asko zabaldu da, Mungialdean be bai.

“Kanbo”ren antza dauko eta Mitxelena'ren ustez, latiñeko “campus”etik dator. 1620'ean agiri da Bilbaon.

• • •

Gamiz: Araban dauko erritxu batek izen au eta Bizkaian beste batek. Idazle bat dago Araban, antxiñakoa, izen onegaz.

“-ama-” abere-barrutia da eta “-iz” abizenen atziakia. Aurreko “g-” gero ezarria. Bizkaiko Gamiz'tar bat Albar Iñiguez de Gamiz, Baeza'ko gudan izan zan, 1212 urte inguruan.

• • •

Garzia: Asieran Naparroako erregeen etxean izena zan eta gero, abizen lez zabaldu da mundu guztira.

Jatorriz “Artza” da, “jartzea”. 1546n.urtean agertzen da Naparroako epaitegietan.

• • •

Gardezabal: Laudion agertzen da. Bilbaon 1673. “Garde-” Erronkaritik dator eta izan leiteke arte-lekua. “-zabal” argi dago.

• • •

Gardoki: Larrabetzun eta Bizbaon agertu da eta karduk dagozan tokia esan nai dau. 1791 ikusten da.

• • •

Garibai: Oñate-ondoan auzo bat eta an agertzen da abizen au 1323n. urtean. Jatorria “Garo-ibai”, ira artean doan ibaia.

• • •

Garitano: “Garo” irea da eta “-tano” toki-atzizkia. Bergaran agertzen da 1491n. urtean.

• • •

Garitaonandia: Zaldibarren torre-etxea. “Garita” eta “Onaindia” dira itz-zatiak.

• • •

Garmendia: Gipuzkoatik Zaldibarrera etorria. Gero Ameriketara. “Garo” irea dan ezkerre, iraz beterik dagon mendia litzake. 1632n. urtean agertzen da, Jerusalemgo Talde batera sartzeko.

• • •

Gernika: “Arno” sasia da, “G-” gero ezarria eta “-ika” toki atzizkia. Alkantaran 1649.

• • •

Gorostidi: Gorosti asko dagoan lekua. Gipuzkoatik etorria da.

• • •

Garro: Izan leiteke garra, sua, dagon lekua edo “arro” aldapea. “G-” gero ezarria da. 1589

• • •

Gaztanbide: Gaztaña-landarak dagozen bidea. Sara 1609.

• • •

Gatika: “G-” gero ezarria, “-ati-” “arti” edo “arte”, eta “-ka” toki- atzizkia.

• • •

Gazaga: Leniz’ko antxiñako gatz-iturrian, Zaldibar’en etxea, Mungian be bai. Gatza dagon lekua.

• • •

Gaztañaga: Gipuzkoakoa da. Gaztaña-landaran dagozen lekua. Seguran bizi zan bat: 1398.

• • •

Gaztelu: Erderazko “castillo”. Gipuzkoatik urten eta asko zabaldu da. Oñaten 1704.

Goiburu: Zumaian iru etxe. Goikoaren gorengo zatia da. Bilbao 1823.

• • •

Goikoetxea: Euskalerra osoan zabal. Goian dagon etxea esan gura dau. Alegi 1652. “Goiko” da zarragoa agirietan: Elorrio 1575, Oñate 1388.

• • •

Goikolea: Bizkaian dago, Larrabetzun asita eta Goiko burdin-ola esan nai dau. Bilbao 1769.

• • •

Goikouria: Arratian sortu da. 1728. Ez dauka zer-ikusirik “uri” erriagaz, emen “uri” mendi-aldapa da.

• • •

Goiri: Lezaman asita, Arrigorriaga, Zamudio, Gamiz... “Goiko iria” esan nai da, goiko aldapa. 1651. Bilbaon 1522.

• • •

Goiriena: Mungian dago geien eta Goiri abizena daukanaren etxea esan nai dau. 1743n. urtean agertzen da.

• • •

Goitia: Euskalerra osoan zabaldua. Aretxabaletan 1625. Navas de Tolosan 1212.

• • •

Goitisol: Gautegiz'en XII gizaldian. Goi-aldean dagon soloa eta onen barruan dan etxea.

• • •

Goienetxea: Larrabetzun dago etxe au. Baztan'en eta Zizen be ba-dago. Bermeon be bai.

Arlo baten goiena dan etxea. 1777.

• • •

Golzarri: Len Gorozarri 1625. Gorostiak dagozen basoa. Sarri Aramaiona 1625.

• • •

Gorospe: Gorostiaren aspian dagon etxea. Urretxu 1643.

• • •

Goroziaga: Zeanurin. Goroziak dagozan lekua. Navas de Tolosa 1212.

• • •

Gorostidi: Gipuzkoako Albiztur'en sortua da eta Bizkaian be ba-dago. Gorostiak edo "acebo"ak dagozen lekua, eta "-di" atzizkiak ugaritasuna dakar. Navas de Tolosa'n 1212n.urtean agertzen da.

• • •

Gorosarri: Aretxabaletan agertzen da 1625n.urtean.

Jatorria: "Goros-" acebo eta "-sarri" mintegia edo landarak dagozen basoa.

• • •

Gorrotxategi: Zegaman asi eta Gipuzkoa osoan. Andik etorri jaku Bizkaira. Lopez Mendizabal'en ustez, "Urretxategi"tik dator, eta urretxak dagozen tokia esan gura dau. Legazpian, 1475.

• • •

Gorroño: Gernika-inguruan sortua. Izan leiteke "Gorriño"ren aldakuntza. "-ño" txiki atzizkia da eta "gorri" margoa izan daiteke edo "orre-" sasia be bai.

• • •

Goti: Zeberiotik dator eta Elorri be ba-dago. Goiti'tik etorria da. Goi ulertzen da eta "-ti" toki-atzizkia da. Bilbaon 1782.

• • •

Goia: Naparroan eta Gipuzkoan. "Goi-argi dago eta "-a" len "-aga" izana. Seguran 1679. Oñateko baten abizena 1461.

• • •

Goiri: Lezaman sortua. Bilbaon agertzen da 1651.

"-iri"k "urrean" esan nai dau. Danak goitik urrean.

• • •

Goiria: Naparroatik Bilbao'ra ta Mexikora. "Goiri" bera da "-aga" gaiñeratuta. Goitik urrean dagon etxea. Bilbaon agertzen da 1379n.urtean. Mexikon 1522.

• • •

Goitia: Euskalerra osoan zabaldua dago.

"Goiti-" goia eta "-ti" toki atzizkia. "-a" mugatzaillea.

Navas de Tolosa'n 1212'an. Alarcos 1195.

• • •

Goitisol: Gautegiz-arteagan XII gizaldian sortua. Gero emen eta Ameriketara zabaldu da.

"Goian dagoan soloa" esan nai dau. Maltako zaldun bat 1703.

• • •

Golzarri (lenago Gorozarri): Aretxabaletatik dator. eta "gorostien sarria" edo mintegia esan nai dau. Aramaion 1725.

• • •

Gomendio: Berrizko murgoitio auzotik dator eta Gipuzkoara be zabaldu da.

"G-" gero ezarria da, "oma" bedarlekua, "-di-" ugaritasuna eta "-o" toki-atzizkia. Oñaten agertzen da 1720.

Gorozika: Tolosa'tik etorri da Bizkaira eta "goroztia" dau oiñarri. "-ika" tokia izendatzeko. Tolosar bat 1346.

• • •

Gorordo: Zeanurin eta Gatican. Itzak goroztia esan nai dau eta "-do" toki-atzizkia. Bilbaon 1726.

• • •

Gorosabel: Gabiriatik zabaldu da eta goroztiak dagozan zuloa esan nai dau. Bergaran 1587.

• • •

Gorostiaga: Aulestian eta Zeanurin. Gorostiak dagozen tokia esan nai dau. Tolosan 1598.

• • •

Gorostiza: zigoitian agertu zan. Orduan erri bat zan eta orain eleiza bat geratzen da. Gorosti asko dagon lekua esan nai dau. Gatzagan 1524.

• • •

Gorria: Ondarrabin agertzen 1625. Gizakiari ezarten jakon ez-izena da eta zer esan nai dauan argi dago: Margo bat. Tolosar batek eukan abizen au 1346n.urtean.

• • •

Gorrotxategi: Zegaman etxe bi, baita Garaikoa ta bestea Azpikoa. "G-" gero ezarria izan ezker, "Urritxategi" litzake eta urretx asko dagon lekua da: "-tegi" tokia ta ugaritasuna da. Legazpian 1407'an agertzen da.

• • •

Goienetxea: Baztan'en eta Benabarran agertu zan eta Bizkaira ta Gipuzkoara zabaldu.

Goren dagoan etxea esan nai dau. Ezkiogan 1470.

• • •

Goioaga: Zeanuritik dator eta "Goio" ez da besterik "Goia" aldatua baiño eta azkenengo "-aga" toki-atzizkia. 1672n.urtean badabil.

• • •

Gebara: Naparroan agertzen da 1134n.urtean eta gero Araba zabaldu. XII gizaldian toki askotan agiri da.

"G-" gero ezarria da eta "-ebar-" irea, orduan irea dagon lekua da.

• • •

Gerena: Mallabian dago auzo bat eta "-aran-"egaz daukola zer-ikusia diño Lopez Mendizabal'ek, beste batzuk "Geraren etxea" dala diño.

• • •

Gereka: Arrietatik asita, Mungialdean zabal dabil.

Irea dagon tokia da eta 1734'an Bilbaon agertzen da.

• • •

Gerekiz: Morgan dago auzo bat eta andik zabaldu da. Irea dagon lekua esan gura dau eta "-iz-" abizenaren ezaugarri da.

• • •

Gisasola: Eibar'etik zabaldu da.

"G-" gero ezarria da eta -isas-ote antzeko landarea, retama. Azkenenko "-ola" k ugaritasuna adierazten dau. 1664n.urtean agertzen da.

• • •

Gizaburuaga: "G-" gero ezarria. "-iza" zia edo "junco" da eta "Burua" gaiñean dagoana. Orduan "Zien gaiñean dagon tokia".

1708n.urtean Elorrion agertzen da.

• • •

Guridi: Legazpian asten da eta Gipuzkoan zabaldu.

“G-” gero ezarria da eta -uri-irea. “Azkenenko “di” ugaritasuna. 1654’an Arrasaten.

• • •

Gurpegi: “G-” gerokoa da, “-egur” sutarako zura, “egi” tokia. “Sugarria dagon tokia: “-pe” azpian dagon egia Santiagon 1702.

• • •

Gurtubai: Atxondon. “G-” gerokoa dala, “urtu” garagar antzekoa da eta “-bai” tokia.

Elorrion agertzen da 1685.

• • •

Gurrea: Naparroatik urtena da baiña Soriara zabaldu eta an agertzen da 1134n.urtean.

“G-” gero ezarria da eta “-urre-” urretxea, eta “-aga” toki-atzizkia.

• • •

Gurrutxaga: Zumarragan dagoz etxe bi eta andik Gipuzkoarik geienara zabaldu da. Gero Indietara.

Gurutzeaga dagon lekua esan nai dau. Beste batzuk “urretxa” dala diñoe jatorria, Aurretik “G-” proteika ipiñi eta “-aga” toki-atzizkia.

• • •

Haro: Bizkaiko jaunen abizen onek badauko zer-ikusia Errioxako Aro’gaz, XII gizaldian.

Garo irea da eta ortik dator abizena. Navas de Tolosan 1212 urtean agiri da.

• • •

Yandiola: Gueñesen eta Okendon agertzen da 1668 urtean.

“Y-” geroago ezarria da eta “-andi” bedarlekua, “-ola”k atzizkia danean ugaritasuna dager.

• • •

Yartza: Lekeition sortua da baiña Gipuzkoara zabaldu da geiago. “lar” erdezazko “arce” da eta “-tza-” asko dagon tokirako atzizkia.

Urretxun agiri da 1322n.urtean.

• • •

Ibabe: Aramaionakoa. Izan leiteke ibarraren be-aldekoa edo ibaiaren be-aldekoa. Aramaionan 1750.

• • •

Ibaibariaga: Markiñan 1772’an.

“Ibai-” errekea, “-barri-” tokia eta “-aga” toki-atzizkia. “Ibaiaren ondoan dagon tokia”.

• • •

Ibarbengoetxea: Gamiz’en dago etxea eta “Ibarrean berengo dagon etxea” esan nai dau. Balladoliden 1815.

• • •

Ibargarai: Arrazolan dago. “Ibarraren goialdean dagon etxea” esan nai dau. Bilbaon 1728.

• • •

Ibarguen: “Ibar-”beko lurralde zelaia da eta “-guen” “-goien”etik etorria. Bien artean “Ibarraren goi-aldean” dagon etxea edo soloa.

Zeanurin dago etxe bat eta Fruniz’en beste bat. Gero jauntxu ganboatarren ostean zabal.

1397n.urtean Getariar baten abizena. Azkoitian 1415.

• • •

Ibargutxi: Ubidean dago geien eta andik zabaldu da Zeanurira ta Legazpiarra. Ibar txikia esan nai dau.

• • •

Ibarluzea: Azpeitian eta Arrasaten, Gipuzkoan, eta Markiña-aldetik zabaldua Bizkaian. Arrasaten 1535 Azpeitian 1570.

• • •

Ibarzabal: Gipuzkoan zabal eta Bizkaian be asko. Be-aldeko lur zelai zabala esan nai dau. Eibarren 1624.

• • •

Ibarra: Bizkaian erririk geienetan dago auzoren bat eta Gipuzkoan: Eibar'en bi, goikoa ta bekoa, eta erri askotan. Araban aiala-aldean eta Benabarran, Nabarra;ko Leizan. Be-aldean dagoan lur zelaia da. Elgeta 1491.

• • •

Ibarrola: Aialan eta Bizkaian. Ibar asko dagon tokia, baiña ibarreko olea. Getaria 1391.

• • •

Ibisate: Laminoria Araban. "Ibi-" errekea da eta "-ate" sartzeko oinbidea. Balladolid 1789.

• • •

Ikaza: Erandion. Iko-landarak dagozen lekua. Elorrio 1680.

• • •

Ikaztegieta: Tolosan eta Bizkaiko Arrietan. "Ikatz dagon lekuak". tolosan 1346.

• • •

Izeta: Aian bi, garaikoa ta azpikoa. "Izai" erderazko "abeto" da eta "Izeta" ola-koak dagozen lekua. Edo izak (junto) dagozen lekua: "Juncal". Getarian 1474.

• • •

Idigoras: Gipuzkoan, andik Bizkaira: Ira-arloaren goiena esan nai dau. Oñaten 1348.

• • •

Idoiaga: Gipuzkoan eta Bizkaiko Ereñon. Irak dagozan lekua. Idoi: Nabarra 1279.

Igartua: Gatican eta Zeanurin. Legortua edo sikatua esan nai dau. Ondarrabin 1661.

• • •

Illarramendi: Tolosan iru: Goikoa, bekoa ta erdikoa. Otez betrik dagoan mendia esan nai dau. Isasti 1625.

• • •

Imatz: Lenengo Lazkaon eta gero Durangon. Mimenak dagozan lekua da eta Oñaten agertzen da 1596n.urtean.

• • •

Intxaurraga: Abizena Zeanurin eta etxea Fikan. Intxaur-landarak dagozan lekua esan nai dau. Bilbaon 1785.

• • •

Intxaurbe: Orozkon eta Arratian. Intxaur-landarearen azpian esan nai dau eta Bilbaon 1769 agertu.

• • •

Intxausti: Natxitun, Algortan, Gatican eta Gipuzkoan zabal. Intxaur-landara asko dagon lekua da. Balladolid'en 1614.

• • •

Indurain: Naparroan zabaldua. Andurain'etik etorria da. Bedar-lekuaren gainean.

• • •

Intza: Berastegin. "Inz" edo "junko'ak dagozan lekua. Urretxun 1620.

• • •

Iparragirre: Irun'en asi eta Gipuzkoa guztian. Elorrioren be bai. Iparrera zabalik dagoan etxea edo iparraldeko bedar-lekua. Donostian 1566.

Ipiña: Zeanurin eta Arratian. Gamiz'en be bai. "Mimena dagon lekua" esan gura dau. Len "Ipiñaga".

• • •

Iratxe: Naparroan. Irea edo iretza.

• • •

Iraola: Naparroan. Irea edo iretza.

• • •

Iraola: Gipuzkoan zabal, Bizkaian gitxi. Ira asko dagon lekua esan gura dau. Azpeitian 1603.

• • •

Iraolagoitia: Gipuzkoan eta Markiña-aldean. Iraola etxearen goitik dagoana. Elgetan 1787.

• • •

Irarragorri: Gipuzkoatik Bizkaira etorria. Tolosan 1625. "Irarra-" otea da eta "-gorri-" utsa edo margoa. Eibar'en 1615.

• • •

Irastortza: Gipuzkoatik Burgos-aldera zabaldu da.

Iratxetik dator eta "-tor-" "orretarako dan lurra" esan nai dau eta gero "-tza-" ugaritasunaren atzizkia: "Irea emoteko diran lurrak". Antzuolan 1620.

• • •

Irasuegi: Eibartik dator eta "irasu" lez "ira asko dagon egia edo aldapa" esan nai dau. Aramaion 1741. Arrasaten 1530.

• • •

Iraurgi: Dima'ko Lamindanon. "Ira-" argi dago eta "-egi" be bai. Irea dagon aldapa edo tokia. Arrasate 1415.

• • •

Irazabal: Bergaran eta Elorrion. "Iraleku zabala" esan nai dau. Elgetan 1415.

• • •

Irazola: Abadiño-aldean. "Iratza-" ira asko dagon lekua eta "-ola" k toki ugari-tua adierazten dau.

• • •

Iriarte: Naparroan sortu eta Gipuzkoara igaro da, Bizkaian eta Laburdin be ba-dago.

"Iri" edo "Uri", mendi aldapa edo ura erreka batera daroan arloa da. "-arte" k uri biren bitartea agertzen dau. "Iri" edo aldapa biren bitartean dagon etxea. Ez da "iri" edo billa diranen bitartea. Irun 1500.

• • •

Iribar: irak dagozen ibarra. Gipuzkoan sortua ta zabaldua.

• • •

Iribarne edo iribarren: Iribarne iparraldekoa da eta "irea dagon tokiaren barrena" esan nai dau eta Iribarren Egoaldean esangura bardiñagaz. Lezon 1623.

• • •

Irigarai: Berastegin torre eta andik Ameriketara. "Goian dagon aldapa edo ira-lekua da". Lezo 1648.

• • •

Irigoien: Iparraldetik eta naparroatik Ameriketara. Goian dagoan ira-lekua da. Urretxu 1463.

• • •

Iriondo: Oiartzundik urten eta Gipuzkoan zabaldu zan. Gaur Bizkaian be zabal dago.

Zati bi ditu: "Iri" eta au izan daiteke "ira-"tik edo "iri-"tik sortua. Nik "iri-"tik esango neuke eta orrela "aldapa ondoan dagoana" litzake. Azpeitian 1627.

• • •

Irizar: Gipuzkoan erri askotan eta Bizkaian Gauegiz-Arteagan 1759.
“Iri-” aldapa lez artu ezker, “-zar-” lengo “sarri” edo zugaztia litzake. Orrean
“ira asko dagon basoa”. Urretxun 1558.

• • •

Iruarizaga: Bizkaiko igorren, musakalaria. Mitxelenak “iru arri”tik datorrela
diño. Lopez Mendazabalek ezetz. “Iruar” irea da eta “-tza-” ugaritasuna. “-i-”
betegarria. Orduan: “Ira asko dagon tokia”.

• • •

Irujo: “-so” ugaritasuna da, “Irujo ira asko dagon tokia”
Naparroan agertzen da geien, 1560n.urtean asita.

• • •

Irulegi: Benabarrako Baigorri asten da. Gero Gipuzkoara. Irak dagozan egia
edo aldapa da. Errexilen 1650.

• • •

Isasi: Eibarren torrea, andi Goi-debara, Bizkaiko Gamizera eta Aialara. “Isats-”
ota antzeko landara bat da eta “-i” toki atzizkia. Eibarren 1527. Arrasaten 1461.

• • •

Isasmendi: “Otaiz beterik dagon mendia. Arrasaten 1530.

• • •

Ispizua: Azkoitian. “Izpi” landara bat, “acerolillo” “-tzu-” ugaritasuna eta “-a”
mugatzaillea.

• • •

Iztueta: Lazkanon. “Izak” edo “junkoak” dagozen lekua edo bide estua asten
dan lekua. lazkaon 1309.

• • •

Izuzkitza: Isuts ote-antzeko landarea da eta “-ki” gai ori adierazteko, “-tza”
ugaritasuna: “Ota-landara asko dagon lekua”.

Bizkaian Plentzian dago auzoa eta Gipuzkoan Zumarraga-aldean. Zumarra-
gan 1468.

• • •

Ituarte: Markiñatik Arrasatera.

“Itu-” sasia eta “-arte” bitartea. “Sasi-artean dagoan tokia”. Elgoibarren 1649.

• • •

Iturbe: Bergara-inguruan. “Iturriaren barrenean dagoana”. Arrasate 1417.

• • •

Iturraran: Iturri-ondoan dagoan arana.

• • •

Iza: Ziriak edo ziak dagozan lekua. Oletatik Mendarora eta Dimara. “Iz-” ziria
edo “zia” eta “-tza” ugaritasun atzizkia. Tolosan 1711.

• • •

Yurre (Yurreta): Arratian erria (eta Durango-aldean). Iñok ez daki argi zer dan.
Nire ustez “Irure” da, irak dagozan lekua (edo lekuak). Gero “Igorre” esaten jako
bertan, auzo baten lez. Balladoliz 1549.

• • •

Izagirre: Gipuzkoan eta Araban. Mungian be bai. Zumarragan 1383.

Izak eta ziak dagozan Agirre edo bedarleku zabala.

• • •

Jakakortajarena: Jatorrian bi dira: “Jaka” “-i-” zia eta “Kortajarena: “-korta-”
abereen egonlekua eta “-ja-” toki-atzizkia. Gero norena dan diñon atzizkia. Dana:
“Ziak dagozen lekuan dagoan kortaren ugazabak dauan etxea.

• • •

Jauregi: Euskalerrri osoan zabal-zabal. "Jaunaren egia" edo tokia, etxea, esan gura dau. Bergaran 1415.

• • •

Xabier: Jatorrian ez dakigu zer zan, baiña gero ulertu zanez "Etxaberri" da. Gero erderaz sarritan lez "e" "ie" biurtzen da, lenengo "e-" galdu, azkenengo "-i" be bai eta geratzen da "Txabier" edo "txaber".

• • •

Jimenez: Jatorri euskalduna dauka, Naparroan, erregen artean. Seme txikia "semeno" edo "xemeno". Ortik errez Jimeno, eta beste izen askotan lez "-ez" Bilbaon 815.

• • •

Labairu: Naparroan eta Bizkaian. Ez dago argi esangurea. 1716n.urtean naparroan agertzen da.

• • •

Labandibar: "-lbar" be-aldeko bedarlekua da eta toki ori bide labanaren ondoren ba dago, "Labandibar" litzake ango etxearen izen egokia.

• • •

Labarrieta: Len Olabarrieta zan eta burdin-ola barriak egin diran tokia da. Balladolid 1797.

• • •

Latxaga: "L-" gero ezarria da eta "Atxa-" Bizkaian aitzia. "-ga" mugatzaille sendotua. "Aitzean dagon etxea" litzake Bizkaian. Edo obeto "lats" errekatxua dala.

• • •

Lamarain: Elgetan dago 1573.
-amar- otearen antzeko landarea da eta "-ain" gaiñean esan nai dau: "Lamaragain".

• • •

Lanbreabe: Zeanurin, 1796. "-anbere-" landara bat eta "-be", berago dagon etxea.

• • •

Landa: Aialako Kexanan agertua da, Araban zabal gero egoalde osoan. Bedar-lekua da eta Europa guztian dago zabal: Irlanda, Islandia, Jutlandia, Doichland... Zeltak zabaldu eben itz au, antza. Ataun'en 1399.

• • •

Landaburu: Aialan eta Gipuzkoan. Gaur Egoalde osoan. Landearen goialdean dagoan etxea esan nai dau. Zumarragan 1498.

• • •

Landeta: Aialan agertzen da. Fikan dago etxe bat. Oñaten 1416.
Bedar-leku asko dagon ingurua da.

• • •

Landazuri: Aialan eta Gasteiz-aldean. 1625 Santiago'ko Zaldun bat. Ez dago argi "-zuri" zer dan.

• • •

Landetxo: Mungian goikoa ta bekoa ta errotea. "Landa-" bedarlekua da eta "-txo" txikia. 1550n.urte inguruan Mungian bizi ziran.

• • •

Langarika: Kanpetzu-aldean eta Bizkaian. "Langara-" ez dakigu zer dan, "landa"ren antzekoa. "-ika" toki-atzizkia da. 1647n.urtean Balladolid'en

• • •

Lardizabal: Seguran, Zegaman eta inguruetan. Gero Mexikon. "Larre" badarlekua da, "-di-" askorena eta "-zabal" leuna. "Bedarleku asko dagozan leku idegia". Seguran 1643.

Lariz: Berrizen eta Elorrion etxeak. Arratian be bai. Beti Bizkaian. “-Aritz” izan daiteke erroa, gero aurrean ezarria “-l-” eta “-iz” abizena sortzeko. Beste batzuk “-ara-” irea eta “-itz” tokia dala diñoe. Tolosan agertzen da abizena 1346n. urtean.

• • •

Lartaun: Oiartzun’en, andik Txile’ra. Erroa: “Larre-” gero “-eta”, askorena eta “-un” toki-atziakia.

• • •

Lartitegi: Ibarrangelun. Larrak edo sasiak, “-ti” ugari dagozen aldapa.

• • •

Larzabal: Oiartzun’en eta Iparraldean. “Sasitza zabala” esan nai dau. Ondarrabin 1630 eta Tolosan 1618.

• • •

Larrabe: Lezaman eta Laudion. Bedarlekuaren eta larraren barrenean esan gura dau. Bilbao 1654.

• • •

Larrabeiti: Lemonan asi eta Ameriketara zabaldu, Euskalerrri osoan, batez be Bizkaian. Bedarlekuaren beko aldean.

• • •

Larrakoetxea: Bizkai osoan. Zeanurin anai idazleak. “Bedar-leuaren barruan dagoan etxea” esan nai dau.

Bilbaon 1750.

• • •

Larragan: Errigoitik utena da eta gero Bizkaian zabaldu da, Mungian, Gati-kan, Gerrikatz’en. Bedar-lekuaren goian esan gura dau. Errigoitin 1550.

• • •

Larramendi: Gipuzkoan eta Iparraldean. “Abereentzat bedarra daukan mendia” esan gura dau. Azkoitin 1404.

• • •

Larrañaga: Bergaran asi eta Gipuzkoa osoan. “Larra edo bedar-lekuaren gainean dagoan lekua edo etxea”. Astesun 1619. Ala “larrain” garia joteko lekua?

• • •

Larraona: Naparroan. “-ona” toki atzizkia da. “Bedar-lekua dagon tokia”.

• • •

Larrauri: Mungia’ko Larrauri auzoan eta Bizkai osoan. Bedar-lekua dagoan aldapa esan nai dau. Bizkaiko batzarretan agertzen da 1689.

• • •

Larrazabal: Bedar-leku idegia edo zabala esa gura dau eta Bizkaian erri askotan dago. Getxon 1393 eta Elorrion 1533.

• • •

Larrea: Euskalerrri osoan zabaldua. Bedarlekua edo landea eta abereentzat barrutia esan nai dau. Arrasaten 1461.

• • •

Larreategi: Bedar-lekuak dagozen tokia esan nai dau. Gipuzkoan be badago baiña Elorrio da sorlekua: 1524’an egin zan bakea etxe onetan, gaur Jaime Kerexeta’ren arrebearena da.

• • •

Larreta: Bedar-lekuak dagozen tokia. Gipuzkoan eta Naparroan zabaldu zan lenen. Gero Bizkaian. Alegin 1650.

• • •

Larrinaga: Lenengo Bizkaian eta gero Araban. “Larriña” erderazko “era” da, garia garantzeko tokia. Eta abizen onek toki orretan dagoan etxea adierazten dau. Oñaten 1461.

• • •

Larrinoa: Zigoitian. Garia joteko leku txikia esan nai dau. Malta'koen batzarrean 1603.

• • •

Larrondo: Orozkon eta Bizkaian. Gero Iparraldean. "Larraondo"tik aterea da eta "bedar-lekuaren ondoan" esan nai dau.

• • •

Larruzea: Bizkaian "Larre" bedar lekua da eta gero "-luzea" argi dago.

• • •

Larruskain: Bizkaiko ainbat lekutan. "Bedar-lekuaren gaiñean" esan gura dau.

• • •

Lasa: Gipuzkoan eta Iparraldean. Naparroan 1.308. "Lats-" errekatxua da eta "-a" mugatzaille sendoa.

• • •

Laspiur: Bergaran. "Lats-" errekatxua da, "biur" oker, dana: bide okertutik doan errekatxua".

• • •

Lasuen: Berriz en eta Zornotza-inguruan. "Lats-" edo errekatxuaren goian". Elorrioren 1631.

• • •

Lauzirika: Zeberio-aldean. Gamiz'en etxe bat, Laurika. "-azur-" sasia" izan ezker eta "l-" gero ezarria, "-ika" toki-atzizkia. Sasia dagon lekua litzake.

• • •

Lazkano: Jauregia Lazkaon. Oñaztarren buru izan ziran. 1053n.urtean Elorrio'ko Agustin Deunari emoitza. "Azkiak edo "gramak" dagozan tokia. "L-" gero-koa, "-azki gramak eta "-ano" toki-atzizkia.

• • •

Leaniz: Elorrioren Leitz. "-ean" zi edo junco. "L-" gero ezarria eta "-iz" abizena sortzeko. Elorrioren 1525.

• • •

Lekanda: Areatza-Billaron eta gero Arabara. Otea dagon lekua. Bilbaon 1645.

• • •

Lekunbarri: Gordexola, Orozko. "-Eku-" otea da eta -Barri-leua, "-l" gero ezarria. "Otea dagon lekua". Larraun 1265.

• • •

Lekuona: Gizpuzkoan zabal, Oiartzunen en asita. "Leku" otea dala eta "-ona" toki-atzizkia "-otea dagon tokia". Baiña "leku" ez da tokia. Azkoitian 1567.

• • •

Legarda: Mungian auzo bat. Euskalerrri osoan be bai. Tokia esan nai dau, baiña zer de "legar-"? Leizar? Santiago'ren zaldunak: 1643.

• • •

Legartza: Leizar asko dagon lekua.

• • •

Legarreta: Lejarreta'tik etorria dirudi eta orrela "leizarrak dagozan tokia litzake. Bizkaian.

• • •

Legorburu: Orozkon, Bilbaon eta Gabiriain. "Lur legor edo liorraren burua" esan nai dau. Bizkaiko batzarretan, 1640.

• • •

Legina: Larrabetzun. "Egino"ren aldakuntza da eta "Egino" "agino"tik etoria. Agin landara bat da. Ortik "aginaga".

• • •

Leitza: Gipuzkoan eta Napparroan eta ortik Bizkaira. “Leiza” koba izan daiteke baiña ziurrago “iza” “junco”tik eta aurreko “L-”gerokoa. Tolosan 1346.

• • •

Leizaola: Leiza edo koba asko dagon aldapea. Zestona'n 1630.

• • •

Leizaur: Leizaren aurrean dagoana. Deban 1640.

• • •

Lejarazu: Arratian sortua. “Leizar asko dagon tokia” esan nai dau. “-tzu” atzizkiak ugaritasuna, asko. Bilbaon 1825.

• • •

Lejarzegi: Ibarruri, Bermeo eta Berriz'en agertu da eta Burgos'ko Salas de los Infantes'era be eldu. Gueñes'tik urtena dala be badiño. “Leizar-(fresno) “-tza“-askorena eta “-egi” aldapa: Leizartza asko dagon aldapa. Bermeo 1728.

• • •

Lejardi: Gamiz'en Goikoa ta Bekoa, Markiñan. “Leizar asko dagon tokia. Bilbao 1654.

• • •

Lejartza: Gueñestik urtena, 1695n.urtean Mexiko'n. Leizar asko dagon tokia. Balladolid 1695.

• • •

Lemona-Lemoniz: “l-”gero ezarria da eta erroa “-emana-” bearlekua. “-ona” toki-atzizkai. Beste batzuk diñoenez “Lemo dertxon baten soloa esan nai dau. Lemoniz bardin, baiña azkenenko “-iz” ugaritasuna da.

• • •

Lentxundi: Aian eta Donostian, andik Bizkaira. Lertxun edo “alamo” asko adierazten dau. Donostian 1595. Elgoibar'en 1462.

• • •

Letona: Zigoitian, Orozkon eta Diman. “Eleta” bedartza eta “-ona-” toki-atzizkia. “L-” gero ezarria da. Eskoriatzan 1606.

• • •

Lezama: Araba'ko Lezaman eta Aialan. Andik Arratiara. “Leiza baten ondoan dagon zelaia esan nai dau, baiña beste batzuk iz-junco dala erroa diño. Balladolid 1562.

• • •

Lezamiz: Fruniz'en etxea. lezama berbatik ei dator eta azkeneko “-itz” abizen biurtzeko ezarria.

• • •

Libarona: Gatican. “L-” gero ezarria dala, “-ibar-” eta “-ona” toki atzizkia: “Ibarra dagon tokia”.

• • •

Linaza: Bizkaikoa da. Liño asko dagon lekua esan nai dau. Aramaionan 1789 Linazasoro.

• • •

Lizardi: Tolosa-aldean. Lizar asko dagon tokia. Donostian 1613.

• • •

Lopategi: Lopa'tarrak dagozen etxea. Bizkaian 1593.

• • •

Loiarte: Azpeitian, loi edo lupetz-artean. 1570.

• • •

Llaguno: Menagarain eta Artzentales'en agertzen da. “-agon” artatxikia da eta “-uno” toki atzizkia. “Artatxikia (miko) dagon lekua.

• • •

Llona: Gamiz eta Mungian. “-allo-” bedar-lekua da eta “-ona” toki-atziakia. Mallona be bardin. Balladolid’en 1806.

• • •

Madariaga: Bizkai guztian dago zabaldua eta Gipuzkoan be bai. Madari-landare dagoan lekua. Gabirian 1462.

• • •

Madarieta: Elorrion asi da eta madari-landara asko dagon lekua da. Elorrion 1575.

• • •

Madina: Oñaten, 1585. Ez dago argi zer esan nai dauan, baiña ba-dirudi “magina” zala lenago eta “agina” erderazko tejo, litzake sustraia.

• • •

Maguna: Ibarrurin, iru etxe eta abizena 1658. Sustrai “-agina” ei da erderazko “tejo”. Ori dagon lekua.

• • •

Mallona: Fruniz’en eta Bilbaon. Mallo izan leiteke mendi-mailla eta “-ona” tokia. Maillak dagozen tokia. Edo “-allo” bedar-lekua.

• • •

Mandaluniz: Fruniz’en auzo bat, Mungiara be zabaldua. “-abda-” bedar-lekua. Beste batzuk Mendi-illun diño eta iz abizena sortzeko ezarria.

• • •

Manterola: “-ola” askoren atzizkia da baiña “manter-” ez dago argi zer dan. Zarautzen 1603. Getarian 1404.

• • •

Mañarikua: Mañari erri-izena eta “-ko” nongo atziakia.

• • •

Markaida: Mungian auzo bat. “-Alkai-” “bedar-lekua” da. Arrasaten leiñargi zala agertu eban batek 1657n. urtean eta Mungia’koa zan.

• • •

Markaida: Mungian auzo bat. “-Alkai-” “bedar-lekua” da. Arrasaten leiñargi zala agertu eban batek 1657n. urtean eta Mungia’koa zan.

• • •

Mardaratz: Mungialdean. “-arda” bedar-lekua da. “-aratz” toki atzizkia eta “m-” geroago ezarria, Bilbaon 1758.

• • •

Martikorena: Mungian eta Gamiz’en baiña Baztango Errazu’tik etorria. Martintxurena (etxea) esan gura dau. Iruñian 1792.

• • •

Maruri: “Mara-” bedarlekua da. Ortik “barazar”. “-Uri”. mendi-aldapa. Orduan, “mendi-aldapan dagoan bedar-lekua. Balladolid’en 1556.

• • •

Maskarua: Arrietan etxea, Gamiz’en Maskaruene. Bakion be etxea. “Arce”ak dagozen lekua: Azkar=arce. “M-” gero ezarria da..

• • •

Masustegi: Sasietan masustak edo “morak” dagozen lekua.

• • •

Maurolagoitia: “Maurola-”k ira-tokia esan gura dau: “M-” gero ezarria eta “-aro-” edo “garo”irea. “-ola” asko dagozan tokia da.

• • •

Meabe: Markiñan. Bilbaon 1664. Meatoki edo mineralak dagozen lekuaren barrenean.

• • •

Mekolaeta: Bizkaikoa da. Azkoitian “Mekolaeta” agertzen da 1625n.’ean. “Meko” sasia da eta ugaritasuna agertzeko atzizki bi: “-ola-” ta “-eta”.

• • •

Mentxaka: Mungialdean geien. Okendon eta Oñaten be bai. “M-” gero ezarria da eta “-enza” landea. “-Ka” toki atzizkia. Landea dagoan lekua da. Oñaten 1579.

• • •

Mendezona: “M-” gero ezarria. “-enda-” bedar-lekua eta “-az-”, “-ona-” toki atzizkiak. “Bedar-lekua dagon tokia”.

• • •

Mendi: Argi dago esan naia. Azpeitian agertzen da 1348n. urtean. “Mendia” Naparroan 1265.

• • •

Mendibil: Ganboan, Aialan, Zigoitian. Mendi biribilla esan nai dau, edo mendi batuak. Tolosan 1346.

• • •

Mendiguren: Arrietan eta 1544 Muxikan. “-guren” izan leiteke muga edo goia-aldea.

• • •

Mendizabal: Gipuzkoa osoan ugari. Gaiñe zabala dauan mendia esan gura dau. Ezkiogan 1411.

• • •

Mendoza: Laudion asi ziran. Arabatik etorriak. Sestaon, Bermeon, Arrietan, Gamiz’en, Fikan, Fruniz’en Mentze eta Mentzene etxeak dagoz. Bilbao 1663n.urtean Fika’ko baten abizen au. 1668 Arrieta’ko batek. 1212n.urtean Tolosako Nabetan be agiri da. Otz egiten dauan mendia dirudi..

• • •

Mitxelena: Etxea norena dan agertzen dau, Mitxel’ena. Oiartzun’en 1804 eta Larraun’en 1624.

• • •

Mimenza: Mimen asko dagon lekua. Igorren 1736. Donostian 1568.

• • •

Mintegi: Tolosan agertzen da eta landara gazteak dagozen tokia esan gura dau. Arrasaten 1650.

• • •

Mokoroa: Tolosa’n. “-oko-” sasia, “M-” gero ezarria, “or-oa” toki atzizki bi.

• • •

Monasterio: Arrietan etxea dago. Gero asko zabaldu da. Izen ori emoten jaken baselezai edo onein arduraduna bizi zan etxeari. Ori erdiaroan. Elorrion 1548.

• • •

Mugarrieta: Muga euskal-itza da, “-arri-” argi dago, “-eta” toki atzizkia. Munarriak dagozen lekua.

• • •

Muniategi: Bizkaikoa da. Ibai-ertzak (munak) dagozen lekua.

• • •

Muñoa: “Muño” (ortik erderazko moño eta euskerazko boina), mendi txikiaren kapelea da. Oñaten agertzen da 1484.

• • •

Murgia: Oñaten 1420. Mungi muru-egi’tik dator eta menditxua edo ornea dagon lekua izan leiteke.

• • •

Murua: Naparroan eta Azkoitian 1320. Muru edo buru, menditxua da. 1400n.urte inguruan zabal dabil.

Muruaga/Buruaga: Menditxua dan lekua esan gura dau.

• • •

Nabarra: “Naba”goian dagon leun-unea da. Gitxiago esaten da “Nafarroa”. Nabaran bizi dana “nabarra” litzake. Geienetan Naparroa esaten jako. 1500 inguruan agertzen da abizen lez.

• • •

Naberan: Natxituan agertua, 1756. “Karraskak dagozan arana edo ibarra da.

• • •

Nardiz: Mungian dago, Bermeo’tik etorrita, Elorrion agertzen da 1648. “Aritz”en aldakuntza bear ba’da.

• • •

Oar: Bizkaian eta Araban dago. “Oa” bedar-lekua da. Ota-lekua be izan leiteke.

• • •

Obieta: Bizkaikoa da. “obi-” zuloa da eta “-eta” askoren toki-atzizkia. Zulo asko dagon tokia.

• • •

Okariz: Arrasate-inguruan. “Oka-” sasitza da eta “-itz” ugaritasun atzizkia. Sasi asko dagon lekua.

Iruñan agertzen da 1564 eta Balladolid’en 1549. Oñatiar baten abizena da 1461.

• • •

Ozerin: Zeanuritik urtena, “Ozer-” sasia da eta “-in” ugaritasun atzizkia. Elorrion Zeanuriko bat 1618.

• • •

Otxandiano: Otxoa aundiaren etxea. Arrasateko bat agertzen Balladolid’en 1530.

• • •

Otxoa: Gipuzkoan agertzen da, gero Karrantzan, Gasteiz’en. Lenago izena zan eta otsoa esan nai eban. Donostian 1566n.

• • •

Odiaga: Aialan eta Busturin. “Odi-” mendi-zuloa da eta “-aga” toki atzizkia. Zuloa dagoana.

• • •

Odrizola: Azpeitian. 1642. “Odriz-” edo “odi” zuloa. Orrelan, zulo asko dagon lekua. Motrikun 1567.

• • •

Ojanguren: Elorrion etxe bi. “Oian” basoa dan ezkerre, “-guren” goialdea, dan lez, baso edo zugaztiaren goi-aldean dagoana. Elorrion 1575.

• • •

Ojinaga: “Osin-” ur geldia (pozo) da eta “-aga” mugatzaille sendotua. Ur geldia dagon tokia. Bilbaon 1743.

• • •

Olea (Oleaga): Burdin-ola dagon lekua. Larrabetzun, Morgan, Arrasaten 1598.

• • •

Olazar: Toki askotan izen au dauken etxeak. Muxikan jatorri bat. Burdin-lantegi zarra esan nai dau. Muxikan 1560.

• • •

Olea: Seguran. Burdingintza. Elorrion errotea be esan gura dau.

• • •

Olalde: Elorrion eta Gipuzkoan. Olearen ondoan dagoana. Elorrion 1536.

• • •

Olabarria: Euskalerra osoan. Burdingintza-toki barria da Bergaran 1588. Arrasaten 1475. **Olabarrieta.**

• • •

Olagorta: Deustun 1524. Olea ta abere-lekua batera daukazen etxea. Gamiz'en auzoa.

• • •

Olague: Burdingintza dagoan tokia. "-gue" "-gune"tik dator eta tokia da.

• • •

Olagibel: Segura 1433. Olearen atzeko aldean dagoan etxea.

• • •

Olaizola: Gipuzkoan eta Bizkaian. "Olaitz'en dagoan burdindegia, eta "Olaitz-" Oleak dagozan lekua.

• • •

Olalde: Gipuzkoan, Zaratamon, Elorrion, Mungian eta abar. Olea dagon aldea edo lekua esan gura dau eta Bergaran 1450n. urtean agertzen da.

• • •

Olano: Gipuzkoatik Bizkaira. Ola txikia esan gura dau. Azkoitian 1455.

• • •

Olariaga: Gipuzkoatik zabaldua. Olaria edo olearen arduraduna bizi dan etxea. Arrasaten 1430.

• • •

Olarra: Elorrion 1589. "Olar-" otea da eta Olarra ota-lekua, bardin Olarra.

• • •

Olasagasti: Olearen ondoan dagon sagardia. Gipuzkoan geien. Urretxun 1635.

• • •

Olaso: Elgoibarren jauregia. Bergaran 1293. Ola aundia esan nai dau: "-so" aundi -atzikia da.

• • •

Olazabal: Burdingintza-leku aundia. Ezkiogan 1420.

• • •

Onaindia: Bizkaian eta geien Markiñan. "Oian-" eta "aundi" batuta izan leiteke eta "baso aundia" esan gura dau. Bilbao'n 1759.

• • •

Ondarroa: Ondarra edo area ugari dagon lekua "-oa" toki-atzikia da.

• • •

Oña: Burgos'ko iparraldean dago erria eta an XIV gizaldian an euskera egiten zan. Mungialdeko Meñakan be ba-egozan. "Mendiaren oiña" esan nai dau. Seguran 1374.

• • •

Oñarte-Etxebarria: Mendi oiñen artean dagoan etxe barria da. Legazpian 1383.

• • •

Oñatibia: "Oiñ-Ate-Ibia" "Mendi-oiñen artean pasa-lekua" Seguran 1390.

• • •

Okiña-Okiñena: Ogi-giña dagon lekua ta onen etxea.

• • •

Orbe: Gipuzkoan, batez Bergara-aldean eta Bizkaian leku askotan. Arrietan, Marurin, Elorrion. Orripea dala dirudi, baiña "gorbea" k be ba-dauko olako zerbeit. Arrasaten 1530.

• • •

Orbezua: Zeanuri'n. "Orbe" edo orripe ugaria dauan lekua. Zeanurin 1745.

• • •

Ordorika: Arrietan 1739. "Ordo-" "avena" eta "-ika" toki-atzikia. Bedar ori ugari dagon lekua.

• • •

Orduña: "Urduna" ura daukan tokia. Arrasaten 1446.

• • •

Orendain: Gipuzkoatik Naparroara. "Oren-" abereen janaria" eta "-ain" gainean, toki-atzikia. Bedarra dagon tokiaren gainean.

• • •

Oreja: Gipuzkoan dago erria. Iñoz ez dau esan gura "belarri". "Ore" bedarra dan ezkerre, "-xa" edo "-tza" ugaritasuna da. Toki bedartsua 1566.

• • •

Orella: Oreja bera da, orduan bedarleku ugaria. Korella be orixe da eta Napparroan agertzen da 1722.

• • •

Ormaetxe(a): Ormaz egindako etxea. Artzaiñen etxea, teillabakoa, jaberik ez daukana. Bilbao 1651. Batzuk atxegaz idazten dabe, latiñean "forma" zalako.

• • •

Ormaza: Orma asko dauan etxea. Bizkaian 1659.

• • •

Orozko: Oro mendia dala dirudi, gerkeran lez, eta orrelan "mendi asko dagoan lekua litzake, baiña "oro" goroztia dala diñoe. Arrasaten 1461.

• • •

Ortiz: Naparroan 1300. Karrantzan. Nire ustez latiñeko "fortis" da eta abizen lez gero artua: "Santius fortis". Ori dator gero Fortunio.

• • •

Ortu: Abizen askoren oiñarri. Izan leiteke lateratik artutako "hortus", edo euskeratik "oro/olo" avena.

• • •

Ortueta: Oñaten. Ortuak dagozen lekua. Elorrion 1575, Oñaten 1416.

• • •

Ortuzar: Zeanurin etxea, beste leku batzutan be bai. Ortua ba-dakigu zer dan eta "-zar" be bai. Ori da? Ala landu bakoa? Arrasaten 1546.

• • •

Orue: Sodupen, Zeanurin eta abar. Lurzatia da, etxea egitekoa be bai. Bilbao'n 1638.

• • •

Osinaga: "Osin-" ura geldi dagon lekua da, pozua, eta "-aga" mugatzaille sendoa, orduan "ura geldi dagon lekua". Bizkaian eta Gipuzkoan zabal dago: Arrasaten 1352, Oñaten 1451.

• • •

Otadui: Otea ezaguna da eta "-dui" ugaritasuna, ortik "-di": "marasdui" eta "maasti" bat dira. Oñaten 1451.

• • •

Otegi (Otaegi): Otea dagon aldapa edo ikuspegia. Gipuzkoan zabal dabil. Urretxun 1652.

• • •

Otalora: Otearen lorea izan leiteke, baiña beste batzuk "otaola" dala diñoe: Ota asko dagon lekua. Elorrion 1590.

Otamendi: Gipuzkoan zabalena. Otea dagon mendia. Alegin 1664.

• • •

Otaola: Eibar'en eta Markiñan. "-ola" atzizkia danean ugaritasuna da. Otea ugari dagon lekua. Arrasaten 1596.

• • •

Otazua: Arrietan asko eta etxea be bai. Araban Otazu da. Toki otatsua esan gura dau. Tolosan 1346.

• • •

Oteiza: "Ote-" ezaguna da, "-iz-" ugaritasuna da "Judiz-mendi" judatarren mendia. Orduan, "oteiza" ote asko dagon lekua.

• • •

Ojanguren: "Oian-" baso baltza ba'da, gorengo baso baltza edo baso balzaren goiena litzake. Azkoitian 1484.

• • •

Oiarbide: Gipuzkoatik Bizkaira. "Oianerako", basorako bidea da. Zumarragan 1595.

• • •

Oiarzabal: Baso baltz zabala edo leuna esan gura dau. Azkoitian 1464.

• • •

Ozaeta: Ozaetan 1160. "Oza" asko dagon lekua da baiña ez dago "oza" ori zer dan. Bedarren bat.

• • •

Pagaldai: Pagoak dagozen aldea. Bolibar 1605.

• • •

Pagasarri: Pagoak dagozan sarria edo berezia.

• • •

Pagoaga: Mendarotik. Pagoa dagon lekua. Ezkiogan 1411.

• • •

Pagola: Pago asko dagon lekua. Tolosan 1595. Naparroatik etorri eta Gipuzkoan eta Bizkaian bizi dira.

• • •

Peña: Karrantzan. Erderaz be abizen bardin bat dago Mena ibarretik sortua. Antxiña "pina" izan zan. Ez dakigu zer zan. Ortik Pinuaga. Izena San Juan de la Peña'n dago oso antxiñatik.

• • •

Perea: Aiala ingurtik dator eta Bizkaian Basauritik Somorrostrora eldu da. "Berea"ren aldakuntza izan leiteke. Jerusalemgo zaldunen artean 1579.

• • •

Perurena: Baztanen. Peru'ren etxea da. Iruña 1780.

• • •

Pikaza: Bizkaian. Ikoen lekua edo aldatz aundia dagon lekua. Ez dauko zerikusirik erderazko "Picaza" gaz.

• • •

Pildain: Gipuzkoakoa da. "-ilda-" barruti-lekua da, "P-" gero ezarria et "-ain" gaiñean esan nai dau. Beasain'en 1716.

• • •

Plazaola: Gipuzkoan. Plazan dagoan burdin-lentegia. Legazpian 1532.

• • •

Pujana: Otxandiano-aldean. "-usa" grama deritxon landara bat da, "P-" gero ezarria eta "-ana" toki-atzizkia. Bergaran 1650.

Kereizaeta: Azpeitian eta Elorrion. Kerizak dagozen lekua da. Azpeitian 1625.

• • •

Kejarazu: Kereiza asko dagon lekua. Arrasaten 1625.

• • •

Kintana: Enkarterrian. Latiñetik artua da. “Kintus”, eta izen ori eukan baten lurrean dagoan etxea da, bardin Luzena, Martxena, Arazena, Rekena. “-Ena” atzizkia euskereak beste izkuntza batzukaz batera dauka.

• • •

Renteria: Bizkaian. Donosti-ondoan. Zergak (errentak) eskatzen diran lekua da. Baladolid'en 1726.

• • •

Rementeria: Olakaz batera doa eta burdiñea erreminta edo lanabes biurtze-ko tokia da. “Ari” lanbidea.

• • •

Respaldiza: 1093n. urtean Arispaldiza zan. “Aritz-” da oiñarria eta besteak atzizkiak. Aritz asko dagon lekua da. Balladolid'en 1701.

• • •

Rioja: Donostian 1606. Erri otza? ala Rio Oja edo osa? “Osa” guztien lurra izan leiteke.

• • •

Ripalda: “Ripa” aldapa da eta “-alda” ingura. Baztan'en 1248.

• • •

Sagarminaga: Zeanurin. Sagar mingotsak dagozen lekua. Balladolid 1602, Zeanuriko bat.

• • •

Sagarna: Gipuzkoatik Bizkaira sartua. “-na” txikia. Zarautz 1585.

• • •

Sagasti: Sagar asko dagon lekua. Seguran 1354.

• • •

Sagasta: Oiñarria “sagar-” eta ugaritasun atzizkia “-sta”.

• • •

Salabarria: “Sala-” etxaldea da eta barri oraintsu egiña. Bilbaon 1721.

• • •

Salazar: Enkarterrian eta Aiala-inguruan. Etxalde zarra da. “Lope Garcia de Salazar” 1399 jaioa.

• • •

Salterain: Gipuzkoakoa. “Alter” (yezgo) deritxen landaren gaiñean dagon lekua. Aramaion 1723.

• • •

Sarasate: Naparroakoa. Saratsak edo “sauce”ak dagozan mendi-atea. Eibar 1695.

• • •

Saralegi: Iruñan 1777. Sara izenekoa landarak dagozan aldapea.

• • •

Sarasola: Sarats edo sauce asko dagon lekua. Zeberion. Gabirian 1548.

• • •

Saratxaga: Saratza dagon tokia. 1736. Güeñes. Amurrio.

• • •

Sarraoa: Bergaran edo inguruetan agertzen da eta “Sarri-” zugazti betea dan lez, “oa” barriz toki-atzizkia, abizenak zugatzak estu dagozan basoa esan gura dau. Anzuolan 1723.

• • •

Sarria: Zuian Gares'en eta Berriz'en agertzen da. Leku askotan daukaz etxeak Bizkaian. Zugatzak estu dauzan basoa da. Oñaten 1447.

• • •

Sarrikolea: Larrabetzun eta Mungialdean dago eta zugatzak estu dauzan basoan dagon olea da.

• • •

Sasiain: Sasiak dagozen tokiaren gaiñeko aldea esan gura dau. Arrasaten 1446.

• • •

Sasiola: Sasi asko dagon lekua. “-ola” azkenean dagonean ugaritasuna da. Deba ondoan dago izen au daroan tokia eta antxe agertzen abizena 1340.

• • •

Satrustegi: Arakil inguruan agiri da. “San Jorge'ren lekua” dala diño Mitxele-nak. 1780.

• • •

Segura: Gipuzkoan eta Bizkaian, baiña abizen bardiña Gaztelan be. “-egur” da oiñarria eta “-aga” mugatzaile sendoa. Segura'ko baten abizena da 1480.

• • •

Sertutxa: Gatikan. Antxiña “sartetza” izango zan. Arte asko dagon lekua. “s-” gero ezarria da.

• • •

Setien: Gipuzkoan dago baiña gaztelan be bai beste bat bardiña. Lenago Setuain izan ei zan eta esan gurea “etu-” sasia eta “-gain”, ganea edo goia.

• • •

Sierra: Ez dauko zer-ikusirik erderazko itz bardiñagaz eta au “zearra”ren aldakuntza da. “Aldapan dagoana esan gura dau. 1475.

• • •

Sistiaga: Gipuzkoatik etorria da. “iz” edo “junco”gaz azaltzen da: “Iz” edo zi asko “-ti-” dagon lekua “-aga”. Ernain 1778.

• • •

Solaun: Landion. “Sola”tik dator eta “au” oloa dagon lekua da. “-aun” “une” aldatua da. 1806.

• • •

Solozabal: Berbak argi diño zer dan. Elorrion agertzen da 1590.

• • •

Sukia: Ataun'en agertzen da eta ota-antzekoa bedar bat da.

• • •

Sustatxa: “s-” gero ezarria da eta “-tza” ugaritasuna dan ezkerko “-usta” otearen antzekoa, “ota asko dagon lekua. “Frantziatik etorria da.

• • •

Sustaeta: Azkoitian iru etxe, goikoa, erdikoa eta bekoa. 1319. Ota asko dagon lekua esan gura dau.

• • •

Tellaetxe: Bizkaian zabal eta Naparroan be bai. Teillakaz egindako etxea da. Teilla latiñeko “tegula”tik dator eta jabetzaren ezaugarria da. Orduan lugiñen etxea. Oneik jebe ziran. Elorrion 1526.

Telleria: Teillak egiten diran lekua. Seguran 1501.

• • •

Telletxea: Tellaetxe bera da eta teillea gainean dauan etxea esan nai dau. Bilbao 1761.

• • •

Torrealdai: Fruniz'en sortua da. An dago Aldai etxea eta gorago egoan Jau-naren torrea. 1732.

• • •

Torrontegi: Mungian antxiñatik, Birlen. "Torrón" edo torre andia dagon lekua da. Torron Naparroan 1334.

• • •

Totorika: Ordorika'tik etorria dala diñoe. Logroñon 1549.

• • •

Ubieta: Gordexolan Naparroan. "Ubi-" edo "ibi-" erreka pasabideak dira, "eta" askorena. URBIDETA BE BAI.

• • •

Urzelai: Zumarragatik Bizkaira etorria. Ura edo errekatxua doan zelaia. Azkoitia 1579.

Ugalde: Tolosatik Gipuzkoara eta Bizkaira. Errekearen ondo da adierazpena. Arrasaten 1340.

• • •

Ugarte: Gamiz'en etxea, 1200n. urteko arkuagaz. Bizkaian eta Gipuzkoan asko zabaldu da abizena. Bergaran 1390. Ur-artean dagon etxea esan gura dau.

• • •

Ugarriza: "ur-arri" (gijarro) asko dagon lekua da. Orozko-aldean dago geien.

• • •

Unamuno: "-muno" edo "-muiño" mendi txikia da eta "una-" una'ren errokoa da. Orduan "abereen muiñoa" izan daiteke. Soraluzen 1558.

• • •

Unanue: Donostia 1566. "una-" abereak ba-da "-nue" tokia, or daukagu abereak dagozen tokia.

• • •

Untzuetza: Azkoitiatik dator eta Bizkaian dago 1475. "Untz-" erderazko "yedra" da eta olako asko dagon lekua esan nai dau abizen onek.

• • •

Uranga: "-anga" txikia esan nai dau eta aurrekoa ura izanik, erreka txikia esan nai dau. Azpeitian 1348.

• • •

Urberoaga: Ur beroa agertzen dan lekua da eta Gipuzkoan agertzen da 1462.

• • •

Urkola: Urkiola bera da eta urkiak dagozan lekua esan nai dau. Asteasun 1663.

• • •

Urkullu: Barakaldotik asita dator eta bitan zatitzen dan abarra da Bilbaon 1756.

• • •

Urdanpilleta: Beizaman. Basurdeak batzen diran tokia "Urdan-" "-bil-". Beizama 1676.

• • •

Ureta: Errekatxuak batzen diran lekua. Donostia 1616.

• • •

Uria: Elorrion Goikoa, erdikoa ta bekoa. “Uri-” ura datorren aldapea da eta “-a” mugatzaillea. Elorrion 1670.

• • •

Uriarte: Etxeak eta abizenak asko dira bizkaian eta emendik zabaldu da Arrasatera. “Uri-” ura datorren tokia da, erderazko “cuenca” eta olako biren artean dagon etxea esan gura dau izen onek. Arrasate inguruan antxiña agertu zan, 1530.

• • •

Uribarren: Uri edo “cuenca” baten barrenean dagon etxea. Leniz 1605.

• • •

Uribarri: “Uri-” aldapa eta “barri” lantzeko lurra. Gamiz 1704. Arrasate 1416.

• • •

Uribe: Aldapearen beko aldea da eta asko zabaldu da Bizkaian. Leniz 1417.

• • •

Uribitarte: Aldapa biren biartea. Bilbaon.

• • •

Uruburu: Busturin. Arrasaten 1340. Uri edo aldapearen burua, gaiñea, esan gura dau. Olako elkuan dagon etxea.

• • •

Urizar: “Uri-” aldapea edo ura emoten dauan lekua da. “-zar” ez dago argi “zarra”. Zear edo bidean dagoana? edo landu bakoa? Segura 1374.

• • •

Urkiaga: Zeanuri-aldean, gero Bizkaian. Urkia edo “abedul” dagon lekua esan nau dau. Bergaran 1780.

• • •

Urkijo: Aialan torre-etxea. Urkixu auzoa ta etxea Igorren. “-jo” “-tsu”tik etorria ei da eta Urki edo abedul asko dagon lekua da. Bilbaon 1618.

• • •

Urkiola: Bizkaian Santutegi ospetsua. Abizena Bizkaian eta Gipuzkoan. Urki edo abedul asko dagon lekua da. Getarian 1744.

• • •

Urtaran: Gasteiz. Uretan dagoan edo ur asko daukan arana.

• • •

Urteaga: Azpeitia 1580. Azkoitia 1318. “Urte” ur asko esan nai dau eta “-aga” tokia dan ezkerro, “toki urtsua” da.

• • •

Urraburu: Zeanurin. Urretxak dagozan lekuaren goitik esan gura dau. Arrasaten 1461.

• • •

Urraza: Zeberion. Urretx asko dagon lekua da. 1808.

• • •

Urrejola: Orozkotik Elorrion ta Aramaion. Urreitx ba-dakigu zer dan eta azkenenke “-ola” ugaritasuna agertzeko toki-atzizkia da.

• • •

Urrestarazu: Ataunen 1625. “Urre” ezaguna da eta -sta- ugaritasuna “tzu” barriro ugaritasuna. Urretx asko.

• • •

Urrutia: Euskalerra osoan zabaldua. Urrin dagoana esan daike baiña baita “urretxak” eta “-ti-” asko dagozan tokia.

• • •

Usandizaga: “Usan” guztien lurra da eta “-aundi-” argi dago. “-tza-” ugaritana agertzeko eta “-aga-” mugatzaille sendotua. Azpeitian 1625.

• • •

Zabala: Euskalerra osoan dago zabaldua. Alboetan ezer barik, itzi barik dagoan lekua esan gura dau. Ordizian 1390.

• • •

Zabalo: Zumarragatik Bizkaira. Estutasun bakoa esan gura dau, eta “-o” toki atzizkia da. Zumarragan 1460.

• • •

Zaitegi: Zaintzaillea dagon tokia.

• • •

Zalbidea: “Zal-” bedarra dagon lekua da eta “-bidea” toki orretarako. “Zal-” orretatik dator “zaldi” be, baiña Zalbidea ez da zaldibidea. Leniz 1448. Etxanotik dator.

• • •

Zaldibar: Bedarlekua dan ibarra edo zaldien ibarra. Oñaten 1615.

• • •

Zaldua: Abereentzat bedarra dagon lekua. Zumarraga 1468.

• • •

Zalduendo: Zaldu edo bedar-lekuaren ondoan dagon etxea.

• • •

Zamalloa: Arrasaten 1430. “Zama-” mendi-bitartea da, “-llo” toki atzizkia eta “-a” mugatzaillea. “Mendi-bitartean dagon etxea”

• • •

Zameza: Arrietan etxeak. “Z-” gero ezarria da, “-ametz” aritz-antzeko zugatza eta “-a” mugatzaillea.

• • •

Zarate: Araban eta Bizkaian. “Zara-” iñarra-antzekoa da eta “ate” olako tokira sartzeko atea. 1620.

• • •

Zarraga: “Zarra-” Antxiñakoa edo burdin-ondakiñak dagozen lekua. “-aga” ori dagon lekua. Bilbao 1798.

• • •

Zorroza: Morgan 1446. “Zorrotz-” ba dakigu zer dan “-a” mugatzaillea.

• • •

Zorrozua: Mendiak-edo, zorrotz asko dagon lekua “tzu” asko da. Elorrion 1619.

• • •

Zuazagoitia: Goiko-aldean dagon zugaztia da. Bilbao 1830.

• • •

Zuazola: Zugatz asko dagon lekua. “-ola” asko. Oñate 1388.

• • •

Zuazua: Zugatz-tsua esan nai dau. 1772 Abadeñon.

• • •

Zubiaur: Zubiaren aurrean dagoana. Elorrion 1575.

• • •

Zubillaga: Zugatz-enborrak dagozan lekua. Oñate-aldean. Arrasaten 1342.

• • •

Zubizarreta: Zubi zarrak dagozen lekua. Azkoitian 1540.

• • •


Zulaibar: Zeanurin. Zuloak edo kobak dagozen ibarra. Elorrio 1576. Edo zuloa dan ibarra.

• • •

Zuloaga: Zeanuri. Zuloa dagon lekua. Urretxu 1549.

OLAZAR'tar MARTIN

EUSKERAREN ERRONKA



Izkelkiak. Bonaparte'ren 4n. zatiketa: 1869
Izkelkiak eta izkerak.

– 1: **Nere idazki onen arrazoia.** Beste idazki bat duzute nik nere au idatzi izatearen arrazoia: Latxaga argitara ematera dijoan idazkia.

Euskerazaintzaren illeroko azken-batzarrean irakurri zigun idazki ori, eta an geunden akademilari guztion oniritzia jaso zuan. Berdin gertatu zan egun batzuk geroago Iruña'n, "Diario de Navarra"ren Euskal-Orrian idazten dugun guztion billera batean. An ere pozik eman genion guztiok gure baiezkua.

Jakintzaren maillan gizon aundia ta ospetsua dugu Latxaga, –bere izenez Joxemari San Sebastian–, iru doktoradutza badituan euskerazaiña, iruak Fran-tzi'ko unibersitateetan irabaziak, eta azkenekoa, ainzuzen izkuntziztiari-buruzkoa, Paris'ko Sorbona'n, Europa'ko unibersitaterik zarrenetako batean, eta edes-tia-zear, ezpairik gabe, izenik eta eraginmenik aundienekoa dan Sorbona-n.

Alatagutziz, Latxaga ez da erriko jendearen artean ezaguna. Zergaitik? Irrati, telebista, izparringietan eta gizarte-mezu-bide orctan bere izena arreta aundiz isil-pean eukia dalako. Eta ori, berriz, zergaitik? Euskerazaintzakoa dalako. Euskera-zaintza ez da sekulan, ezta beinbatean ere, mezu-bide oietan aipatua izan, naiz sortu zan une beretik euskeraren idazlerik onenak bere baitakoak izan, eta legeak ofizialki eman dezazkean baimen eta titulorik aundienak irabazirik euki. Ori izan bait da Euskaltzaindiak, "bei sagaratua" izan zuan Koldo Mitxelena'ren aolkua jarraituz, Euskerazaintzarekin, au sortu zan une beraz gero erabilli duan taktika. Ori, isiltasuna, arriskutsuak izan zetzazkioken etsaiak aipatu ere ez egitea izan bait zan Mitxelena "elbatuatarren" Salomon beraren taktika.

Latxaga, Donosti'ko sagardotegi batean jaio zan. "Latxaga" zuan sagardotegi orrek izena, eta izen ori artu zigun gure gizon bikain onek bere jakintza-gudueta-rako.

Orain argitaratzera doan lanari, "Manifiesto del Euskera" izen-eman dio, eta "manifiesto" itzari Karlos Marx'ek bere "Manifiesto Comunista"n eman zizkion zentzua ta indarra eman nai dizkio: buru-biotzak ernetuz, jendea borrokara era-man dezakean indarra.

Bi punttutan bakarrik ez nator ni Latxaga'rekin bat: Garrantzi txikiko punttuak, nai ba'da, baiña nere ustez azterketatxo bat ongi merezi dutenak: Euskeraren eta "el batua"en nolakotasunari-buruzko punttuak bait dira.

– 2: **Euskeraren Nolakotasuna.** Nolakoa da Euskera? Nere ustez, Euskera, bat eta bera da beti ta baztar guztietan, naiz Euskalerriko txoko bakoitzean era ezberdiñean agertu. Adibide bat? Ea onoko onek balio duan: Ekar dezagun oroi-menera neska gazte pinpirin bat. Neska orrek, pinpiriña dalako, ez du bere soiña, udaz eta negu gorriz, era berdiñean jantziko. Ezta uztaillaren erdian Donosti'ko ondartzan eta bere amonatxo il-berriaren illetetan Berastegi'ko eliz otzean. Ez dira an eta emen berdiñak izango bere oiñetakoak, eta bere ezpain, betondo eta masailletako margoak. Baiña neska, bat bera izango da beti, naiz bere agerkerak ezberdiñak izan. Latxaga'rentzat, ordea, Euskera era ezberdiñetako Izkuntza BAT ez baiña, argitara ematera doan bere lan ortan dion bezala, "Una Familia de Lenguas" da: "Izkuntzen Sendi Bat".

Orra bâ, nere ustez, ori esatean, Latxaga'k euskeraren nortasuna ezereztan, –edo beintzat– aultzen du. Sendia ez bait da mundu ontan aurki daitekean gauza bat, ez du fisikazko izantasunik, gogoeta bat da, antziñako filosofilariak "idea universalis" edo "fisi-izakeraz-gaindiko gogoeta" aietako bat. Sendi batean egiazko izatea, ots fisikozko izatea dutenak, sendia bera ez baiña sendi ori osatzen duten pertsonak dira. Zuk ez dezakezu "sendi" batekin itzegin, naitanaiez sendi ortako gizakumeekin itzegin bearko duzu. ¿Sendia mundu ontako izakia ez bait da. Mundu ontako izakiak, sendia osotzen duten senditarrak dira. Sendia gogoeta bat besterik ez da. Euskera ordea gogoeta bat baiño geiago da. Euskera bakoitza, Gipuzkera adibidez, Euskera osoa da. Beste danak ilda, Gipuzkera bakarrik geldituko ba-litz bizirik, Euskerak bizirik jarraituko luke. Baiñan beste sendikide guztiak illik, batek bakarrik, jarraituko ba-lu bizirik, sendiak ez luke bizirik jarraituko.

Beraz, Latxaga'ren teorian mundu ontan Euskerarik ez da. Mundu ontan dana, Euskerak dira: Euskera bat ez baiña iru, lau... zortzi (Bonaparte printzipearen zenbaketa ontzat artu nai bada).

Utzi ditzegun epistemologiaren goi-gaillur oiek eta jetxi gaitezen lurrera, semantikaren alorrera, gizakumeon arteko mintzaera aztertuz nere aldeko arrazoitxo bat aurkitzen dugun ikustera:

Esan dezadan aurretik izkuntza-sendiak badirala. Nik ez diot ori Latxaga'ri ukatzen. Soilki Euskera izkuntza bat ez baiña Izkuntzen Sendi bat dalako ori zalantzan ipintzen diot.

Beste ororen aurretik, ordea, murgildu gaitezen arazoaren barrunbeeko gunera:

– 3: **Euskerak zenbat dira?** Zortzi zirala esan zuan Luis Luziano Bonaparte Printzipeak XIX mendearen erdian. Ori ordea geiegikeri bat da, Gure Printzipe adiskide eskerrongarri ark erriz-errikeri txikiak aski izan bait zituan errialde bakoitzean Euskera bereizi bat ikusteko.

Bere bidetik asi ezkeru, Euskerak askoz geiago dirala esan bearko genuke: aran bakoitzean bat. Eta baita, ia-ia aran bakoitzeko erri bakoitzean ere. Mungi-aldean agoskerari-buruzko ezberdintasunak artu zituan gai, Martin Olazar Euskerazaintzako Lendakari Jaunak bere, unibersitateko, tesirako; Bâ, txikerkeri oiei garrantzi ematekotan, Txorierrri'ko Elizaurre bakoitzak bere Euskera, Euskera bereizi bat, baduala esan bearko genuke. Eta gauza berdiña gertatuko litzaiguke erri bat beraren barruan ere ez da bâ, askotan, euskera oso berdiña izaten. Tolo-sa'n adibidez, nere errian, Oria ibaiaren alde bateko baserritarrek eta beste alde-

koek ez dute euskera berdiña itzegiten, eskuiñ-aldekoen euskerak napar-usai nabarmen bat bai bait du.

Bonaparte Printzipearen Euskera batzuk ere, ez dira Izkuntza bat, aien gaindik dagoan Izkuntza zabalago baten izkelkiak baizik, ots, “dialektoak”. Garrantzia andia damaio Latxaga’k dialektoen arazoari, eta anitz asarretzen da Bizkai’ko edo Zubero’ko euskerei adibidez, eta zer esanik ez Euskera berari, dialekto esaten dietenekin. Arrazoi osoz. Europa’ko izkuntzarik zarrena eta mundu zabalean zaarretetako bat, ots Euskera, “dialekto” bat baldin ba’liz, mundu zabal guzi orretan Izkuntza bat bakarrik ez bai litzake izango.

Alatagutziz, guk batxillerrean ikasitako gramatikak, “dialectos españoles” esaten zien Euskerari eta Galizi’ko ta Katalauni’ko izkuntz agurgarriei. “Dialectos”! Izketakera zakar ori, Frantzi’tik ekarria dute españiarrek, batez ere Borboiak Españi’ra etorri ziran ezkerero Frantzi’rez tximu izan bait da Españi. Frantzi’n Richelieu’z gero asi zan izkuntza “ofiziala” ez ziran izkuntza danei, “dialekto”, okerrago oraindik, “patois”¹, esateko oitura zikiña, naiz izkuntza oiek zarragoak (bretoikera) edo, probentzera eta okzitanikera bezala, orduan aberatsagoak izan. Ainzuzen izkuntzaren batasuna lortuz Frantzi’rez politikazko batasuna ere lortzeko, ots, “Par Raison d’État”, berak esan zuan bezala, sortu bait zuan Richelieu’k ere Frantzi’ko Izkuntzaren Akademia: “L’Académie Française”.

Baiñan ez diogu oraindik Euskerak zenbat diralako galdeari erantzun. Ainbeste zor diogun Bonaparte’rez ugarikerixoari baztar-emandak, nik, bein baiño geiagotan Euskerak lau dirala esan izan dut: Zuberoera, Gipuzkera, Laburdiera, ta Bizkaiera. Ori, ordea, soilki euskal- elertiaz, euskal-literaturaz, mintzatzerakoan. Gure elertia, ots, gure literatura, lau euskera oietan idatzia izan bait da.

Izatez, ordea, IRU bakarrik dira oraindik bizirik jarraitzen duten Euskerak:

– SARKALDEKOA: Bizkai’koa, gaurregun indartsuena eta geien itzegiten dan euskera, eta antziña ere agian indartsuena eta geien itzegiña izan zana, Bizkaiera bait zan Araba’ko ta Autrigoitarrenak izandako lur guztietako Euskera: Okamendien egoaldeko maldetan ere Urbion mendiraño itzegiten bait zan Euskera!

ERDIKOA: Gipuzkoa, ia Naparroa dana, Laburdi, eta Banaparroa’ko Euskera. Naparroa’ko eta Gipuzkoa’ko Euskeren artean txepelkeriren batzuk izan ezik, ezberdintasun mardulik ez da, eta Naparroa’rez sarkaldeko ta Gipuzkoa’rez Goierriko Euskeren artean, batere ez.

Laburdiera eta Benaparroa’ko Euskera, erdiko Euskera orren barruan, –dialektoak esatera ez naiz ausartzen–, alako nortasun bereizi bat baduten erak ditugu. Alare oien artean eta Gipuzkoa-Naparroa’ko izkeraren arteko ezberdintasunik aundienak guk Gaztekeraren eta aiek Frantzeraren iztegi ta gramatikatik artu ditugun itzak eta erak oi dira.

SORTALDEKOA: Zubero-Erronkariko Euskera. Orixe dugu noski XIX mendean oraindik, Joseph Dominique Garat’ek Napoleon’i esan zion bezala, Katalauni’ko mugaraño, –eta erdiaroan Lurrat’Itxasoraño– itzegiten zan Euskera. Gaur il zorian dago. Zearo illik, Erronkari-n. Eta iltzeaz, Zuberoa’n. Epe laburrean ilko zaigu au ere, mirarizko sendagaillu indartsu bat ez ba-diogu ematen. A! nolako lana eginen zuan Euskaltzaindiak, urtero jaso oi dituan diru-mordoak, “el

¹ Ona itz orri 1903’an Vicente Salvá’rez iztegiak damaion zentzua: “Patois: Dialecto, lengua corrompida que habla el vulgo y es peculiar de ciertas provincias o comarcas, donde solo la gente culta habla la general del reino o nación”, y, por extensión “jerga”, “lenguaje obscuro y grosero”. Ez da beraz arritzekoa españiarrek “habla en cristiano” oi egitea euskeraz itzegiten duan guztiari.

batua”ren edena zabaltzen ibilli bearrean, Erronkari’ko eta Zuberoa’ko Euskera salbatzen eta bizkortzen txautu ba’litu!

IPARREKO euskera, galdua dugu: Gaskuñazear, Garona ibaiaren gaiñetik igarota Dordoña ibaiaren ibarretaraino itzegiten zana. Aspaldi il zan. Orain, soilki toponimia aztertuz osatu genezake, nolabait, euskera aren iztegia.

Iru Euskeretaz mintzatu naiz. Lau Euskeretaz mintzaten naiz, ertiaren gaietaz ari naizenean. Eta emendik aurrera ere berdin-berdin mintzatuko naiz. Baiñan orrekin ez dut esan nai nik Euskera bat bakarraren batasuna ukatzen dedanik. Adibide bat? Bedi gure elizetako Andramari Neskutsaren irudien adibidea:

Andramari, beti bat bera da, baiñan lasai-aski esan oi dugu guk Andramari asko ditugula: Andramari ezberdiñak, gaiñera. Erromanik-aroko Andramariak, Gotik-arokoak, Birjaiotzakoak... Fra Angeliko-renak; Migel Anjel, Murillo, eta ainbat eta aibat irudigille eta margolarienak... Danak ezberdiñak, naiz Andramaria beti bat bera izan.

Berdin gertatzen zaigu Euskerarekin. Naiz Euskera beti BAT izan, IRU edo LAU Euskera baditugula. Euskeraren literaturari dagokionez lau. Euskeraren izate berari dagokionez, iru.

Eraspen osoz esana bedi, baiña badu ortan Euskerak Jaungoikoaren antza. Bat eta iru bait da Jainkoa: Zertasunez, bat: Nortasunez, iru.

Orrela, Euskera, izkuntzen sendi bat ez baiña izkuntza bat dala esan oi dut nik beti. BAT baiña LAUKOITZA elertiaren arloan,

IRUKOITZA bere izateaz itzegiten ari geranean.

– 4: **Euskera sendi bat?** Ez, nere ustez. Latxaga’k erromantzeen sendia aurkezten digu adibide lez. Ori bai ori Izkuntz askok osotzen duten Sendi bat da: emen gure inguruan, Galizi, Gaztela, Katalauni, Bearno, Gaskuñazear, eta Frantzerak berak osotzen duten sendi bizkorra. Baiñan, naiz sendi bat bai, izkuntza bat ez: ez dute Izkuntza bat osotzen.

Gure iru, –edo lau– Euskerak, ordea, ez dira sendi bat, izkuntza bat bakarra dira.

Ori, guk guztiok gure mintzaeraren bidez ederki bereizten dugun gauza da. Izkuntzek famili batekoa diranean ez ditugu danak batasun batera biltzen. Orrela, ez dugu beiñere esango Moliere ta Cervantes izkuntza bat bereko idazleak ziranik esango. Bai ordea Lauxeta, Lizardi eta Etxahun. Oker ibiltzeko kezkarik gabe esango dugu izkuntz bat bereko idazleak ditugula.

Era berean sendi bat osotzen duten izkuntzetaz ari gentalarik, ez dugu beiñere SENDI orren izenik erabiltzen, aspaldiz gero ez bait du iñork esaten Aznar bere itzaldietan erromantzeaz mintzaten danik edo erromantzeaz erabiltzen duala Gis-card’ek ere bere itzaldietarako. Ez dizu iñork esango biek izkuntza bat bera erabiltzen dutela.

Bai ordea Zubero’ko ta Bizkai’ko apaizek sermoiketarako izkuntza BAT BERA erabiltzen dutela. Izkuntza ori Sendi bat ez baiña IZKUNTZA BAT dala adierazi nai digu jardunkera orrek.

Gaiñera, naiz oartu ez, guztiok dugu “Familia” gogoeta utsa dalako usmo ziu-rra. Badakigu, adibidez, ERROMANTZEA sekulan izan ez dan zerbait dala. Izan dana, “famili” ortara biltzen ditugun izkuntza bakoitza dala: Frantzeraz adibidez, edo gaztelera, galiziera, toskaniera... Baiñan, alderantziz, badakigu EUSKERA sendi bat ez baiña izkuntza bat izan dala beti edestiaurreko arri-aroaz gero.

Orregaitik atzipeturik ibiltzeko bildurrik gabe esan dezakegu Iru edo lau Euskeretatik, bakoitza, Bizkaiera adibidez, Euskera OSOA dala. Gaztelerriko izkeraz,

adibidez, ori esaterik ez dugu: ez genezake esan Gaztelera Erromantze OSOA danik. Ontan ere bai bait du Euskerak Jaungoikoaren itxura: Jainkoagan ere Persona bakoitza, Semea adibidez, JAINKOA bait da, ez Jainkoaren zati bat, Jainko OSOA baizik.

– 5: **“El batua”ren arazoa.** Zergaitik, nik, Euskaltzaindiak “Euskera Batua” esaten dio izkera, beti “el batua” idazten dedan jakin naiko duzu. Iru dira, ortarako ditudan arrazoiak. Bat, –ez noski garrantzirik aundienekoa–, erriak orrela deitzen diola; bigarrena, “Euskera Batua” ez dalako; eta irugarrena, “el batua” ori sortu aurretik, egiazko Euskera Batu bat bazala adierazi nai dedalako.

A) “El batua” ez da egiazko Euskera BATU bat. Eta arazo oni dagokionez ere ez nator Latxaga’rekin bat. Latxaga’k ez dio izenaren arazo oni garrantzirik eman, baiñan neretzako badu bere garrantzia Latxaga’k Euskaltzaindiak eman dion izena azterketarik gabe ontzat artuta, “el batua”, Euskera batetik pixka bat bestetik beste pixka bat eta guztietatik zerbait artuz izan zala eratu, diosku bere “Manifiesto” berri ortan.

Egiaz izango zan Euskera BATUA, bere sortzailleek izkera berri ori sortzerakoan Latxaga’k diona egin ba’zuten, ots, beren izkera berri ori Euskera guztietatik zerbait jasoz eratu izan ba’zuten. Eta benetan izango zan Euskera Batu ZINTZOA, jasoketa egin aurretik zientzi ororen araua Euskera bakoitzatik ZER jaso eta ZENBAT jaso astiro ta benetan eta beren aldeko eta beren aurkako euskaltzailarien iritzia mundua-zear bilduz egin ba’zuten.

Ta, azkenik, benetan izango zan ZIENTZIEN aldetik Euskera Batu Zintzo AKATSIK GABEA, baldintza guzti oiek betetzeaz gaiñera unez-une ERRIAREN iritzia ere jasoz egin izan ba’lute. Mundu guzian erri bakoitza bait da bere izkuntzaren sortzaillea, mendeak-zear bere izkuntza orri iraunpen emaillea, eta, ondorioz, bere izkuntza orren jaun, jabe, eta nagusi bakarra. Eta ori nonnai egia ba’da, batez ere Euskal-ERRIAN bait da EGI SANTU bereizia.

“El Batua”ren sortzailleak ordea ez zuten deus orrelakorik egin. Mundu osoan beraiek beste eukaltzilaririk ez ba’litz bezala, beren aurka geundenoi iseka egiñez, eta Euskal ERRIARI bizkarra emanez aritu ziran ariñ eta laisterka, era ortan ain erreza gertatu zitzairen izkuntza berri baten erditze-lanean.

Ez bait da egia Euskera guztietatik zerbait artu zutelako ori. Ez bait zuten Zuberorarik ezer artu. Ez bait zuten Bizkaiera zabal indartsutik ere ezer jaso. Benaparroa’ko euskera artu zuten oiñarrizat, eta Mitxelena’k zerbait trakestua izan ondorean euskera orri Frantzeratik Gaztelaratik, eta –barkatu bezait itz au– “patois”etatik itzak eta erak lasaiki ta neurri ugarian erantsiz, izketa-modu berri bat eman ziguten.

¿Iñolako zuzenbiderik ez duan jardunkera baldar ori zergaitik? Orduango euskal-idazlerik onenak –ez diot esakizun orren Indar larriari ezertxo ere kenduko–, eta Zientzien aldetik gogorrena dana-euskaldunak danak, –ETA.’ren girora sarturik zeuden pitiñak ez gaiñerako beste GUZTIAK– aurka zituztela ziur bazekitelako.

B) Euskera Batua ez dan “El Batua” orren aurretik, bazan, orduan ere bizirik eta indartsu zebillen EGIAZKO Euskera Batu bat. Ez zan ez noski Euskaltzaindiaren au bezalakoa, zearo beste era batekoa baizik. Euskerak izan duan izkuntzalaririk onena izan zuan sortzaille: R.M. Azkue bizkaitarra.

Azkue bizkaitarrak Erdiko Euskera artu zuan, eta Erdiko Euskeraren barruan Gipuzkera, bere asmakuntzaren oiñarrizat. Zergaitik?

Gipuzkera (ia berdiña dan Naparroa'ko Euskerarekin batera) orduan Bizkaiera baiño zerbait itzegiñagoa zalako, Gipuzkera, Euskalerra osoan errezen ulertzen dan Euskera dalako, eta ori orrela izanik, Euskeren batasunera iristeko biderik egokiena dalako; are geiago: praktikoki (barkatu bekit garbizaleak gaur mundu guztikoa dan itz ori), batasunera iritxi nai ba'da beintzat, Gipuzkera bide **bakarra** dalako.

Eta une artan Euskerazko idazlerik ugarienak eta onenak gipuzkeraz idazten zutelako. Azkue, berriz, une artarako ari zan batasunerako bide bat billatzen, ez aspaldi igaroak diran XVI edo XVII mendeetarako.

Egia esan, Azkue'k ez zuan EUSKERA BATU bat asmatu. Ez zan agertu euskaldunen aurrera, "Batasunaren Kutsa" izeneko liburu gorri bat eskuan jasoz, *batasuna eginik dago* oiuka ta deadarka. Azkue izkuntzalari onegia zan, izkuntza bat, edozein izkuntza, "egin" daitekean gauza bat ez dala ez jakiteko. Bazekian, ¿nola ez? "asmatutako izkuntza" sekulan ez dala "izkuntza itzegiña" izatera iritxi-ko, erriak sekulan bere-egingo ez dualako. Bazekian Euskeraren batasunera bat-batean ezin jaretxi daitekean gauza dala.

Orregaitik, Askue'k, Gipuzkera oiñarriztat artuta, Gipuzkera orri poliki-poliki, beste Euskeretatik, bearrezkoa dan une oroz, itzak eta era bereziak artuta aberastuz, edertuz, eta osotuz, Euskaldun guztiek errez ulertu –eta maitatu– zezaketen Euskera polit, bikain eta indartsu batera iritxi nai izan zuan. Euskera orri Gipuzkera Osotua izen-eman zion.

Ots, ordea: Azkue'rentat Gipuzkera Osotu ori ez zan beiñere Euskaltzaindiaren "el batua"ren antzera, erabat amaiturik, egiñik eta osoturik, zegoan "Euskera" bat. Ez zan, beren buruak jakintsu soiltzat zeuzkaten eta izkuntzalari baiño geiago politikolari ziran iraultzazale batzuen taldetxo batek, oso asti motzaren epean, iraduz borobildurik eta eraturik eta bukaturik utzitako izketa-modu berri bat.

Alderantziz, Azkue'rentzat, bere Gipuzkera Osotua, ELBURU bat besterik ez zan, egunak eta urteak-zear, urrats bakoitza ERRIAK ontzat artzen zuan neurrian, poliki-poliki eta, alperrikako laisterrean-ibillibearrik-gabe, astiro irabazi-boarra zan Elburua.

Are geiago: Azkue'rentzat, iardetsi-eziña genuan elburu ori: Bere Euskera Osotua, Akademi Borboitarrik ez duten izkuntzak bezala² adibidez Inghlanderriko erderak bezala, beti azitzen, obeagotzen politago-ta-ederragotzen joan bear zuan izkuntza bizia izan bear zuan!

Ez zan Erriari ipurdia erakutsiz ari diran politikolari batzuen ekintza; Erriarekin batera arituz izkuntzalarien eta idazleen lana zan.

D) El Batua, Euskeraren Eriotza. Azkue'ren Gipuzkera Osotua, ez zan, "el batua" dan bezala Euskalerriko iru-lau Euskeren etsaia. "El Batua" bai, Euskalerriko Euskeren etsai eriolaria bait da. Eta sortu ere Euskalerriko iru-lau Euskera betikoak iltzeko sortu bait zan.

Agian, orain ukatu egingo dizute ori, oraingo "elbatuazale" bateren batzuek. Baiñan gezurra esaten ariko zaizkizu ori egiten ba'dizute. Ordotxo dakite bâ ortalalo sortu zutela izketakera berri ori.

Ainzuzen orixe oroiterazi zion euskaltzain urgazle batek, Euskaltzaindiaren batzar batean, Bizkaiera "H" idatzia izatera beartu nai zuan Euskaltzain oso bati:

² Euskaltzaindiari "Akademi Borboitarra" esan oi diot nik, Real Academia Española'ren era berean tajutua dalako, eta bere baitan aren izpiritua daramalako. Real Academia Española ori, berriz, zearo Borboia da, 1714'e an V Felipe Borboiak Frantzi'tik ekarri zuan uraxe bera; izena ere, XIII Luis Borboia'ren erregetzakoaan Richelieu'k Paris'en sortutako "Académie Royale Française"aren izena bait du.

Naiz denbora laburrez “H”z idatzitako Bizkaiera ontzat artzea, Bizkaierari bizia luzatzea, izango omen zan. Eta ori, Arantzazu’n artutako elburuaren aurka omen zijoan; Arantzazu’ko batzarra ezkerro Euskaltzaindiaren eginbearra, “dialekto” guztiak ezereztuta, –ainzuzen ortarako sortua izan zan– Batua Euskalerrri osoan “Izkuntza Bakar” ezartzea omen zan bâ”.

Errez lasaitu zuan euskaltzain osoak orduan euskaltzain urgazle zan eta gaur euskaltzain osoa dana: “H”a izango omen zuan bâ Euskaltzaindiak, Bizkai’ko ateak “el batua”ri irikiko zizkion giltza.

E: Imanol Lekuona gu guztion maixuaren oztopo ikaragarria: Euskaltzaindiko Lendakaria zan Lekuona’tar Imanol, Euskaltzaindiak bere sorkuntzaren 50’garren urtea era egokiz oroitzeko, 1968’an Arantzazu’n billera ospetsu ura ospatu zuan, eta, berak, Lekuona’k, zuzendu zuan, lendakari lez, batzar ura.

– Itxuraz, “H”a ontzat artu edo ez artu erabakitzeke bildu zan batzar ura, baiñan an guztiek zekiten egiazko zioa gure ezkertiarrek sortutako “el batua” legez ontzat artu edo ez artu erabakitzea zala.

Orregaitik “H” onartu zutenean, egiaz onartu zutena “el batua”ren jaiotz ofiziala izan zala, eskier sinisturik gelditu ziran batzar artako guztiak

Ori egiztatu, sendotu, eta legeztatu zuan Lekuona Lendakariak berak, bere itzaldi negargarri artan. Bai noski: gizon beti-legunki-ibillizalea zalako, al zuan izkuntzarik goxoena erabilli zuan orduan ere. Ikus:

“Euskeraren batasuna egitea lan mingarria da. Gure izkuntza aberatsa pobretu egin bear; eta orrek, nai-ta-nai-ez, min ematen digu Euskera dan bezala maite degunoi. Bakoitzak txikitandikan bizi izan deguna utzi, eta, gañera besterena artu bear; eta orrek min ematen digu.

“Ebakuntza bat, operazio bat egin bear danean, min izaten da; baiñan operazioa egin bearrezko gauza izan oi da askotan, biziari laguntzeko, biziirik irauteko. Operazioak gorputza itsusi uzten du; eta ala ere, egin egin bear. Besoa moztea gorputza beso-bakar uztea da; baiñan egin bear danean, naiz-ta beso-bakar gelditu, egin egin bear... ”obe bait da –Jaunak dion bezela– beso-bakar ta begi-bakar bizi, bi beso ta bi begi-dun il baiño.

“Euskera biziko ba’da, batu egin bear, beso-bakartu egin bear, anka-bakartu egin bear... bizitza dezan eta ugariago dezan; indartsuago dedin, alegia; errextuta, laburtuta, batuta, geiagok eta geiagok ulertu dezan...

“Maastia ere, iñastu, kimatu bear izaten da. Aien geiegi atera oi ditu urtearen buruan; geiegi ori moztu egin bear zaio mauts-ondoari, mauts-mordo mardulagoak emango ba’ditu... Min izango zuan, iñolaz ere, lenen maastilariak, aien-mozte ori egin bearra, baiñan min protxugarria.

Berdin gertatuko da gure Euskeraren maastiarekin ere. Fruitu ugariagoak emango ditu”³.

Oartu geranez, Lekuona’k bere itzaldi biguñi ortan ez ditu Euskera zarrak aipatzen. Ez du Bizkaierarik aipatu. Baiñan mundu guziak, bere beso ta anka moztuetan eta begi atereetan, gure betiko Euskera zarrak ikusi ditu, eta, ez dakit zergaitik, baiñan batez ere Bizkaiera izan da ikusi duana: agian Bizkaiera “el batua”gandik urrutien dagoan Euskera izanik, bera dalako, “el batua”ren aurrean, azkarren iltzeko arriskua duan Euskera.

Baiki, “el batua”ren elburua Euskeren erailketa zan. Nik orde egin sinistu dut, eta ez dut sekulan sinistuko, Lekuona bera erailketa orren aldekoa zanik, baiñan ori esan bearra zuan. Danok sinistu genuana sinistu ez genezan, ORI, argi ta ozen

³ “Euskera. 1968; 140-141.

esan bearra zuan. Esan bearra zuan “el batua” ezin zitekeala Euskerak iltzera eto-
rri⁴.

F) **Izkera ezberdiñek batasun ezberdiña: bakoitzak berea.** ¿Bai al zuan
Euskerak bateratze baten bearrik? Nere erantzuna zalantzarik gabekoa da: EZ!

Euskerak bere batasuna bai bait du! Beti izan bait du! Eta beti izango bait du,
bizi den artean! Bere izaeratik datorcion batasuna.

Izkuntza guztiak ez bait dira izaera berdiñekoak: Eta, orregaitik ez bait daiteke
izan –eta ez bait da– berdiña, izkuntza guztien batasuna.

Erri euskaldunak, ots, erriak diot, erri xume, lander, arruntak betidandik usma-
tu izan du ori, eta ez du sekulan bere izkuntza bateratzearen bearrik sumatu.

Are geiago; esango nuke nik euskalduna “batasuna” itzaren adiskide motza
dala. Askoz maiteagoa izan du “alkartasuna”, eta “batu” ta “bateratu” aditzen
ordez atsegiñago zaio “alkartu” erabiltzea.

¿Zergaitik? Agian zerbait bateratzen danean bateratzen diran gauzek beren
nortasuna galtzen dutelako. Alderantziz, alkartzen diran izakiek, beren nortasuna
eta bizia sendo gordetzen dituzte osotu duten alkartasunaren barruan⁵.

Izkuntzen batasunaren arazoa aztertzeke ekarri ditzegun begien arrera antzi-
ñako izkuntz klasiko bi: Latera, ots, latiña, eta Elenera, Grezi zarreko elea. Late-
ra eta aren alaba dan Gaztelera, “monoformes” dira: “era bateko” izkuntzak. Ele-
nera ordea “pluriforme” izan zan “era askotako” izkuntza. Ogeita bostetik gora
omen ziran izan zituan era ezberdiñak.

Ogeita bostetik gorako oietatik ordea, Euskerak bezala, elertiaren arloan, lau:
Atik’era, Dorik’era, Eolik’era eta Jonik’era. Homero’k, Platon’ek, Safo’k eta
Demokrito’k ez zuten era berdiñez itzegin, edo era berdiñez idatzi. Ortan dago
Eleneraren batasuna: une berean BAT eta LAU izatean. Laukoitza da Eleneraren
batasuna Euskerarena bezalakoa: batasun laukoitza.

Baiñan Jonik eta Atik erak, biak bata bestearen antza aundikoak ziralako esan
omen daiteke iru izan zirala Grezi’ko izkuntza zarraren erak.

Berdin gertatzen da gure Euskerarekin. Ikusi dugu gure au ere bat baiña lau-
koitza zala elertiaren arloan eta bat baiña irukoitza bere izakeraren arloan.

Esan dugu baduala, ortan, Irutasun Donearen itxura. Irutasun Donearen bata-
suna bat izateaz utzi gabe irukoitza izatean dago. Berdiña da Euskeraren bata-
suna: Irukoitza. Eta elertiaren arloan Laukoitza.

⁴ Badut Lekuona’reu eta Barandiaran’en sikologiaz zerbait idazteko gogoa. Onek ere, Joxemiel’ek,
era arrigarian jokatu bait zuan Barandiaran’ek ere Euskerazaintzaren deduzko euskerazain izen-
datu genuanean. Aurretik Jexux Elozegi gure idazkariak eman zion gure asmo orren berri. “Ni ez
nago orain etxetik maiz ateratzeko gauza” erantzun zion ark Jexux’i. Eta Jexux’ek ari: *Guk zure
itzala bakarrik nai dugu*. Eta ark: “Bai gizana! ori besterik ez bada, ortik nai dezuten guztia”. Gero
ordea, Villasante’k aurrea eta Knör’ek gero, estu artu zutenean, “Nik jakin gabe izan naiz Euske-
razain egiña” esan omen zien. Eta ori bera esan zidan neri ere Joxe Karrera Gazteiz’ko ola-gizo-
naren aurrean, onekin Ataun’era zer gertatzen jakitera joan nintzanean: “Nik jakin gabe izan naiz
izendutua, baiñan oraiñ badakit, eta pozik artzen dut izendatze ori”. Gure Jexux Elozegi’k eta gure
Joxemiel’ek, ez ote zuten urrutizkiñez alkar ongi ulertu? “Bere itzaletik nai genuan guztia ematen
zigula” esatean, gure izendaketa onartzen zuala, ¿ez ote zan Joxemiel oartu?, ¿edo gexur ttiki
bat esan ote zien beste bi otso amorattu aiei? Bai Joxemiel eta bai On Manuel pakearen maita-
le aundiak izan bait ziran biak!

⁵ Ipar Amerika’ko Laterri Alkartuei, Euskaltzaindiak orain “Estadu Batuak” izen-ipiñi die. Gaizki. 50
Laterria aiek ez bait daude batuak, alkartuak baizik. Dakota’tik Arizona’ra eta Naine’tik Nevada’ra
Laterri alkartuetako bakoitzak bere nortasuna, bere izaera eta bere askatasun ezberdiña, ederki
gordetzen bait du. Batasuna, “zentralkeria” da. ETA’k eta ETA’reu girokoek ain maitea dutell
gauza. Eta anen aurretik Franco’k eta fatxista guztiek ain maite izan zutena: Aberri bat, Agintari
bat, Alderdi bat, Izkuntza bat.

Orregaitik, beste edozein batasun, ez da Euskeraren batasuna. ETA'k eta ETA'ren ingurukoek sortutako “el batua” ori, ez da Euskeraren batasuna, ez da batasun euskalduna, batasun “CASTELLANO” da, batasun ESPAÑOLA, arritzar baten antzera monolitikoa dalako.

Euskeraren batasuna osoki lortzeko naikoa da euskaldun bakoitzak bere Euskera ongi ikastea. Besterik gabe ulertuko ditu beste Euskerak, bat bera bait da danen barrunbeeko sustrai-sarea. Eta bere euskera ongi ikasitako euskaldun batek beste euskeretan idatzi nai ba'lu, naikoa luke beste euskera oien aditzjokua ikasteko saiotoxo bat egitea.

Guzti ori gaur oraindik errez lortu daitekean gauza dugu, gure eskuetan ditugun irrati ta telebisten bidez. Naikoa litzake ba zine-mintza bat Bizkaieraz, bestea Gipuzkeraz, albiste bat Gipuzkeraz, bestea Bizkaieraz ematea, jardunkera orri eskerrak Bizkai'ko umeak sei illabeteren epe laburrean Bizkaieraz bezain ederki mintzatuko bait lirake Gipuzkeraz. Jende aziak ere ez lituzke ortarako bi-iru urte baiño geiago beariko. ¿Oartzen al zera zeifen bizkorturik egon zitekean gaur Euskera, autonomia birreskuratu genuan unetik era ortan lanean asi ba'giña?

Neronek agertu nion ori dana orduan Eusko Jaurlaritzan kulturako ministroa genuan Ramontxo Labayen nere erritarrari, ikustatzera joan zitzaion Euskerazaintzaren ordezkari-talde batean tarteko nintzala.

Ez dut uste arazoaren larritasunaz jabetu zanik. Baztar guztietatik eragozpena ta zailtasuna besterik ez bait zuan ikusten. Aitzaki ustel utsa guzia. Au bait zan egia: ordurako “elbatuazaleen” aldera makurturik zegoala, naiz berak antxe bertan aitortu, bere seme-alaben ikastolako liburuak, “elbatua”z idatziak danak, ez zituala ulertzen.

Euskerak berezkoa duan batasuna nolakoa dan oartzeke, begien aurrean genituan Gazteleraren eta Frantzeraren batasun monolitikoak lilluraturik ibilli gera –erria ez– baiña bai gu, gure burua kulturaduntzat geneukan euskaldun guztiok. Ortarako sortu zuten Euskaltzaindia 1918'an, benetan kultur-aundi-dun izandako Jaun eraspengarri aiek. Baiñan gaizki egin zuten. Ortan atzipeturik ibilli ziran.

Ortan, –eta esatera noana edozeiñek egiztatu dezake gure jardunkera aztertuz–, gu, euskerazaiñok, bide zuzenetik ibilli gera, soilki Erriaren Betiko Euskera Laukoitza, dan bezalakoa “el batua”ren erasotik gorde ta salbatzeko, Euskerazaintza sortu genuanean. Pozik oroitu izan dut beti, ni izan nintzala ainzuzen, 1978'an Euskaltzaindiak Bergara'n bildutako batzar nagusi artan, Akademi berri bat sortu bearraz mintzatu nintzana⁶. Esango dut nola. Aurretik, ordea, azaldu dezagun “el batua”ren sorkuntza nolakoa izan zan.

G): **Nork sortu zuan “el batua”?** Nere erantzuna, beti izan da bat: “El batua ¿nork sortu zuan? ETA'k”. Arrazoi ematera etorri zitzaidan Txillardegi bara, Bergara'ko batzar arfan jende guziaren aflrrean “*lbatua ETA 'ren giroun sortua da*”, oi u egin zuanean. ez zion iñork etezkorik aman. Ez zan iñor arritu, danok ondo genekien gauza bait zan Txillardegi egia esaten ari zala.

Illabete bi-iru leenago esan nuan nik Gazteiz'en apaizen billera babean: “*El Batua? El Batua es el mayor triunfo de la rama cultural de ETA*”. ETA'ren garaitzarik aflndiena, bai! Nolakoa gaiñera! Gaur “el batua” Euzkadi osora garaille zabaldurik bait dago.

⁶ Ez dut, orrekin, Euskerazaintza nik sortua izan zanik esan nai Euskerazaintzaren sorketa Kardia-beraztar guztien lana izan bait zan. Nik emen asiera artan egin nuan pittitiña aipatuko dut. Asko dira orduan, eta geroago, Euskerazaintzaren alde lan bikaiña egin duten euskerazaiñak. Ez genuke ezer galduko –bai ordea asko irabaziko– bakoitzak egin zuana idatziko ba'lu.

Garaitza miraritsu orren zioa ezagutzeko, bi une ezberdin bereizi bear dirá “el batua”ren edestian: Sorkuntza eta Zabalkuntza.

– A): Sorkuntza: Baiona’n sortu zan ETA, eta Baiona’n sortu zan “el batua”. Biak batera, gutxi-gora-bera. Franko’k erbesteratutako abertzale ezkertiarren artean. Bi gizon zebiltzan an 1950’ren erdiaz gero, Euskerarentzat batasun **laico** bat sortu naiean; Azkue’ren “Gipuzkera Osotu” ura apaiz baten lana bait zan. Eta batasunerako bide ura ontzat artu zuten idazleak ere geienak apaizak bait ziran; eta apaizak ez ziranak, naiz apaizak izan ez, aiek bezain jainkozaleak ziran giza-kumeak.

Egia esan, ETA sortu aurretik, idazle guztiek eta erri osoak onarturik zeukaten Azkue’ren jardun-bidea!⁷.

Beste batasun bat, apaiztasun-usairik gabeko batasun bat bear zuan, ordea, orduantxe, Euskalerrria salbatzeko, ernetzen ari zan Iraultzak!

Batasun berri orren billa, Federiko Krutwig elbatuazaleen eta etatarren San Pablo, ta Gabriel Aresti olerkaria, aipatutako jende oien jermias, lanean asiak ziran, 1960’garren artera iritxi aurretik. 1963’an José Luis Alvarez Enparantza “Txillardegi” “el batua” orren Judas Makabeo alkartu zitzaiean, eta arrezkero, au, Txillardegi, izan zan ekintza oso aren eragille eta zuzendari. Esan ere esan izan bait da Txillardegi dala “el batua”ren alta. Danadala, izen oiek: Krutwig, Aresti, Txillardegi... ETA dira!!! Zu ere, bearbada, entzunik egongo zara, “ETA’ren alta ere Txillardegi izan zala”.

Jaun oiek, ordurako irabazirik zeukaten jendearekin, Batzar bat egin zuten 1964’ean, eta an idatzia izan zan “Baiona’ko Biltzarraren Erabakiak” zeritzan txosten arek, *“despertó a pesar de su brevedad, un vivo interés entre un importante núcleo de escritores (“núcleo” txikia eta ez ain “importante”, idazlerik geienak eta onenak orduan ere aurka bait zituan) y de profesores de las recién creadas ikastolas y campañas de alfabetización”* (auek bai, auek danak izan zituan alde; auek ordea, danak, “moraliter omnes”, “esate baterako danak”, ETA’ren girokoak bait ziran).

Orduan idatzi nituan, “Euskerazaintzari Epaiketa” izeneko liburuan, onako itz auek: *“Ikastolak jeltzaleen diruarekin Elizaren babespean izan dira sortuak, baiñan gaur ez dira ez jeltzaleenak ez Elizarenak”*. Eta orduan esan zuan On Joxemiel Barandiaran’ek, *“apenas hay una ikastola que no sea atea”*. Iperbole aundia, baiñan iperbole guztiek bezala, naiz era gogor latzean esana egi borobil bat adierazten duana.

Gero 1968’an Arantzazu’n Batzar bat egin zuan Euskaltzaindiak; bezperan, billera bat Ermu’n ETA’ren giroko “elbatuazaleek”. Billera ortan, zin egiñez, au erabaki zuten: “Euskaltzaindiarekin edo Euskaltzaindiaren aurka, “el batua” Euskalerrri osoan ezarri arte borrokan jarraituko zutela”.

Bigaramonean, aien naikerira jausi zan Arantzazu’n Euskaltzaindia, eta Euskalerrriko Izkuntz Ofiziala izendatu zuan “el batua”.

Legeztatze arrigarria izan zan ura. Iku:

– *Euskaltzaindiaren batzarretan, bere arauen legera, soilki euskaltzain osoak dira autarki-emalleak.*

– *Orduan euskaltzain oso geienak “el batua”aren etsaiak ziran.*

⁷ Azkue marxista izan ba’litz, nere idazlan onek ez zuan gaur, idatzia izan bearrik izango. Eta Arana Goiri’tar Sabin, kristau zintzoa izan bearrean komunista edo sozialista –marxista beintzat– eta Pablo Iglesias’en adiskide aundia izan ba’litz, gaur ez genduan “el batua”rik izango, Baiona’ko mutil irailtzalari aiek Euzkadi guztirako aukeratutako Euskera BAKARRA Bizkaiera izango bait zan.

– Alare ofizialki onartua ta legeztaua izan zar an “el batua”.

Ori nola izan daitekean?

Orduan Batzar artan Lendakari eta zuzendari izan zan Lekuona'k berak eman-go dizu erantzuna.

– Batzar artan ez zan autaketarik izan.

– Ez zan, ezta, “el batua”ren aurka itzegiteko askatasunik izan. Ortara ausartu ziran euskaltzain osoak, naiz adinaz, jakintzaz, eta egindako lanaz, txit eraspen-garriak izan, era zakarrea izan ziran oiuka isilleraziak.

– ¿Nola izan zan bâ “el batua”, batzar zikiñ artan ontzat artua? “Aklamazioz”. (Lekuona'k berak darabilkian itza).

– “Aklamazio” ori ez zan euskaltzain osoek egiña izan. Nork bâ? Bezperaz zinketa ura egiteto Ermu'r' bildu ziran politika-ardoz mozkortutaho iraultzalari gazteek.

– Baña “aklamazioz” ez daiteke alako erabaki ain garrantzitsu bat artu; askoz gutxiago alako “aklamazio” baten bidez. Baliorik gabea da, beraz, Batzar artan onartua izan zan guzia.

Lekuona'ren azalpen oiek, bere “Lan Guztien Bilduma”ra bilduak izan diran bi idazkitan aurki dezazkezu. Argitaratu ditu “Euskerazaintza” aldizkariak ere.

Izugarria, nazkagarria, da idazki oietan Lekuona'k dioskuna. Alare, irakurtzen asten zanean, ez aztu Lekuona, beti, gauzak poliki, legun, eta, iñor aal zezakean gutxien asarretzeko eran, esatearen eta idaztearen zale izan zala. Orrela izango zera zu, Batzar ura zeñen negargarria eta lotsagarria izan zan oartzeko gauza.

Orduan galdu zuan Euskaltzaindiak ordura arte ondo irabazia zuan eraspen guzia, eta ez da, orduzkeroko, eraspen ori berrirabazteko gauza

l) **EUSKERAZAINTZAREN JAIOTZA.** Euskaltzaindia bere “el batua”ekin utzita Euskera zarra babestearren akademi berri bat sortzeko gogoeta burura nola etorri zitzaidan azaltzera noa. Nere buruaz itzegingo dut, ez arrokeriak eraginda, apaltasunak baizik, apaltasunaren muiña beti egia aitortzea omen da-ta. Egia esatera noa bâ

– Arantzazu'ko batzar arek, 1968'an, bere “el batua” erriak ontzat artu zuan edo ez jakiteko, amar urteren buruan beste batzar bat egitea erabaki zuan.

– 1978, egin zuan batzar ori Euskaltzaindiak Bergara'n: Era lotsagarrian, Erri eugialdunari bizkar emanez, Errito Eusteraren aldekoak giñanoi iseka egiñez, igarotako amar urte aietan iñori ezer esan gabe beraiek bakarrik isillean ibilliz, eta Batzar artan irakurtzeko beraiek bakarrik isillean gertututako txostenak, aurretik idazlerik onenen erakundea zan “Kardaberaz Bazkuna”ri eta orren antzeko beste Erakundeei, guk aztertuak izan zitezen bidali gabe, eta beraiek bakarrik egindako batere baliorik ez zuan ikerketa bat aizatuz.

– Batzar ori egitera zijoala jakin zuanean, “Kardaberaz Bazkuna”k ere billera bat egin zuan Tolosa'n eta naiz deitua izan ez ordezkari baten bidez Bergara'n egotea erabaki zuan. Nere gain gelditu zan eginbear orren zama. Ez nere merezimenduz, beste iñork bere gain artu nai izan ez zualako baizik.

Zorionez, joan ziran kardaberaztar geiago ere: Martin Olazar, Jexus Gaztañaga, Yon, Manu eta Dunixi Oñatibiatarrak, Augustin Zubikarai, Iñaki Zubiri... eta ederki lan egin zuten Erriko Euskeraren alde, utzi zitzairen beta laburraren neurrian.

– Yon Oñatibia'tarrarekin ibilli nintzan ni aste guzian. Oñate'ko agustindarren etxean apaldu ta lo egin; nere “bi zaldizko” baldarrean joan-etorri Oñate'tik Bergara'ra; eta alkarren ondoan eseri batzargelako itzaldi guztietan.

– Laister oartu giñan, Batzar ura ustelkeri gorria besterik ez zala. Ez, amar urtez aurretik Arantzazu'n erabaki zan bezala "el batua" erriak osotua zuan ikus-teko, "el batua" sendotu, legeztatu eta Euzkadi osorako izkuntz ofizial bakarra biurtzeko bildua.

– "Euskaltzaindiarentzat "el butua" dek, iadanik, Euskalerriko Euskera bakarra. Beste Euskerak lltzea nai dutela zirudik, –esan nion alboan nuan Yon'i.

– "Arrazoi dek", –erantzun zidan ark.

– "Bâ..., ori orrela ba'da, jorrai dezatela "el batua"rentzat legegintzan, baiña beste Euskeren gain eskubiderik ez ditek. Erriko Euskerak ez dik jaun auekin zer ikusirik, ezta Juan auek ere Erriko Euskerekin. Erriko Euskerari dagokion orotarako ¡JURISDIZIOA! ukatu bear zioat nik Euskaltzaindiari.

– Merezi dik, erantzun zidan irripar egiñez, eta, begi irilariz neri zearka begiratu-tuz. Ez bait zuan, itxuraz, ori egiteko gauza izango nintzanik uste.

Oñate'rako bidean, "Aizak, Yon, —esan nion—, Euskerazaintzari Euskerari buruzko jurisdizioa ukatzearekin ez diagu ezer egiten, Akademirik gabe uzten bait diagu gure Euskera zaar maitea. Eta iltzer dagoan une auetan Euskerak babes dagon Erakunde bat bear dik. Naitanaiezkoa zaiguk AKADEMI BERRI bot sor-tzea!

– Ez, ori ez. Mingarria dek Euskaltzaindia baztartzea. ¡lzan duan edesti bikaiña-rekin..!

– Euskaltzaindink, motell, kaka egin dik bere edestian. Yon. I Euskaltzaindikoa aiz urgazle bezala, ta maite dek Euskaltzaindia. Baiña au ez dek ire ta Azkue'ren eta Azkue'z geroko ainbeste ta ainbeste gizon jakintsu zintzoen Euskaltzaindia. Au, Ermu'ko ziñegille iraultzalarien eta ain atzetik dagoan indar illunaren Euskaltzaindia dek".

Isilik gelditu zan, oldozkor.

Nik, apal-ostean, Euskaltzaindiari Akademi berri baten bearra aitortuz, Bergara'ko batzarraren azken egunean batzarkide guztien aurrean irakurri nai nuan txostena idatzi nuan.

Bigaramonean Yon'i erakutsi nion. "Bapo. Ederki zegok au", esanez itzuli zidan.

Bergara'n txosten orren irakurketa guk uste baiño errezagoa gertatu zan. Itza eman zitzaidanean, jeiki ta Zuzendarien maiara urbildu nintzan. Zuzendari ei buruz agur egin, itzuli, ta batzarkideei begira irakurri nuan geldi-geldi sort bearra zan Akademi berri baten erronka eta paper ura Villasante Lendakariari eman nion, Eskerrikasko mintsu batekin artu zidan eskutik.

Irakurri aurretik, gogoan bait neukan aurreko jende gazte ura dana "elbatua-zalea" zala, ta ezagutzen bait nuan jende-mota orren Arantzazu'ko jardunkera, "badakit gatxiengo bat naizela. Orregaitik gutxiengoei zor zaien eraspenez entzutea eskatzen dizuet", esanez asi nuan nere lana.

Aitortu bearra dut, ederki entzuna izan nintzala, izugarrizko isiltasunean. Soilki Mikel Atxaga'k oi u egin zuan: "Ori txantajea da", baiña irakurketa bukatua izan zanez gero.

Batzar-gelatik irtetzean Martin Olazar urbildu zitzaidan asarre: "Txarto ibilli aiz, Bixente, gutxiengoa intzala esan dekanean. Emen bai, gela ontan gutxiengoa baiña or kanpoan eta Euskalerr i guzian geiengo aundia intzala, esan bear uan". Miñ eman zidan ori entzuteak, baiña Martiñ'ek arrazoi betea zuan. Ori esan bear nuan, eta ez nintzan ori esateaz oroitu. Ez zait sekulan aztuko nere orduango baldarkeri ura.

J) "El batua "ren zabalkuntza miresgarria. EAJ-PNV'ek Iruña'n egin zuan Franko'ren diktadurtza eriogarriaren ondorengo lenen Batzar Orokorra. An, Eus-

kerari zegokionez, Azkue'ren Gipuzkera Osotua artu zuan ontzat. Erabaki orrek, ordea, ez zuan EAJ'ren barruan batere eraginmenik izan. Arrazoiak?:

Lenengoa: Franko'ren azken amar urteetako epe zakarrean agertu zirala batera ETA ta "el batua". Jendea Franko'z nazkatu rik zegoan. Franko'ren aurka borrokan zebillen bakarra, itxuraz beintzat ETA zan. Kaleetako borrokan beintzat Bakarra. Orregaitik, Franko'z nazkatuta zegoan jende ark, batez ere zerbait egiten asteko gogoarekin zegoan gaztediak, baiña baita adiñeko jendeak ere kontzientzipeko atsegin goxoz artu zuan ETA'ren azalpena. Danek: abertzale guziek, eta abertzaleak ez ziranak: karlista batzuek, errepublikazaleek, sozialistek, komunistek⁸.

Jende auek ez ziran jendea tiroz iltzearen zale, ez orixe!, baiñan errezegi barkatzen zitzaizkion ETA'ri barkapenik ez zuten tiroketa odoltsuak.

ETA ta "el batua" batean agertu ziralako, eta ETA'tarrak danak "elbatuazaleak" ziralako, aisa usmatu zuan jendeak "el batua" ETA'ren zerbait zala, ETA bezala Franko'ren aurkako zerbait. Ori orrela izanik, unerik onenean agertu zan onera eta girorik egokiena aurkitu zuan emen "el batua" k onartu izateko. Eta onartua izan zan.

Bigarren arrazoa. Euskalerriko erdaldunak, askoz Euskalerriko geiengorik aundiena dira. Jeltzaleen artean ere geiago dira erdaldunak euskaldunak baiño. Bâ erdaldun oiek danak Gazteleraren batasunera oiturik daude-ta, ez dute ulertzen Euskeren ezberdintasun ori; txarkeri bat iduritzen zaie; eragozpen utsa, edo zertarako. Ondo etorria bedi eragozpena besterik ez dan ezberdintasun ori iltzera datorren "el batua".

Gure gazte euskaldunek batez ere, baiña baita euskaldun aziek ere orrenbesteko frankismo luze zakarraren denboran orotarako gazteleraz agin bear izan zuten ezkerero, gure erdaldunek bezala pentsatzen zuten eta pentsatzen dute.

Gaiñera, ¿"Europa'ko izkuntza bikain guztiak ez al daude bateraturik? Batera-tu dezagun bâ Euskera ere, izkuntza "moderno" biurtu dedin". Ori, noiznai entzungo diezun arrazoiaketa duzu.

Oroitu bearra da baitare Arantzazu-aurreko Euskaltzaindiak irabazitako ospe galant ura guzia. Gizon aundiak bait ziran Azkue ta Azkue'ren ildotik jarraitu zuten Jaun onuragarri guzti aiek.

Bâ Arantzazu-osteko Euskaltzaindi au, eta Arantzazu-aurreko ura bat bera dirala uste du jendeak, Arantzazu-osteko onen jardunkera baldarrik ezagutzen ez dualako; eta oni ere, ark ondo merezia zuan baiñan onek merezi ez duan, usteon eta sinistapen bera damaizkio. Itxu- itxuan!

Zoritxarrez gaurko gure jende onek izkuntzaren –eta politikaren– arazoetaz arduratu baiño naiago bait du, tabernaz-taberna adiskidetasun goxoan "txikito" batzuk artuz ibilli. Politikari-buruzko arazoak? Ortarako dago Alderdia! Euskerrari-buruzkoak? Ortarako dago Akademia. Badute bat Frantzi'n. Beste bat Españi'n. Badugu emen, Euskalerrian, ere. Arduratu bedi izkuntzaz bera. Akademi orrek darabilkian ardura era zuzenekoa eta zintzoa dan ala baldarra ta gaiztoa dan pentsatzen astea, iñori ez zaio bururatuko. Espiritu Santuari zor zaion siniste bera damaie Euskaltzaindiaren aginduei.

Irugarren arrazoa. Gu arazo oietan murgildurik genbillen bitartean gure Alderdi elbatuazale ezkertiar marxikeri-zaleek, beren giroko jendez bete zituzten Euskalerriko ta bereiziki ikastola ta la Eusko-Jaurlaritzako zoko guztiak, 1978'an

⁸ On Alberto Onaindia'gandik jakiña dut onako au: "Esos chicos de Vds. son verdaderamente valientes" esan omen zion Carrillo'k Paris'en On Manuel Irujo'ri ETA'k guardazibilekin titoketa bat izan ondorean. Ta, "Santiago, esos chicos no son nuestros chicos", Irujo'k erantzun.

Jaurlaritzaren aurretiko “Consejo General Vasco” artatik asita⁹. Arrezkero, “el batuaren” ezartzaille zakarra biurtuko zitzaigun gure Jaurlaritza. Batzuetan era lotsagarrian, Etxenike gure ministroak “H” artzen ez ba’duzute gugandik txakur txiki bat ere ez duzute jasoko, esanez Bizkai’ko Ikastolarik aundiena, ots, Euba’ko ikastola, zemaitu zuanean bezala. Geienetan ordea, gure ministroak ez dira beraiek, “elbaatuazaleak izan. ¿Zergaitik ez zuten “elbatua”ren lotsagabeke-ria gelditzeko ezer egin? Ausartu ez ziralako ote? Jaurlaritegia bera “elbaatuazale” ziran teknikalariz beterik bait zeukaten.

Laugarren arrazoia; mingarriena: Ez dakit zer urtetan gertatu zitzaigun au: EAJ-PNV’k, “el batua”z zer egin erabakitzeke, Batzoki guztietan irakurria izango zan Txosten bat eratzea eskatu zion Koldo Mitxelenatarrari. Ez noski gizonik ego-kiena..., baiñan laga dezagun ori besterik gabe¹⁰.

Dunixi Oñatibiatarra izan zan batzoki batzuetan txosten orren aurkezlea. Oraingoan Dunixi izan bait zan laguntza-eske etorri zitzaidana.

Ni izan nintzan irakurlea. Era ontan: Irakurri. *Ulertu al dezute?* galdetu. Danek buruaren keiñuz, ezetz, erantzun. Bigarren irakurketa, aurrenekoa baiño geldia-go. *Ulertu al dezute?* Lengo keiñua bera. Irugarren irakurketa, aurretik azalpen batzuk emanez. *Oraingoan bai, ulertuko zenuten noski!* Ezezko keiñu bera, berri-ro, eta batzokietako batean jeltzale baten oiua; ¿*“Ori al da guri sartu nai diguten Euskera”?*

Danak agertu zitzaigun “el batua”ren aurka. Pozik itzuli giñan bakoitza bere txokora.

Alditxo geroago ordea, Dunixi etorri zitzaidan paper batzuekin Gazteiz’era: gure Batzokiek argitaratutako paperak: danak “elbaatuaz” idatziak!

Bereala irten giñan ain batuaren etsai agertu zitzaizkigun gizon aiei zer gerta-tu zitzaien jakitera. Erantzun bera jaso genduan danen agotik:

“Bai: Zuek duzute arrazoia, eta oso-osoan gaude zuekin. Baiña gure seme-alabak, orain arte danak jeltzale eta kristau izanak, ETA’z, eta ETA’en izkuntza omen dan “el batua”z maitemindutzen asiak genituan aspaldi ezkerero, eta orain Alderditik eta Elizatik aterata, ETA’ra joan zaizkigu asko ta asko, eta ETA’ra joateko arrisku izugarrian ditugu danak. Eman dezaiegun, artaraiño garrantzirik ez duten gauzetan amore, ea oster Alderdira ta Elizara erakartzen ditugun.

Bai. Eman zan amore eta ematen da oraindik amore.

Zer lortu da? Ezer ez. Eta asko.

Ezer ez amore-emailleek. Ez bait dut uste amore-emate orrengaitik bat baka-rrik Alderdira ta Elizara itzuli danik.

Asko “elbaatuazaleek”: neurri aundian amore emate orren ondorioa bait da Euskera sukalde-Txokoetara baztaturik eta “el batua” Euzkadi’ko zoko guztietara garaille zabaldurik ikustea.

Era mingarri onek zuzenketarik bai ote du?

“Apez iaune: Gure erriak maiz galdu izen ditu bide zuzenak. Beño billatzen ditu gero atzera berriz. Oraingo ontan ere bide zuzena galduta dabil, beño billatuko du oraingoan ere. Dirala urte batzuk Xalbador bertsolariak esan zizkidan itzak dira. Gure bertsolari zarrek, Xalbador bezalako bertsolariak batez ere, bazuten profeten argi zorrotzaren txinparta bat.

⁹ Ori, arretaz antolatua izan zan. Ona, zer zan gure iraultzalarien egitaraua, beraienak diran itz aue-tan: *“Una labor de infiltración en el aparato de poder vasco, como son policía, medios de comunicación, cultura, educación, etc”*. (“Congreso EIA. Resoluciones”. 214-215 or.).

¹⁰ Koldo Mitxelena’ren jardunkerak ere merezi luke antropologiaren edo psikologiaren aldetiko azter-keta bat “el batua”ren alde erabili zuana ez bait da gizon zugar baten jardunkera.

Gaur, orain urte batzuk Deusto'ko unibersitatean Bizkaieraren etorkizunari-buruz ospatutako mai-inguru baten ondorean, Xalbador'i esakizun ura entzun nionean beiño siniste geiago damaiot. Ikusi bai genduan, gaztedi unibersitari talde mardul ura dana "el batua"z nazkatzen asia zala.

Lan ederra egin daitekeala iduritzen zait.

Zergaitik ez duan Euskerazaintzak lan ori egiten?

Adiskide. Euskerazaintzak txakur txiki bat ere ez dualako. Euskaltzaindiari, ez dakit zertarako, Jaurlaritzatik asita Erakunde guztiek dirua milloika ta milloika ematen dioten biartean, Euskerazaintzari ez dio iñork txanpon bat ematen.

Mezubide guztiak –irradi, telebista, ta egunerokoak, danak–, Euskaltzaindiaren esanera aurkitzen dira.

Mezubideetara Euskerak ez du sarrerik. Zergaitik? Euskera iltzea nai dalako "el batua" bizi dedin.

Mezubideetara Euskerazaintzak ez du sarrerik. Zergaitik? Euskeraren babesle dan Euskerazaintza ere iltzea nai dalako, Euskalerrian "el batua" bakarrik bizi dedin.

Baña izan al dezakegu guk gaurrengungo euskaldun guztiok barkapenik, erarik baldarrenean atzo sortutako izkera mordollo bati bizia emateko, edestiaurretik etorri zaingun Euskerari iltzen uzten ba'diogu?

LATIEGI'tar BIXENTE

BIZKAIKO EUSKERA ZUZENTZEN

(1) GURASOAK-AITAK

Erriak egiten dauan euskerea da euskera zuzena, baiña ba-dago gramatika bat edo batzuk Bizkai'ko euskerea zelan egin bear dan jakiteko arauak emoten dabezenak, orregaitik, gaur asten dogun arlo onetan geure eritxia agertuko dogu errian oker erabilten diran gauza batzuk zuzentzeko. Sarritan eztabadagarriak izango dira eta pozik artuko doguz beste batzuren eritxiak emen argitaratzeko.

Berrogeta amabi esaldi edo joskera edo berba oker erabilliak agertzen doguz.

ESALDI OKERRA: Ikastetxean: Zuen aitai esan egiezue eguastenean arratsaldeko 6'etan etorteko".

Oraindiño ez da asko zabaldu esaldi au edo antzekoak, baiña zabaldu baiño lenago zuzendu gura doguz.

Sendi-giroko itzetan euskerea askoz da aberatsagoa gaztelerea baiño eta gainera kuntze edo seksuak geiago nastatzen dau arazo au. Esaterako: "Vuestros hijos no están motivados para estudiar". Txarto euskeratua litzake: "Zuen semeak...". Beti esan bear da. "Zuen seme-alabak...". "Semeak" esan bear da mutillak baiño ez diranean.

Baiña artu dogun esaldi okerrean "aitak" eta "gurasoak" dira gaia.

Gaztelerez "padres" itzak illuntasuna dauka. Izan leiteke "aitak" edo "gurasoak".

Frantzeraz be "aitak" "peres" esaten da eta "gurasoak" "parents". Euskerea onetan frantzereagaz baterea doa, ez ostera gastelereagaz batera.

Esaldi zuzena onelan litzake: "Zuen gurasoai esan egiezue..."

Okerra geiago agertzen da oarra gasteleraz egiten danean. "Decid a vuestros aitas...". Beste era onetara esan bear litzake: "Decid a vuestros gurasos" edo "vuestros aitas y amas...".

Ez jat geiegi atsegin "aitaxus" y "amatxus". Maitasuna agertzen dan txiki-aitziki edo "diminutiboa" ez da erabilli euskeran. Iñoz entzuten da gaur "mesedetxu bat eskatzen nator". Dana dala, ez neuke ziur esango txarto dagoala, sartzen ba'da sartu daitela. Guk ez dogu "amatxu" iñoz esan, beti esan dogu "ama". Orain sarritan entzuten da "amatxu". Onartu beitel!

(2) JO-IKUTU

ESALDI OKERRA: "Gitarrea ikutu dot" "Kanpaia ikutu dau".

Esaldi oneik ez dira oraindiño asko zabaldu, baiña zori txarrez euskaldun barrien artean iñoz entzuten dira.

Erderaz bai esaten da "tocar la campana" edo "tocar la guitarra", baiña ortik ezin artu lei baimena euskeraz esaldi bardiña erabilteko.

Euskeraz, "Gitarrea jo dot" eta "Kanpaia jo dot" esan bear da. Iñoz esango ete dabe gaztelerez: "pegar la campana" edo "pegar la guitarra"? Ez dot uste. Ez gaittezan izan euskalduna makurragoak.

(3) GOI-KOMA

Oraingo onetan araua idazkera edo ortografikoa da: “Bizkai’ko” ala “Bizkaiko” idatzi bear da?

Gure idazkera-araua au da: “Izen bereziak (propioak) diranean beti banandu izena ta atzizkia goi-koma ori ipiñita. Eta arau onek bere oiñarria dau. Esaldi au idazten ba’dogu: “Jonek esan dau” ez dakigu “Jon” ala “Jone” izan dan izlaria. Edo “Sanperen egon naz” idazten ba’dogu ez dakigu “Sanper’en” ala “Sanpere”n egon dan. Koma ori goian ipintea oso argibide ona da, baiña gaurko idazleak goiko komatxu orreik kentzea eskatzen dabe, idazkerea gaitxago biurtzen dabelako eta ordenagailuakaz gaiztasun berezia dagoalako.

Arau ori nik aldatu egingo neuke eta ordez au ezarri: Goiko komatxua kendu eta uts bat itzi.

Zelan idatzi, orduan “Olazar’tar” eta “Olazartar” ala “Olazar tar”?

Lengo oiturea aldatzea da, baiña nik beti idatziko neuke “tar” ori berezitura eta koma barik abizen guztiakaz. Esaterako “Olazar tar”. Orrelan argi dago abizena zein dan eta komatxuaren eragozpena bein betiko kentzen da. **Martin’ek bai, “Martine” izan ez daiten.**

Martin ek edo (emakumea danean) Martine k idatzi.

(4) “PORKE”

Zergaitia agertzeko dan esaldia euskeraz apur bat gatxa da gaztelerea erabilteko oitu garanontzat. Onetan gaztelerea errezagoa da eta orregaitik doa sartzan euskeraren arerio aundia dan esaldi au. Batez be itxas-ertzeko errietan entzuten da:

ESALDI OKERRA: “Ezin dautzuk ordaindu, porke ez daukat nondik”

Gaztelereak zergaitia “porque” edo “que” aurretik ipiñita agertzen dau. “No ha venido Juan. Es que está enfermo...” o “porque...”

Bizkaiko euskereak era bi daukaz zergaitia agertzeko: “Ezin dautsut ordaindu, ez daukadalako nondik...” edo “ezin dautzut ordaindu, ez daukat nondik-eta”.

“Porque” ori ez daigun sartu euskerara. Orrek esaldi osoa aldatzen dau eta erdeldunen pentsaerea sartzeko geurea alboratzen dau. Euskereak egiten gaitu euskaldun.

(5) ZU IKUSI-ZURI IKUSI.

Gramatikearen eta Bizkaiko euskaldunen artean burruka bat dabil: Gure euskaldunek gramatikearen aurkako bideak artzen eta jarraitzen dabez eta gramatikariak euren aurka dabiltz zarataka. Nork edo zeinek irabaziko dau? Burruka au, beste alde batetik gauzea ikusita, izkuntza guztien arazoa da geiago edo gitxiago eta azkenean erriak irabazten dau, gramatikeak erriaren bideak arauetara ekarri bear dauzalako. Baiña zenbat denpora egin bear dau erriak gramatikearen aurkako burruka onetan? Iñork ez daki itaun oneri erantzuten.

Arazo ori argitzeko, ona emen gaurko adibidea.

Orain berrogei urte gazteak esaten eben? “Len ikusitzut edo” edo “atzo ikusi neutzun”. Gazteai beti esan dautsegu ori oker dagoala eta onelan esan bear dala: “Len ikusi zaitut” edo “atzo ikusi zindudan”. Baiña ez dauskue jaramonik egin eta gazte orreik berrogei edo irurogei urte egin dabez eta esaldi orreik oker esaten jarraitzen dabe. Gaur bizkaitarrik geienak jokabide oker ori darabille erri-izkuntzan, naizta euskera idatzian iñon be agertu ez oraindiño.

Onaiño eldu gara. Zer egin orain? Aditz-joko oker orreik onartu?

Ez dala eldu sasoia uste dot. Nik gramatikako arauari jarraituko dautsat oraingoz eta urte askotan izango dala orrelan uste dot: “Ikusitzut zure ule zuria eta zeu

be ikusi zaitut” edo “atzo Bilbao’n ikusi zindudan baiña ez dautzudaz ikusi zure zapatak”.

(6) “JOSEBA TA BIOK”

Zenbakiak bide dirala, izkuntza bakoitxak bere jokoak egiten dauz eta onartu-bearrekoak dira. Esaterako Israeldarrak ugaritasuna agertzeko zazpi zanbakia erabilten dabe: Jainkoaren aurrean diran zazpi espirituak. Gazteleraz milla erabilten da orretarako, baiña euskereak amaika erabiten dau: “Amaika bider artu dozu nire eskutik janaria!” Ona emen Eibar’en entzundako esaldia, erderaz: “Onze cosas para ver ya hemos nacido”. Esaldi onek euskeraz ondo joten dau belarria: “Amaika gauza ikusteko jaiok gara”.

Asko esateko euskereak beste itz bat erabilten dau, Bizkaian gitxienez: Makiña: “Makiña bat gizon ikusi doguz edatetxerik edatetxe!” Berba orrek ez dau ondo jotzen euskeran, baiña or dago.

Zenbakien arloan ona emen euskeraz baiño aurkitzen ez dan beste esaldi bat: “Joseba ta biok izan gara Errioxan”. Joseba ta biok iru izan bear leuke eta orrelan dira erderaz, baiña ez euskeraz. Euskeraz bi dira: Joseba ta ni.

(7) URTEN DOT-IGON DOT?

Aditz batzuk dagoz bizkaieran, berez igarogaitzak izan arren, igarokor lez jokatzen diranak. Ez dira asko baiña bai antxiñatik orrelan erabilten diranak. Eta tamala da. Ain da gure aditza burubide zuzenekoa! Olako salbuespen batzuk aurkitzea, mingarri jako gramatikariari.

Olakoak diran aditz bi aitatuko doguz: “Urten” eta “igon”.

“Gaur etxetik urten dot goizean eta eguerdi-aurretik mendira igon dot”. Ori orrelan esaten da Bizkai guztian. Eta beste era onetara izan bear leuke: “Gaur etxetik urten naz goizean eta eguerdi-aurretik mendira igon naz”.

Zertara erabiliko dogu?

Nik arazoa aske itziko neuke eta era biak onartu. Dana dala, ezin neike ezkutatatu neu “urten naz” edo “urten nintzan” eta “igon naz” eta “igon nintzan” erabiltearen alde nagoala barru-barruan.

(8) BEAR DOT-BEAR NAZ

Ez da sarritan argi agertzen zein dan obeto “joan bear naz” ala “joan bear dot”. Argi agertzen da aditz igarokorra: “ogia ekarri bear dot” Bardin jazoten da “ezin naz etorri” edo “ezin dot etorri” diñogunean. Beti dago zalantza bat bata naiz beste artzeko.

Alde batetik “bear” eta “ezin” izen-lagunak izan leitekez: “Ni etorri bearra naz” edo “ni etorri eziña naz”, baiña neure ustez “bear” eta “ezin” beti erabili bear litzaitez aditz igarakor lez: “Nik egun guztietan etorri bear dot” edo “nik ezin dot etorri egun guztietan” edo “nik ezin daiket etorri egun guztietan”.

Ezin ukatu, orregaitiño be, “bear”egaz obeto doala esaldi ori, “ezin”egaz baiño.

(9) BIZKAIKO EUSKAREA ZUZENTZEN

Beste leku baten esan dogu sendi-giroko izenak geiago dirala euskeraz gazteleran baiño. Eta an aitak/gurasoak itz bikotea aztertu gendun. Orain sendiko beste itz bikote bat aztertuko dogu: “Anai-arrebak/neba-arrebak”.

Itzaldi bat asten danean esaten diran berbak dira. Orregaitik zuzen dagozan ala ez jakiteko, itz egiten dauana nor dan artu bear da kontuan: Gizonezko batek itz egiten dauanean, “anai-arrebok” esango dau, baiña andrazko bat danean? “Neba-aiztok” izan bear leuke, baiña au ez da iñoz entzuten, bear ba'da orain-arte andrazkoak gitxitan berba egin dabelako erri-aurrean. Baiña beste batzutan norberaganako begirada barik egiten da berba, eta orduan “neba-arrebak” esan bear da, esaterako “guztiok gara gizakiak eta geure artean neba-arrebak”. Itzaldietan “Jaun andreok” be erabilten da.

Gaztelera beti esaten da “hermanos”. Nondik dator ba, euskerearen ugaritasun au? Gure sendi-izenak geiago diralako. Erderazko “hermano” esateko itz bi daukaguz: “nebea” neskearen aldetik eta “anaia” mutillaren aldetik. Eta askorengo erabilten dogunean erderazko “hermanos” izan leiteke “nebak” neskeak ba'diño, “anaiak” mutillak ba'diño edo bietarikoak ba'dagoz taldean, mutillak “anai-arrebak” esango dau eta neskeak “aizta-nebak” (esan dogu au ez dala entzuten).

Dana erreztuteko bide bat dago: Erderazko “hermanos” erabilten dan lekuan euskeraz “senideok” erabili.

(10) GIZAK ALA GIZONAK ALA GIZAKIAK?

Idazleak beti izaten dauz zalantzak bere idazkerea zuzena eta dan ala ez. Eta euskeraz zalantza oneik sarriagotan etorten dira. Auxe da gaur aztertuko doguna: Erderaz au esan lei: “Los hombres llevan viviendo sobre la tierra dos millones de años”. Erderazko “los hombres” ori ez da zuzena. Guk itaun aun egin geinke: ¿Y las mujeres? Baiña oraintsura arte erderaz “los hombres” esanda or sartzen ziran emakumeak. Orain asi dira zalantzak eukiten eurak be.

Euskeraz esaten ba'dot: “Gizonak lur-gaiñean milloi bi urte daroaz” “gizonak” itz ori ez dala egokia datort burura. “Andra-gizonak” izan bear leuke. Ala “gizak”? Gizak manku geratzen da. Ala “gizakiak”? Itz onek be nekez artzen dauz andrak, naizta gizonak baiño ohea izan. Ala “gizon-emakumeak”? Au ez. Au luzeegia da eta gaiñera “emakumeak” itza be ez da egokia: Gizonak be “emakumeak”, emearen umeak dira.

Aukera bat artu bear da eta nik gizonezkoak eta andrazkoak batera artzeko “gizakia” aukeratuko neuke eta onelan geratuko litzake esaldi osoa: “Gizakiak lur-gaiñean dirala, milloi bi urte dira”.

(11) IL-ERAIL

Euskereak atzizki edo sufijo asko dauko, orretan oso aberatza da, erdere baiño aberatsagoa, baiña aurrizki edo prefijoz, erdere da aberatsagoa. Euskerak oso gitxi ditu, bi edo iru. Baiña euskerak tartizkiak edo infijoak be ba-daukoz eta onein artean adizkia da bat: -ra. Tartizki au aditzaren barruan sartzen da eta esangura barria damotso. Esaterako: Egin/eragin, joan/eroan, ekarri/erakarri, ibilli/erabilli, ikusi/erakutsi, ikasi/irakatsi... Oneitariko bat dakargu oraingo onetan, gitxi erabilten dan arren asko erabilli bearrekoa: Il/erail.

“Il” aditza igarokorra naiz igarokaitza izan leiteke: “Gizona il da”/“Katua il dot”. Baiña erderazko “matar” esateko ez daukagu euskeraz itz egokirik, au be il esaten da: “Oillo bi il dodaz” edo “Bikotzak torre-etxeetan 6.000 il dabez” naiz “6000 il dauz Bin Laden'ek”.

Au da nik gaur egingo neuken esondapena: “il” beti erabilli “morir” naiz “matar” esateko, baiña beste notin bat ilten danean beti esan “erail”: “Ipar-Ameriketan gizakiak tximist-indarrezko aurkian erailten dabez” edo “gudan arerioak erailten

dira” edo “Kepak beronen anaia erail dau”. “Erail” itz au egokiena litzake “asesinar” edo “ajusticiar” esateko.

(12) BAKARRIK NOZ?

Izkuntza guztiak daukez maillegoak edo “prestamo” diran itzak. Euskereak be asko ditu: “Sustratoa” euskerearen azpian egoan izkuntzatik artzen danean, “adstratoa” alboan dagoan izkuntzatik artzen danean. Eta ez itzak beste barik, esaldi-jatorrak edo modismoak be bai sarritan. Esareako, aditz laguntzaillea erabilteko oitura ain zabala, latera edo latin deritxon adstratotik artua ei da. Gaur “maitatu dot” esaten dogu, baiña latiñaren eragiñez, “amatun habeo”. Orrelan ba, euskeraz jatorra “dakust” litzake eta latiñaren eragiña “ikusten dot”.

Baiña goazen gaurko arira: Zer esan gura dau “ogei gizon bakarrik etorri ziran?” Ogei ba’ziran ez egozan bakarrik. Obeto esana litzake. “Ogei gizon baiño ez ziran etorri”.

Arau lez au ezarri daigun: Erderazko “solo” edo “solamente” adierazteko, euskeraz era bi dagoz: bata “baiño ez” eta bestea “bakarrik”. Azkenengo au bat danean erabili bear da. Adibideak: “Que vengam solamente los hombres”. Ez: “gizonak bakarrik datozele”. Bai: “Gizonak baiño ez daitezela etorri”. Ez: “erdia bakarrik jan dot”. Bai: “Erdia baiño ez dot jan”. Bai: “Datozenak, bakarrik etorri daitezela, ez lagunakaz”. Ez: “Nik eun pezeta bakarrik daukadaz”. Bai: “Nik eun pezeta baiño ez daukadaz”. Ez: “eta ez itzak bakarrik”. Bai: “eta ez itzak beste barik”.

(13) DANA-GUZZIA

Erderazko “todo” esateko, itz bi daukaz euskereak: “dana” ta “guztia”. Latiñak be bi eukazan: “omnis” eta “totus”. Nik euskerazko “guztia”ri latiñezko “omnis”en antza aurkitzen dautsat, eta euskerazko “dana”ri latiñezko “totus”en antza.

Zenbatu ezin dan gauzea danean, “dana” erabiliko dogu: “ura dana edan dau” edo “esnea dana artu dau” edo “ogia dana jan dau”.

Zenbakiak erabilteko aukerea dagoenean edo “gai konmensurableak” diranean, orduan “guztia” erabili: Ez: “iru ogi egon dira eta danak jan dauz”. Bai: “iru ogi egon dira eta guztiak jan dauz”. Bai: “Ogei gizon jausi dira itxasora eta guztiak (ez danak) ito dira”.

Arau onek ba-dau beronen oiñarria: “Dana” ez da besterik “dan a” baiño. “Ogia dan a jan dot” edo “dana jan dot”. Ez: “bost ogi egon dira or eta danak jan dodaz”. Esatekotan “Bost ogi egin dira or eta (egon) diranak jan dodaz”.

Ikusten da orain “dana” eta “totus” antzekoak dirala? eta “onmes” eta “guztiak” antzekoak dirala?

(14) “JOSEBE LENGUSINA” ALA “LENGUSIN JOSEBE”

Esaera au sarritan entzuten dogu Bizkai Irratian eta ortik errira be sartu da. Berandu ete natorren nago. Baiña ez noa izten esan barik.

Senideen izenak ipiñi aurretik ipinten dabe senide orokorra eta alderantziz dala uste dot errian. Adibide bategaz obeto ulertuko da: “Zorionak emoten dautzuz zure lengusin Anek”. Askoz obeto joten dau nire belarrietan “zorionak emoten dautzuz Ane zure lengusiñak”. Eta olako esaldi asko entzuten doguz Bizkai-Irratian.

Baiña onek beste gauza bat, antzekoa, dakarsku burura: Zelan esan bear dogu lekaide edo fraille bat danean: “Aita Joakin” ala “Joakin aita”? Agertu dogun

eritxiari jarraituz, emen be bardin izan bear leuke: “Joakin aita” edo “Santi Aita”, ez “Aita Santi”.

Eta ain maite dogun Bizkai Irratia aitatu dogun ezkeru, beste esalditxu bat aita-tu daigun, edo, obeto esateko, beste aditz bat: Zer da euskeraz “zoriondu”? Nire ustez, “zoriontsu biurtu”, baiña ez “zorionak emon”. Laburtzearen erabilten dogu “zoriondu” itza orretarako, baiña apur bat kosta arren be, “zorionak emon” esan bear geunke. Onelan: “Josebe alaba ona da eta beronen ama zarra zoriondu egi-ten dau zartzaroan”. Baiña ez “Josebe alaba ona da eta aitzu barik urtero zorion-zen dau ama Bizkai Irratiaren bidez”. Obeto “zorionak emoten dautsoz amari...” Beste leku baten azalduko dogu “zorionak” ala “zoriona” esan bear litzaken.

(15) “BA” ALA “-N”?

Gaztelereak dauzan illuntasunak errez-errez sartzen jakuz euskerara.

Ona emen bat: “Dime si quieres”. “Si” ori izan leiteke galdera: “Esaidazu nai dozun ala ez”, edo “esaidazu zeuk nai ba’dozu”. Erderaz esaldi bietan erabilten da “si”, baiña ez euskeraz. Galdera danean azkeneko -n erabilten da, eta ba’ baldintza danean: “Esaidazu gura dozun ala ez”, “esaidazu zeuk gura ba’dozu, eta gura ez ba’dozu ez esan”.

Beti ez da argi-argi agertuko itauna ala baldintza dan, baiña geienetan bai. Ez esan ba iñoz be olakorik: “Andoni gaisorik ba’dago jakin gura dot”. Emen esan “dagoan”. Bai oster: “Gaisorik ez ba’dago, datorrela gaur”.

Ez daiguzan galdu euskerearen argitasunak, aberastasunak eta egokitasunak.

(16) NAIZ, EDO, ALA

Ona emen beste aberastasun bat euskeran, gitxienez Bizkaikoan. Erderazko “o” banatzaillea agertzeko area. Gaurko onetan “edo” eta “ala” kontuan artuko doguz. Ba-dago gaiñera “naiz” edo “nai”: “artoa naiz garia onak dira orea egiteko”. Au bai baietza emoteko.

Bizkaiko euskereak ondo bereizten dau noz erabili “edo” eta noz “ala” Gipuzkoan gauzea ez dago ain argi.

“Edo” erabilten dogu baietzaren edo ezetzaren esaldietan: “Kepa edo Miren ez daitela etorri gaur, saria artzeko”. “Kepa edo Miren ez daitela etorri gaur, saririk ez dago-ta”.

“Ala” erabilten da zalantza edo itauna danean: “Zein etorriko da, Kepa ala Miren?”. “Ez dakit garia ala artoa artzen dan geiago gure soloetan”.

Txarto esanak esaldi oneik: “Il ala bizi bardin da”. “Il edo bizi ez da bardin”. “Zein etorriko da, aita edo ama?”. “Ez dakit zein dan ohea, artoa edo garia”.

Ez naz ausartzen “naiz” erabilteko arauak emoten, baiña esaldi oneik adibide lez ipiñikeran, noizean bein “naiz” etorten izan jat miñaren erpiñera. Ba-dirala arauak dirudi.

(17) ADITZA GALDEGAI

Galdegaiak garrantzi aundia dau gure joskeran. Ez aitzu Bizkaian joskerea obeto erabilten dogula beste auskalkietan baiño.

Galdegaia zer dan eta zelan erabilten dan ikasteko urrezko liburua dozu Adolfo Arejitarena. Darabiltzan gramatika-izenakaz ez nator batera, esaterako “menpeko esaldia” (subordinada esateko), baiña liburua egokia ta ona da, argitsua da.

Zeozer esaten dogunean zer itandu dan edo zer dan garrantzitsua jakin bear dogu, eta ori aditzaren aurrean ipinten da, esaldi osoa izanda be bai.

Ona emen adibideak: “Gaur Andoni gabaz etorri jaku etxera”. Noz? “Gaur etorri da Andoni etxera gabaz”. Nor: “Andoni etorri da gure etxera gaur gabaz”. Eguenez ala gabaz? “Gaur Andoni gabaz etorri da etxera”. Nora? “Andoni gaur gabaz etxera etorri jaku”. Zer egin dau Andonik? “Andoni etorri egin da etxera gaur gabaz”.

Aditza bera galdegaia danean ipinten jako ostean “egin”.

Izen baten ordeaz esaldi osoa be izan daiteke galdegaia: Zer?

“Etxera etorteko esan dau osabeak”. Nork? “Osabeak esan dau etxera etorteko”. Zer egin dau osabeak? Etxera etorteko esan egin dau osabeak.

Ete dago bigarren lekua artu bear dauan galdegairik? Baietz dirudi, baiña ez da erreza arau zeatzak emotea. Bardin ete da galdegaien aldetik “Gaur Andoni etxera etorri da gabaz” edo “gaur gabaz Andoni etxera etorri da? Ez dago argi-argi baiña zeozer ba-dago or. “Gabaz itzak bigarrenean garrantzi geiago dauala dirudi”.

(18) “GAINEAN”

Gaseleraz “sobre” itz-aurrekoak “gaiñean” esan gura dau, baiña batzutan autu-gaia be agertzen dau: “Hablár sobre la fe”. Bigarren esangura au ekarri ete lei euskerara eta “fedearen gaiñean berba egin” esan ete lei?

Bizkai guztian esaten da orrelan eta ondo dagoala dirudi, baiña or indar aundia dauka Azkue’k bere morfologian diñoanak. “Gaiñean” ez dala erabilli bear ola-koetan diño eta adibide lez au dakar: Lekeition eleiztar batek au itaundu ei eutson sakristauari: “Zeren gaiñean egin dau berba gaur abadeak?” Eta au izan ei zan sakristauaren erantzuna: “Pulpituaren gaiñean”. Orregaitik, aspaldion gure idazleak ez dabe erabilli “zeren gaiñean” gaia agertzeko. Erabilli bear dala? Bego.

Baiña ezetz diñoگونok zelan esan “sobre” ori gaiari buruz?

Izer ordea danean “tzaz” erabilten da. “Nitzaz zer diñozu?” Baiña ez “fedea-tzaz zer diñozu”. Izen-ordea ez danean, -z azkenekoa erabilten dabe batzuk: “Fedea berba egin”. Beste batzuk “buruz” erabilten dabe: “Fedeari buruz berba egin”, edo “buruz”en ordeaz “begira: “Fedari begira berba egin”.

(19) “ETORTEN” ALA “ETORTZEN”

Idazleak bere zalantzak izaten dauz oiturazko aditza erabiltean. Zelan idatzi “etorten” ala “etortzen”, “argituten” ala “argitzen”, “indartuten” ala “indartzen”...?

Giputzak “-tzen” erabilten dabe “Morfolojia” beronen liburu ederrean eta eskualde bietakoentzat araubide bat eskintzen dau, gure ustez araubide oso egokia.

Azkue aundiaren ustez, “-tuten” agertzen danean, “-tzen” biurtu bear da Gipuzkoan. Ona emen adibideak: kendu-kentzen, maitatu-maitatzen, zapaldu-zapaltzen, emon-emoten, ekarri-ekarten, ibilli-ibilten, joan-joaten, ekin-ekiten, jan-jaten, apaldu-apaltzen, goizaldu-goizaltzen, jagi-jagitzen, eroan-eroaten, adoretu-adoretzen, indartu-indartzen...

Araubide au oso egokia dala deritxot, baina ez dakit eritxi bardiñekoak izango diran gure anai-arreba giputzak.

(20) “ARA EMEN”

Bizkaiereak dauzan oker batzuk zar-zarrak dira eta tamalgarria da aldatzea, esaterako “ara emen”.

Esan daigun, lenengo ta bein, lenengo abots bakartia (bokala) luzetuaz iragar-ten dala ori konturatu barik“aan dator Miren”. Ori antxiña “ara an dator” zan, baiña gaur sarritan erabilten da “aan” ori.

Bikoteen alkartzean onelan egin bear dirala diñosku gramatikalarien arauak: “ona emen”, “orra or” eta “ara an”. Burubide zuzenekoa dala dirudi alkartze orrek.

Baiña begiratu dagigun eleiz-abesti zarra dan “Ogi zerutik” eta onako au aurkituko dogu: “Bildots santua, ara emen non dagoen lurra zeruaz bat egiten”. “Ara emen” ori edo erriak esaten dauan “aamen” txarto dagozela esango dogu? Ezetz uste dot, baiña nik idatzikeran beti erabilliko dot “ara an ”edo “ona emen”. Ez “aor”, bai “orra or”.

(21) “BENO”, “KLARO” “SIKERAN BE“

Erdereak “katxaba-itx” edo “muletilla” asko erabilten dauz eta ain sarritan entzuten doguzan lez, itx orreik euskerara sartzen jakuz eta ez leukee sartu bear, edo bearrezkoak ez diralako edo euskeraz beste batzuk daukaguzalako.

Esaterako mingarria izaten da gure belarrientzat euskeraz alkar-izketa egiten danean ainbeste bider entzutea “bueno” edo “beno”. Orren ordeez errez esan lei: “bai” edo “ederto”.

Sarritan entzuten dan beste katxaba-itx bat “klaro” da eta errez-errez artu lei onen ordeez “jakiña”. Esaterako: -yo no quiero beber vino”. Erantzuna? -¡Claro! “Ya se ha cubierto tu cupo! Euskeraz?- Ez noa ardaurik edaten! Erantzuna:“Jakiña (ez klaro), samaraiño betetuta zagozelako da ori!

Beste asko be ba-dira sartu diran katxaba-itxak, guztiak alboratu-bearrekoak: “Aunkesea bat emoistazu!”, “sikeran be! Ordua izan da etorteko”!

Laugarren atalean agertu gendun, oraintxe, batez be itxas-aldean, sartzen asi jakun “porke” lotsagarria.

(22) “DAGON” ALA “DAGOAN” ALA “DAGOEN”

Gramatikalaria, erritik artuta, arauak ezarten dabez, gaztelerazko Akademiak bere ikur-esaldian diñoan lez izkuntza “garbitzeko, sendotzeko ta argitzeko”, baiña erriak bere jokabideak aldatu egiten dauz eta sarritan jakin be ez dau egiten gramatikarik dagon. gero idazleak zalantzan geratzen gara ziñeri jarraitu ez dakigula, ala erriaren bideari ala gramatikako aruari. Ori jazoten da gaur aztertu bear dogun gramatika-arazo onetan: “Garbiñe etxean dagola (ala dagoala?) entzun dot “ edo “ez dakit Garbiñe etxean dagoan (ala dagon?) ala joan egin dan”.

Ona emen burura jatorren arau bat: Bitarteko “a” ori, izen-ordea danean baiño ez erabilli. Emen izen-ordea diñodanean erderazko “relatiboa” da: “Etxean dagoan Garbiñe ikusteko etorri naz”, “Ez dakit Garbiñe etxean dagon”. Nik ez neuke iñoz bitarteko “a” ori sartuko esaldi txikia aderazten dauan, “la” ezarteko:“Etxean dagola entzen dot”, “biar datorrela esan dau” (“e” ori betegarria da, besterik ez). “Erregeak gudari guztiak datozela agindu dau” bardin “e” betegarria da). “Joan bear dauana doala eta etorri bear diranak, datozela”.

Orrelan ez neuke onartuko “dagoana dagoala, jaurti egizu danbadea”. Beste onetara bai: Dagoana dagola, jaurti danbadea”.

(23) “NIRI” ALA “NI ENTZUN”?

Aditz batzuk euren bereizitasunak izaten dabez, errian ondo errotuak, eta ez da ain errez ikusten euren araubideko zuzentasuna. Esaterako: “Entzun”.

“Entzun” aditzak “nori” joko illun bat eskatzen dau. Ez dogu esaten “ni entzun

nau”, bai, ostera, “niri entzun daust”. Argi ikusten da egozkizun zuzena dauanean: “niri entzun daust egin dautsodan eskaria”. Beste batzutan onartzeko lakoa izaten da beste au: “sagua olean zarataka ebillen eta Julen ek entzun egin eban (ez entzun egin eutson).

Arau estuegirik emon barik, egozkizun zuzenena errez ikusten danean erabilliko neuke “nori” jokoa eta egozkizun zuzena errez ikusten ez danean, “nork” jokoa: “eskaria isilllean egiten dodanean be, ama onak entzuten nau (edo entzuten daust).

Ez da erreza euskerearen illuntasun au argitzea eta onena dagoanean iztea izango da.

(24) “ZORIONAK” ALA “ZORIONA”?

Gabonaldian ugari eta urtebetze-eguna danean sarri, entzun eta entzun edo ikusi eta ikusi ibiltzen gara edonon “zorionak” itza, erderazko “felicidades” euskeratuta.

Erderazko itz ori ez dago ondo: “Muchas felicidades” baiño obeto legoke “muchas felicidad”, zoriontasuna aundia edo txikia izan leiteke, baiña beti izaten da bat, ez asko.

Euskaldunak ortik artu dogu “zorionak” itza, eta ez geunke esan bear orrellan, “zoriona” baiño.

Adibide batzuk: “Gabon eguna da eta egun onetan zoriona opa dautzut”. ZORIONA GUZTIO!!

Edo “zoriona zuri, Zuriñe, amar urteak betetzen dozuzan egun onetan”.

(25) EGUNON?

Aztertu daigun gaur, egunon-agurra zelan egin.

Iparraldeko euskaldunak, frantzetarrai jarraituz, bide au artu dabe orretarako: “Egunon” esaten dabe goizean asi eta arratsaldeko zazpiarak arte. Zazpiretatik amarretara “arratsaldeon” eta amarretatik aurrera “gabon”. Frantzetarrak lez.

Gaztelereak ostera onetan oker jotatzen dau: “egunon” ordu biak arte, “arratsaldeon” illundu arte eta “gabon” illundu ezkerro. Baiña nik itaun au egiten dot: Ordu bietatik aurrera “arratsaldeon” esaten dan lez, zergaitik ez goizean “goizon”? Edo goizean “egunon” esan bear ba’da, zergaitik ez dau balio agur orrek arratsaldean, eguna izanda?

Egokiagoa dala derixat iparraldeko jokabideari eta nik emen be artu egingo neuke: Egun osoan “egunon” eta arratsa ur dagonean “arratsaldeon”. Zazpirak ez da ordu txarra aldakuntza egiteko. Eta ogerako orduan, amarrak?, “gabon”. Noizean bein entzuten dodaz beste esaldi batzuk: Eguerdian “eguerdion” eta illuntzean “illuntzeon”. Markinaldean esaten ete da au? Nik esaldi oneik ez neukez onartuko.

(26) “BERE” ALA “ERE” ALA “BE”?

Bizkaiko euskereak gipuzkoeratik asko artu dau eta artzen dau, baiña larregi ez daigun artu. Danean da ona neurria. Au diñot “ere” gipuzkoakoa artu dabenentzat.

Gai au aztertzeke itaun au egingo dot: “Bere” ala “be” ala “ere”?

Goian esandako zioagaitik “ere” alboratu bear dogu: Bizkaian iñon be ez da esaten eta itz orren bear-izanik be ez dogu somatzen.

Orduan, “bere” ta “be”ren artean aukeratu bear dogu eta nik, zalantza barik “be” aukeratzen dot. Ondo dakit “be” ez dala besterik “bere”ren laburpena baiño. Alde orretatik “bere”ren alde nengoke, baiña “bere” orrek sarritan illuntasuna sortzen dau beste “bere” bategaz. Esaterako “Peli’k bere semea maite eban eta Kokiñe’k bere semea ezin izan eban aitzu”. Or ikusten doguz “bere” bi esangura bardiña ez daukenak eta irakurkeran naiz berba egikeran nastea ateraten dabenak.

Eta “bere” bakarra danean be, sarritan, zalantza etortzen jaku zein “bere” ete dan. “Josebak bere ogia jan eban”. Dana irakurri artean ez da jakiten “Josebak bere” ala “bere ogia” izango dan.

Oztopo bi orreik alboratzen doguz norena dan agertzeko beti “bere” eta baie-tza ziurtatzeko beti “be” erabilli ezkeru.

Gaur zelan idazten dan eta zelan berbaz erabilten adan begiratzen ba’dogu, era biak aurkituko doguz.

(27) “TSUT” ALA “TZUT”?

Nori-arloan “zuri” jokoa artzen dogunean, sarritan ikusten dot “tsut” idatzita eta badaukat susmoa or errazoi diakroniko edo izkuntzaren edestikoren bat dagola. Jaime Kerexeta zanari iñoz entzun be entzun neutsan, baiña ez ulertu. Orregaitik nik “tzut” erabilten jarraitzen dot.

Adibideakaz argituko dogu gauzea obeto.

“Dirua emon neutzun” edo “dautzut”. (zuri-jokoa da, orduan “-tzut”).

“Eskutitza dakartzut”

“Emen natortzu”. “Or joatzu”.

Zuri-jokoa barik ari-jokoa danean, argi dago: “Dautso”.

Aditz-joko au aztertzen diardugun ezkeru, beste itaun bateri be erantzun be-rraan aurkitzen gara: “Dautzu” ala “deutzu”?

Nik “dautzu” idatziko neuke eta zio onetan oiñarritzen naz: Euskerearen joke-rea da abostegi-arloan “au” dagon lekuan “eu” esatekoa. Ori itz askotan agertzen da eta bat oso zabal dabillena “gaur” idazten doguna Bizkairik geienean “geur” esaten dogu.

Gaiñera nik uste dot jatorriko aditza “daut”, “dauzu” “dau” “daugu” “dauze” “daue” izan zala, “au” idatzia “o” biurtzeko jokerea be ba daukalako euskereak: “Auka” “Oka”, “Laudio” “Llodio”. Erdereak be ba-dau jokera ori: “Causa” “cosa”. Orregaitik aditz baturik egin bear izatekotan, “Dut” artu barik “daut” artuko neban, ortik etorriak diralako “dot”, “det” eta “dut”,

(28) ORDU BATAK?

Orduak euskeraz esakeran, gure erriak norabide gitxi izan dau eta gaur be ez daukagu ziurtasun larregirik. Goazen esaldietara, beti lez. “Ordu bat eta laurenak dira” esaten dogu eta orretan jarraitu bearko dogu, baiña ez litzake burubide obakoa izango “ordu bat eta lauren da”?

“Ordu bat eta lauren gitxiago esaten dogu”. Zergaitik ez “ordu bata?”

“Ordu bat eta erdiak dira”. Obeto “erdia da”.

Esaldi orreik ez da zertan gasteleratu, baiña itzultze au egin ezkeru gauza bitxiak agertzen dira: “Son las una y los cuartos”. “Son las una menos cuarto”. “Son la una y medias”.

Ez dakit zergaitik sortu diran esaldi oker orreik, bear ba’da erderazko pentsae-ra nastau dalako edo ordu bat danean be asko diraneko bide beratara sartu gura

doguzelako. Baiña arazoa or daukagu eta ez dot uste zuzenduko danik. Ain da gatxa erriko oiturak zuzentzea!

(29) ALKAR

Bizkaian eta Gipuzkoan eta aldakuntza txiki bategaz erabilten dan berba bat “alkar” edo “elkar” da. Eta eskualde bietan berba onek adierazpen bi ditu: “Alkartu” edo leku batera etorri. Esaterako “gaur emen alkartu gara bakezaleak” eta “senar-emazteak alkar maite dabe”. Adierazpen bi oneik argi dagoz eta egokiak dira. Iñoz entzun dogu ondo izango litzakela euskera batuaren bidean “elkar” batak besteari adierazteko erabiltea eta “alkar” toki batera batzeko. Baiña ez dot uste bide ori artu-bearrekoa danik.

Beste oartxu bat itz oneik agitzeko: “Alkar” batak besteari adierazteko erabilten danean, izten ete dau gramatikeak ori adierazteko aditza aldatzea? Esaterako “Anaiak alkar maite dira” esateko, “maite dira” esatea, edo ondo dago “kepa ta ni maite gara” “Kepak eta nik alkar mate dogu esateko?”

Ezetz uste dot, “alkar maite dogu” esan bear dala eta ez “alkar maite gara” edo “maite gara”.

Onetan Mikel Zaratek sendo aldezten eban eritxiari nagokio, naizta beste eritxi askotan batera egon ez adiskide aundia zan onegaz”.

(30) “ZELAN” “NOLA”

Gipuzkoera osotua gura dabe batzuk batutzat, eta Azkuek orretarako urrats batzuk be emon ebazan, esaterako “Ardi galdua” elebarria, baiña ez dot uste baturik bear danik, batua ikastea baiño ohea da bizkaitarrak gipuzkoerea eta alderantziz ikastea eta idazkietan naiz irakaskintzarako esku-liburuetan bata naiz beste erabilli.

Egia esan, ba-dagoz itz batzuk alkar osotzen dabenak eta euskalki bietan zabaldu bearrekoak.

Gipuzkoan “nola” erabilten dabe itauntzeko eta ez “zelan”, eta Bizkaian, ostera, “zelan” erabilten da beti eta ez iñoz “nola”.

Emen bai errez ikusten dala konponbide bat. Gipuzkoan esan begie “nolako” notin bat danean: “Nolako gizona da ori?” baiña gauza bat danean erabilli begie “zelako”. Au ez dabe iñoz erabilten: “Zelako etxea erosi dogu? eta ez “nolako”, esaten daben lez.

Eta Bizkaian alderantziz? “Nolako gizona da ori” eta ez “zelako” gaur esaten daben lez eta “zelako etxea erosi dozu?” gaur esaten daben lez. Orrelan euskalki biak aberastuko litzakez. Baiña ba-dakit olako aldakuntzak, naizta txikiak izan, errian sartzea gatxa dana, eta ez erraza idazleen artean.

“Zer”, “Zelako” gauzak dira, “Nor”, “nolako”, norkiak dira.

(31) “-EK” ALA ”-AK”?

Aspaldion zalantza aundia daukagu bizkaierazko idaleak “nork” aditzaren askorena erabilkeran. Len ez egoan zalantzarik baiña aspaldion batuaren eta giputz batzuren indarrez badagoz.

“Nork” askorenean, edo “nortzuk” itaunari erantzuteko Bizkaian era bi izan doguz?: Bata notiña zeaztubakoa danean, eta orduan alboan daroa izen-lagun zeaztzailea? “Bost gizonak egin dabe ori ” edo “iñongo gizonak ez leuke egingo

ori “, baiña gure Bizkaian iñoz ez da entzun “ gizonak egin dabe ori ”, beti “gizonak egin dabe”. Bizkaian ba, -ek ez da erabilten izan zeatzugabeen baiño.

Aldatu egin bear dala ? Nik ez daukat eragozpen aundirik, baiña ez gogo bizerik be, lengoan ondo gagozela uste dot. Oraingoz arazoa aske itziko neuke eta bakoitxak idatzi dagiala nai dauan eran.

(32) BILBAOKO URIA?

Gaztelereak itz-aurrekoak edo preposiziñoak ugari erabilten dauz, baiña sarritan gitxi zeatzuta. Euskerea bere atzizkietan askoz zeatzagoa da. Esaterako, gaztelereak “de” gaz esaten dauana esateko euskereak atzizki asko artzen dauz: “De oro/ urrezko”. “venir de casa/ etxetik etorri”, “ser de casa/ etxekoa izan”, “murió de viejo/zarrez il zan” “Villa de Bilbao/Bilbao uria”, “uno de vosotros /Zuetariko bat”...

Gaur “Villa de Bilbao”esaldia eta euskeratzea astertuko doguz.

Gaztelera “de” ori ez da besterik ondoko itza edo aposiziñoa agertzeko bide bat baiño. Berez “Villa Bilbao” itzak zabalera bardiña daukanean izaten da, baiña ez zabalera bardiña ez daukanean. Esaterako “diócesis de Bilbao” “Bilbao-ko eleizbarrutia” esan bear da, eleizbarrutia Bilbao bakarrik ez dalako, Bilbaokoa da baiña “Bizkaia eleizbarrutia”. Uria, ostera ez da Bilbao’koa, Bilbao bera baiño.

-ko onek euskeran badauz beste oker batzuk be: “Karteruko jatetxea” ez, “karteruarena” izan bear leuke. “Andra Mariko eleizea” “Andra Mariarena”.

Beste batzutan zalantzazko gauzea izaten da: “Irailaren 12’an” ala irailleko 12’an”?

Ona emen arazo au argitzeko bide bat -ko ala -ren artu ez dakizunean, itaun au egizu: “Noren” “zeren” ala “Nongo”. Berez artuko dozu erantzuna: “Karteruko jatetxea? “nongoa” da ala “norena”. “Norena”. Orduan “karteruarena”. Nongo eleizea ala norena? Orduan, Andra Maria’reña. Nongo eguna ala noren/zeren eguna? Orduan irailarena.

(33) LEMONA ALA LEMOA?

Ba-dakit toki izenak egokiro ezarteko lan aundia egiten diarduala Euskaltzaindiak, baiña ez nator batera jokabide batzukaz. Esaterako “Bilbo” esan eta idatzi bear ei dogu eta ez “Bilbao”. Ondoren lez or ikusten doguz izen bi. Bilbo/Bilbao bideetan. bata erderaz eta beste euskeraz balitzakez lez.

Izena “Bilbao” izan da eta da, baiña abostegi-arazoagaitik, esan Bilbo esaten da, baiña nik beste au be esango neuke: Azentoa edo sakakadea “i”ren gaiñean ipiñi ezkerre errez ulertzen dala aldakuntza: “Ni gar BÍlbaora noa”. Ez dago “Bilbo” idatzi bearrik.

Baiña naste aundiagoa sortzen da Euskaltzaindiak dauan eta esaten ez dan “-n-” kentzen danean. Or bardin jazoan eta “Otxandio, Lemoa, Fruiz, Laukiniz, Bedarona, Lemoiz...” ei da euskeraz eta “Otxandiano, Lemoa, Fruniz, Laukiniz, Bedarona, Lemoniz...” ez ei da idatzi bear, antza dagoanez erderazko izenak diralako. Nondik erabagi ori? “Geur” esan arren, “gaur” idazten dogu edo “emontzut” esan arren “emon dautzut” idazten dogu. Dana, aboskeriak alboratzeko. Ba, “n” ori be aboskeria edo fonetismoa baiño ez da eta ez daigun kendu.

Eta “-n-” arloan gagozan ezkerre, aitatu daigun “n-”k aurrean “i” dauanean sortzen dan arazoa: Bizkaian “Diputaziñoa”, Gipuzkoan “Diputazioa” eta Iparraldean

“Diputazionea”. Olako itzak asko dira. Zein aukeratu? Euskalki bakoitxak berea erabili dagiala eta ondo be ondo ulertzen dogu alkar. Orduan Bizkaian “Diputaziñoa” (Egia da ordenagaillu batzuk “ñ” onegaz arazoak izaten dabezela).

(34) “NAGO”, “NABIL”, “ARI NAIZ” ALA “DIARDUT”?

Gaztelereak “perifrastika” deirtxon aditz joko batzuk erabilten dauz: “estoy leyendo” “ando estudiando”. Eta ortik sortu dira bizkeieran ain ugari eta egokiro erabilten diran: “irakurten nago” edo “ikasten nabil”. Baiña Iparraldean eta Gipuzkoaren zati baten ez dabe onartu perifrastika ori, frantzeran be ez dagoelako. Frantzeran, gaiñera “estar” aditza ez dauke eta ortik beste arazo batzuk sotzen dira.

Bizkaierearentzat era biak onartuko neukez. Lasai berba egin.

Eta, amaitzeko zelan esan iparraldean: “Ni estan todos los que son ni son todos los que están”. (Ori zoro-etxe bateko atean ei dago idatzita). Edo beste au, Jon deunaren Barri Onaren asierakoa: “En el principio era la palabra y la palabra estaba junto a Dios y la palabra era Dios”. Latiñez dana esaten zan “erat”, baiña gaztelerea eta Bizkaierea aberatsagoak dira “estaba/egoan” daukelako. Ori gazteleratik onartu egin berar geunke: “Dagozan guztiak ez dira (zoroak) eta diran guztiak ez dagoz” emen.

(35) ONEK ETA ONEIK, ALA ONEEK?

Idazteko erreztasun aundia damosku azento edo sakakada-ikurrik ez erabilteak, baiña sarritan esan gura doguna esateko bear izaten da eta beste jokabide batzuk artu bear izaten doguz.

Berba egikeran sakakadeagaz bereizten dogu “onék” batera eta ónek” askorena. Sakakada ori artzen ez dalako zelan bereiztu? Batena esateko “onek” idazten dogu: “Onek egin dau ori”. Askorena danean batzuk “onek” erabilten dabe eta ez da egokia irakurketa gatxagoa dalako. Beste batzuk “oneek” idazten dabe, eta au be egokia da, baiña geienak “oneik” idazten dabe eta neu be azkenengo oneikaz batera nator: “onek ekarri dau ogia eta beste oneik aragia ta ardaia ekarri dabez”.

Izen-orde erakusle oneik sarritan agertzen dira eta arau au kontuan artu-bearrekoa da.

(36) NOK ALA NORK?

Euskereak, batez be Bizkaikoak, berba egikeran izkiak galtzeko oitura aundia ta bildurgarria dau. Nik uste dot % 40 inguru dirala galtzen doguzan izkiak. Esaterako “egin dogu” esateko “inju” esaten da. Bizkaizirik geienean, zortzi izkitik laura jatsi gara. Eta orregaitik egiten jake ain gatx euskaldun barriai gramatikaz ikasi eta erriko izkerea ulertzea edo gipuztzai bizkaierea ulertzea edo berba egitea.

Bide orretatik dator arlo onetan egiten dogun itauna: Zelan idatzi “nork” ala “nok”. Erritarrak berba egiten dabenean “nok” esaten dabe eta idazkeran be arau ori artzea esondatzen dot: “Nok irakurten dau idazki au?” eta ez “nork irakurten dau idazki au?”.

(37) EZTA ALA EZ DA?

Aboskeriak edo fonetismoak sarritan agertzen dira, Bizkaian, batez be. Ez dira fonema edo abots osoak alofono edo abots aldatuak baiño. Oneik ez dabe aldatzen adierazpena.

Aldakuntza ori aurreko bakartiak (bokalak) edo langundunak eragiten dau (konsonanteak). Bokalak: "Buru" esaten dogu "burua" idazteko. Lagundunak (konsonanteak): "Onto" izan bear leukena, "txarto" dan lez, "ondo" biurtzen dau.

Olako eragiña dauka "-z" azkenekoak, onek abots bigunak gogortu egiten dauz: "Ez da/ ez ta". Baiña fonetismoak, al dan neurrian kendu egin bear doguz idazten dogunean eta " ez da" idatzi beti. Ondo, bai.

Oraingo onetan dakarguna auxe da: "ez noa" ala "enoa", "ez nator" ala "enator".

Esandakoaren arauz, "ez noa" eta "ez nator" idatzi bear geunkez.

(38) "-GAZ", "-KAZ", "-REKIN", "-KIN"

Sarritan esan dogu "batuak" Bizkaiko bereizitasunak alboratu egin dauzala. Oneitariko bat dogu "gaz/kaz" atzizkia? "Gizonagaz/gizonakaz".

Orren ordez beti "kin" erabiltea eskatzen dabe. batzuk badiño "kin" notiñakaz eta "gaz/kaz" gauzakaz erabilteko be.

"Kin" bizkaiaren zati batzutan erabilten da, batez be Gipuzkoatik ur dagozen lurraldeetan. Baiña sarritan ez da erabilten zuzen: "kin" beti da askorena eta bate-na danean "rekin" erabili bear da. "Aiztoarekin egoan gizona baiña etsaiak aiztoakin etorri jakozan". Amarekin (bat) gurazoakin (asko).

Baiña "gaz/kaz" bizkaierearen bitxi eder bat da eta ez dogu alboratu bear, naizta noizean bein "kin" erabili.

Idazleren batek "rekin/kin" notiñakaz erabili nai ba leu eta eta gauzakaz "gaz/kaz", ez litzake jokabide txarra izango.

(39) ASKO/AUNDIA

Erdereak argi ez daukazan itzak euskereari zoramena sartzen dautsoe: "Odias mucho", "bebes mucha agua", "han venido muchos hombres" beti ez dira euskeratu bear "asko" esanda: Ez "gorroto asko daukazu", bai "gorroto aundia daukazu". (gorrotoa bat baiño ez da). "Gizon asko etorri dira". Bai. Ondo dago. Kontau leikezelako edo kopuru "konmensurablea" dalako. Ez "ur asko edan dogu" bai "ura ugari edan dozu" (Ura bat baiño ez da, "inkonmensurablea" da). Ez dogu esango "euri asko egin dau", "eurite aundia egin dau" bai.

Olan dala, esan leike "gizon asko etorri da"? Ez, "gizon asko etorri dira" baiño. Orain iñoz "euri asko" okerbidez esango ba'gendu, ez dogu esango "euri asko egin dira" "euri asko egin dau", baiño.

(40) "DEITZEN JAKO" / "DERITXO"

Alboan erabilten diran izkuntzetatik egunero etorten dira gurera maillego-itzak, oraingo onetan "adstrato"tik. Baiña batzuk, bearrezkoak ez diralako edo len itz egokia daukagulako, guztiz onartu barik geratzen dira. Oneitariko bat dogu erderazko "¿cómo se llama?" esateko "zelan deitzen jako" esatea.

"Deitzen jako" au idazle ugari eta onen artean sarritan aurkitzen dogu, esaterako Aita Santi Onaindiak edo Augustin Zubikaraik sarritan erabilten dabe. Ori geure denporetan.

Esaterako, “boligrafo” bat ikusita, esango leukee “Zelan deitzen jako oneri?” “Oneri euskeraz idazkortza deitzen jako”. Baiña idazkortzari iñoz ez jako deitzen. Gitxiago min egiten dau gure belarran notin bat danean: “Zelan deitzen jako gizon orreri”. “Gizon orreri Bingen deitzen jako”. Baiña auxe be ez dala onartze-koa esango neuke nik. Ona emen zuzenago legokena: “Zelan deritxo oneri? Oneri idazkortza deritxo” eta “zein da euskeraz boligrafo onen izena? Idazkortza izena dagokio orreri”. “Bingen deritxo gizon orreri” edo “Bingen da gizon orren izena”.

(41) “ITXI” TA “ITZI”

“Itxi” eta “Itzi” itzak bizkaieraz antzekoak dira esakeran naiz idazkeran eta sarri-tan ikusten dodaz okerretara erabillita, idazle onen artean be. Esakeran, mungial-dean beintzat badago alde txiki bat. “Itxi”, esaterako “atea itxi”, “ixi” agozkutzen dogu eta “liburua mai-gaiñean itxi” danean, orduan “itxi” esaten dogu. Ori biak bereizteko urrats txiki bat da.

Baiña gaurkoz idazkereari nagokio. Gipuzkoan “utzi” esaten dana Bizkaian “itzi” esan bear geunke. “Utzi atea dagoan lez”. Eta Iparraldean “ertsi” esaten dana “itxi” eta ori, onelan, -tx- idatzi. Esaterako “kanpora zoazenean, atea ondo itxi”.

Gaitxago biurtzen da, oraindiño, oiturazko aditz-jokoa danean: “Nik beti atea ixten dot”, or -x- erabilli jatorria -tx- dalako. “Zapatak beti gordeta izten dodaz”. Or -z- erabilli, jatorria -tz- dalako.

(42) “NAI” TA “GURA”

Gure maillego-itzak, astratotik sartuak, noiz eta nondik sartu diran jakiteko badagoz bide batzuk. Esaterako “ispillu” Naparroatik eta Aragoitik sartu da eta, bear ba’da seigarren gizaldi-inguruan. Itz au eta -ll- dauken itzik geienak bide ori artu dabe etorteko. Gaztelereak -j- edo “izpiju” emongo ebalako.

Barruko naia agertzeko Gipuzkoan eta Gipuzkoatik ur dagozen Bizkaiko lurre-tan “nai” itza erabilten da: “Zuk ogia nai dozu, baiña ez daukat”. Bizkai-barruan, ostera, “gura” esaten dogu: “Zuk ogia gura dozu baiña ez daukat”.

Zer da edo nondik eta noz etorri da “gura” itz ori?

Ori lateratik etorri jaku eta laterako itza “gula” da. Orduan “ez dot gura” berez asieran “no tengo gula” izango zan. Eta naierea agertzeko ainbat izkuntza latin-kumetan aurkitzen dogu, esaterako “rumanoz”, “gura” edo “gure” aditz ori. Asi-eran arritu egiten gara, “rumanoz” eta euskeraz bardin esaten entzunaz, baiña jatorri ori jakin ezker ez da arritzekoa.

Noiz etorri zan?

Seigarren gizaldi-inguruan bear ba da.

(43) “DAUANA” / “DABENA”

Esan dogu lenago aboskeriak, fonetismoak, indar aundia daukela Bizkaiko euskeran eta euskera au idatzikeran al dala aboskeri orreik alboratu egin bear dirala, gramatikeari zuzenago jarraitzeko, euskerea ulerterrezagoa izan daiten eta guztiontzat arau ziur batzuk eukiteko.

Ainbat idazlek idatzita olako esaldiak irakurri dodaz: “Erosi dabenak ordaindu dagiala”. Ori ez dago gramatikaz zuzen. Baiña bai beste au: “Erosi dabenak

ordaindu dagiela”. Zer jazo dan lenengo esaldian? Ba, aditza “dau” da eta relati-boa gaiñeratu ezker “dauana”, baiña berba egikeran “dauana”ren orde ez errez esaten da “dauena” edo “dabena” eta orrelan gramatika txirotu egiten da eta ulertzeko erea murriztu.

Onelan geratu beite: Gizon batek erosi dauana (ez dabena), berak ordaindu begi. Eta askorenean: “Gizon batzuk erosi dabena, eurak ordaindu begie”.

(44) “AFALDU” / “APALDU”

Erriak erabilten dauan izkuntza ez da beti bardiña izaten: Zarrak era batera, umeak beste era batera, itxas-aldean batera eta lur-barruan bestera. Erririk erri eta sarritan etxerik etxe euskereak aldakuntzak daukaz.

Abedea bera be aldatu egiten da. gure aitita-amamak ez ekien “f” izkia agozkatzen, ez eben esaten “afaldu” edo “Fika”, “apaldu” eta “Pike” baiño. Gaur batzuk “alfer” esaten dabe baiña gure artean gazteak be “alper” esaten dabe. Antzera esan bear “Nafarroa” / “Naparroa” eta beste itz askori buruz.

Zelan idatzi, orduan, “afaldu” ala “apaldu”? Nik “apaldu” idatziko neuke eta beste itzetan be “f” ori kentzera jo, erriaren jokerea kontuan artuta: “Ipar-aizea” eta ez “ifar-aizea”, “alperra” eta ez “alferra”, “Naparroa” eta ez “Nafarroa”.

(45) “DITU” ALA “DITUZ”

Euskerearen aurrerabidea aztertu ezker, itaun au jatorku beingoan: Gure izkuntza euskalkietatik baturantza doa ala asierako euskera bakarretik (protovasco) euskalkietara?

Erantzuna ez da erreza eta ez bai edo ez esanda amaitzekoa. Bear ba’da asieran bat zan eta gero banatzen joan da, baiña orain albiste-bideak ain lan aundia egiten dabelako eta euskerea ikastoletan erabilten asi garalako, barriro bat izatera goazela dirudi.

Errian beti izan dira baturantza jo dabenak: Parrokietako izlariak, bertsolariak eta batez be mugan dagozen erriak: Elorrión edo Ondarroan Bizkaiko ta Gipuzkoako izenak, adizkiak, atzizkiak... geiago nastaten dira Bizkai-barruan baiño.

Gipuzkoatik etorriak doguz “ditu” eta “zituan” adizkiak. Eta Bizkairik geienera sartu dira, Mungialdean, esaterako, “ekarritzuz” entzuten da eta ori “ekarri dituz” da jatorriz.

Aditza artu bai, baiña lar ondo ulertu barik. Gipuzkoan “ditu” askorena da egozkizun zuzenez: “Gizon bi ikusi ditu (dauz)”, baiña Bizkaian askoren atzizkia azkenean doan lez “dituz” esaten dogu eta ori okerra da, askoren adizki bi ez diralako bear. Bardin “gizon bi ikusi zituan/ebazan” eta ez “gizon bi ikusi zituzan”.

Or ikusten da besteen euskalkiak arteak badauzala arriskuak erri-maillan, naizta garamatikarien artean gauzak ondo bereiztu.

(46) MUGATZAILLEA

Guztiok dakigu latiñak euskeran, adstrakto lez, ikutu aundiak egin ebazala eta oneitariko bat mugatzaillea da: “Gizon-a” “Gizon bat”. Baiña ikutu au erromantzerako eta latinkumeen iskuntzakaz batera egin eban. Gazteleraz “el la eta lo” mugatzailleak latiñeko “ille, illa illud”etik artuak dira eta euskereak olako mugatzailerik ez eukan lez, antzekoak artu ebazan egokituta: “Gizon-a, -ak, ek, ik, ok” Gizon “bat” eta “batzuk”. Eta gaiñera mugatubakoak: “lau gizon etorri dira”, lau

“gizonek egin dabe” eta partitiboa: “Gizonik aundiena” “Eskerrik asko” edo “zein gizonek?”.

Baiña mugatzaille oneik ez dira erabilten gasteleran lez. Esaterako “Donosti” ala “Donostia”?

Ba-dago beste joko bat euskeran zalantza dakarrena: “azpikeri aundia da ori” al “azpikeria aundia da ori”?

Nire ustez izen lagunak daroan “-a” ori bientzat da eta baten ipintea da nai-koa: “Azpikeri aundia”. Sarritan agertzen da joko au eta beti orretara erabilliko neuke nik, gaur ostera sakon sartu jaku erriak esaten ez dauan joko au: “azpikeria aundia ikusi dogu or”. Nik ez dot orrelan erabilliko.

Iñoz -a ori berberena izan da be, euskereak kendu egiten dau eta jokabide zabala dan lez, neuk be orretara erabilliko dot. Ona emen adibidea joko au argitzeko: “Miseri aundia agertzen da” eta ez “Miseria aundia agertzen da”.

(47) “MENOS ALTO” EUSKERAZ

Begiratu daiguzan izen-lagunaren maillak. Iru dira izen-laguna bera (positiboa), Alderagillea edo konparatiboa, eta au bardintasunezkoa, geiagozkoa eta gitxiagozkoa. Geiengoa (superlatiboa) eta au besteakazkoa (relatiboa) eta guztizkoa (absolutoa).

Izen-laguna bera: onek ez dauka goraberarik.

Alderagillea edo konparatiboa: Onek iru arlo daukaz: bardintasuna, geiagotasuna ta gitxiagotasuna.

Bardintasuna adieraztea ez da erreza euskeran: “Juan eta tan alto como Pedro”. Zeozelan esan bear: “Jon Keparen bestean da aundia”. Adiña aiña.

Geiagozkoa errez esaten da: “Juan es más alto que Pedro”, euskeraz “Jon Kepa baiño aundiagoa da”. “-ago” da ba atzizkia.

¿Eta gitxiagozkoa? Au euskeraz ezin daiteke esan ezelan be: “Juan es menos alto que Pedro”. Au ez dauka euskereak.

Goazen guztizko edo superlatibora. Au izan leiteke besteakazkoa (relatiboa) eta guztizkoa edo absolutoa.

Besteakazkoa: “Juan es el más alto de los hombres”. Onek geienetan joko partitiboa artzen dau: “Jon gizonik aundiena da” eta “-ena” atzizkia daroa.

Gutztizkoa: “Juan es altísimo”. Au adierazteko era bat baiño geiago dauka euskereak. Lenengoa, izen-laguna bitan esanda: “Jon aundi-aundia da”. Obeto joten dau ezetzean: “Jon ez da aundi-aundia”. Beste era bat aurrean “oso” edo “guztiz” ipiñita: “Jon guztiz aundia da” edo “Jon oso aundia da”.

Aspaldion sarritan entzuten da “muy bien” esateko “oso ondo”, baiña obeto artzen dau euskereak “ederto” esatea. Gerkeraz be “kalos” eta “agazos” batera doaz eta “kalokagazos” esaten da. Euskeraz be “oso ondo” baiño obeto dator “ederto”.

(48) “BIZIA” ALA “BIZITZA”

Zein izkuntza ete da aberatsagoa, euskerea ala gaztelerea?

Itaun oneri ezin leikio emon erantzunik. Gauza edo arlo batzutan euskerea da aberatsagoa, esaterako euskerearen atzizkiak askoz geiago dira gaztelerearen izen-aurre edo preposiziziñoak baiño. Esaterako, erderazko “de”ren orde atzizki asko dagoz.

Sendi arloan euskereak izen geiago daukaz gaztelereak baiño...

Gaur aztertu daigun erderazko “vida” itza.

Itz bakar onek gateleraz adierazpen bi daukaz: “perdió la vida despues de una vida larga”. Txarto euskeratuta legoke: “Bizitza luze baten ondoren galdu eban bizitza”. Eta ondo: Bizitza luze baten ondoren gandu eban bizia.

Eta “vida” bi orreik erabilteko ona emen araua: “Bizitza” urteetan igaroten dan bizi-aldia da eta “bizia”, barruko indar berezi bat.

(49) “URAZ BETERIK”?

“Bete edo beterik” itzak mugatzaille bako betegarria eskatzen dau.

Ez dago ondo “ontzi ori uraz bete egizue”. Eta erderakada bat izango litzake “Ontzi ori uragaz bete egizue”. Ondo legoke, ostera, “ontzi ori urez bete egizue”.

Uts au naikoa sarritan egiten da eta kontuan artu-bearreko gauzea da zuzen itz egin gura ba dogu.

(50) MUGATZAILLEA NOZ?

Mugatzaillea erabilikeran euskereak ta gaztelereak ez dauke jokabide bardiña. Noiz erabili jakiteko gramatikako arauak baiño ziurragoa da erriak zelan erabiltzen dauan begiratzea. Zori txarrez eskualde guztietan ez da bardin erabiltzen, baiña bide bat bada.

Liturjian erri-izkuntzak sartu ziranean, baten batek arrentza euskeratu eban, baiña mugatzaillea erderan lez erabillita. Gure belarrientzat mingarria zan. Mugatzaillea ipiñi egin bear izan jakon eta gaur onelan erabiltzen da: Ez “Autorleen erregin”. Bai “Autorleen erregiña”.

“Izan” aditzaren egozkizuna danean be gaztelereak ez daroa mugatzaillerik baiña euskereak bai. Ez: “Kepa on da” erderaz “Pedro es bueno” izan arren. Bai: “Kepa ona da” eta erderaz “Pedro es el bueno” izango litzake.

Ez dauke joskera bardiña izkuntza biak. Ikusten da.

(51) IZEN BEREIZIAK: VALENCIA ALA BALENTZIA?

Euskalerrikoak ez diran izenak idatzi bear doguzanean, zalantzak etorten jakuz. Zelan idatzi New York eta Nueva York ala York Barri?

Sarritan erantzun errezegiak emoten jakoz itaun oneri: “Bertakoak idazten daben moduan”, esaterako.

Arau ori kontuan artuta, zelan idatziko geunke “Cabo de Hornos” edo “Cabo Buena Esperanza”? Zelan Océano Pacífico?

Asi gaitzean izenik errezenetatik: “Valencia”, ala “Balentzia” ala “Valentzia”?

Nik bi onartuko neukez errez: “Balentzia” ta “Valencia”. Egia esan, “Balentzia”ren alde nengoke. Baiña ezin onartu leikena eta ETB be agertzen dana Valentzia da. Au zati bat euskeratuta dago eta beste ez. Ori ez da gauza egokia.

“Madrid’era noa” ala “Madrillera” noa? Oraingoz biak onartzea da onena.

“Cabo de Buena Esperanza” nik “Itxaropen onaren Itxas-muturra” esango neuke eta “Océano Pacífico” “Itxas Aundi Barea”.

Eta gure izenak zelan esan kanpoan? Getxo idazten ba’dogu, ango irakurleak erderazko “g” lez irakurriko dabe eta “Guetxo” idazten ba’dogu, euskaldunak “Güetxo” irakurriko dabe.

Guk bertokoak geure erara idatzi bear doguz: “Getxo”.

Beste zalantza bat daukagu Euskaltzaindiak ezarritako izenakaz: Lemoa ala Lemona?, Oxandio ala Otxandiano? Nire ustez “-n-” ori kentzea aboskeri bat da, “aita” esan bearrean aitxe esaten dan antzera. Bilbao, Lemona, Otxandiano... euskal-izen zarrak eta jatorrak dira eta orreik erabilli bear dira.

(52) EUSKERA ALA EUSKERAZ?

Ez da bardin “Euskerea ikasi” eta “euskeraz ikasi”. Esaldi bi oneik errez bereizten dira eta ondo bereiztu bear doguz.

“Euskerea ikasi” ikasgaia euskerea bera danean esango dogu: “Gure ikastoletan ikasle guztiak ikasten dabe euskerea”.

Baiña beste gai batzuk diranean ez dogu euskerea ikasten gai orreik baiño eta orduan onelan esan beariko dogu: “Guk edestia euskeraz ikasten dogu”.

Ona emen esaldi luze bat: “A” erduan euskerea da euskeraz ikasten dan gai bakarra eta “D” erduan euskerea ikasten da baiña beste gai guztiak be euskeraz ikasten dira”.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

ON INOZENTZIO IL ZAIGU !

Aralarko San Migelen Santutegiko maitale eta errones izan geranok, idazpuruan jartzen dugunarekin, ez dugu geiagoren bearrik jaun ori nor zen jakiteko. Berrogeita amasei urtez San Migelen Santutegi orretan kapellau, bertan bizitzen zelarik; eta urte geienak bertaraiño errepiderik gabe. Negualdiko elurte ikaragarriak inguratzen zutenean, On Inozentziok, ortxe jarraitu zuen, ekaitz gogorrez olatuen enbataren aurrean itxasontziko kapitaiñaren gisa. Askotan Joxe guarda izan zenarekin, mendian bidea galduta zenbiltzaten mendigoizaleen billa, baita elurte galantarekin ere, eskien gaiñean..

1999eko Maiatzaren 3an berarekin izan nuen elkarrizketa mamitsu baten ondorioz, Diario de Navarra, "Euskal Arnasa" izenburu duen orrian azaldu nituen itz egindakoaren xeetasunak. Gogora ditzadan , batzuk:

ON INOZENTZIO AYERBE IRAÑETA, 1912ko Abenduaren 28an Uharte Arakilen jaio zen, eta aurtengo Iraillaren 22an., fedearen zerbitzari leial au, Jaunak eraman du bere Etxera.. APAIZ ZINTZO IZATEAZ GAIN, EUSKAL IDAZLE ere bagenuen. Euskera erro-errotikoa erabiltzen zuen Eta 1933an asi zen idazten. "Amayur", "Zeruko Argia", "Egan" eta "Principe de Viana" aldizkarietan argitaratu zituen bere lan geienak. "Artxuetako Unaia" izengoitia erabiltzen zuen batzuetan. Xabier Peñarekin Euskal Gramatika bat argitaratu zuen. Kardaberaz Jakintza Bazkunako bazkidea zen. Elkarte ori, On Manuel Lekuonaren babespean sortua 1929an Gasteizko Seminarioan, apaiz euskaldunak euskaraz idazten trebatzeko.

SANTUTEGIKO ERRETAULA OSTU ZUTENEAN IKARAGARRIZKO KOLPEA ARTU ZUEN. Eta berriz eskuratuta an badago ere, eragin txar ori ez omen zuen bere barnetik uxatzerik izan. Eta ez da arritzekoa, ikusirik bere jarrera, bizitza guztia Santutegi orri emanez, leku erosoetara joateko eskaintzak izan arren, kontuan izanik bere jakintasuna eta prestakuntza. Fedea, ordea, orrelakoxea izaten da. Ez bait du zer ikusirik izaten mundu onetako neurri mugatuekin.

Berari esker, zeatz- meatz onako auek jakin genituen:

SANTUTEGIA aipatzen den agiririk zaarrena 1032koa da. Ortik atzera ez dago besterik. Arabiarrak sartu omen ziren, eta aiek arrapatzen zuten guztia ondatu egiten zuten, desegin edo erre. ORTIK KANPORA ARKEOLOGIARA JO BEAR, ETA OR BEDERATZIGARREN MENDEKO AZTARNAK AGERTZEN DIRA ERRETAULA berriz 1175ekoa izan daiteke. Eta. TEODOSIO GOÑIrena, ipui edo leienda utsa...

Gauza bitxi bat aipatzekotan, DON MIGEL DE UNAMUNOren bixita edo ikustaldia eta aren ateraldiak:

– Los perros amamantados en los pechos de Don Miguel. " On Migel Maki-rriain ordungo capellaua zen, eta "de armas tomar" esaten den orietakoa. Eta Unamuno izan zenean kanpoan egokitu, bestela eztabaida gogorra sortuko omen zuten.

– Zerbitzuan zeuden emakumeengatik: "Las diaconisas de San Miguel que estaban en el templo bailando el baile del brochado." Eleizako ooltzari brilloa ateratzen, alegia, zepilloarekin.

Aurtengo Iraillaren 22az gero, On Inozentzio ere leenaren istori biurtu zaigu.

88 urte zituen, eta orain omen zebillen erretiroa artzeko asmotan, sari aundirik artu gabe noski. UharteArakilgo illerrian illobiratu dute. Errepide nagusiaren alboan. Ortixetik pasa nintzen leengoan eta auxe bururatu zitzaidan, eta burutapena aldi berean Iruñeako eliz agintariei luzatzen diet:

ON INOZENTZIOK, –AINBESTE URTETAN ZEAR SANTUTEGIKO LAIÑOPEAN ARGI IZAN ZENAK– EZ OTE LUKE MEREZI, ILLOBIA, SAN MIGE-
Len SANTUTEGIAREN BARRUAN baxtar batean izango bada ere. Zergatia ez dago esan bearrik. Nire au galdera ez ezik, eskaria ere bada. Eta oraingoz, berealaxe plaka bat jartzea ere eleiz barruan ezinbestekoa.

Ortxe gelditzen da nire iritzi apala. Eta On Inozentziok, izan beza berirako atsedena. Zeruko Jaunaren Etxe Nagusian

JOXEMARI MURUA GOÑIK
2001eko azaroa

TOKI BAT DAGO SALGAI / VENDEMOS UN LOCAL

NON? TOLOSA'N. GETARIA KALEA 5. ZEZEN-PLAZA'REN ONDOAN.

NEURRIA: 158 m²

JAKINGARRIAK ETA SALKETA: 943 65 13 33